

Goienkaria

2009ko otsailaren 20a > Egubakoitza > IX. urtea > 365. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Kaleko sare sozialak dira garrantzitsuak, birtualak bigarren mailakoak dira"

Juan Arbulu
Lanbide Heziketako irakaslea > 09



G2a Bergarako margolari handiei omenaldia > 37

ESKORIATZA Urdelardero jaiak atek ireki zizkien Aratusteei egunean > 29

BERGARA Herriko dendariak merkealdi azoka egingo dute martxoaren 7an > 19

OÑATI Apirilean hasiko dira autobus geltoki nagusia berritzen > 27

EUSKARA > KALE ERABILERA

Aramaioko gazteek gero eta gutxiago egiten dute euskaraz

GAZTEAK 14 eta 25 urte arteko gazteen %81ek euskaraz egiten zuten kalean duela zazpi urte; gaur egun, %32k

KEZKA Aramaioko Udala oso kezkatuta dago, gazteez gain nagusiengan ere joera beheranzkoa delako

NEURRIAK Euskara sustatzeko akzio plana landu du aurtengo urterako Udalak; gazteekin esfortzu berezia egingo dute > 32

ERREPIDEAK > AP-1

AP-1 itxita aste bukaeran

Bergara eta Arrasate arteko tartea itxiko dute gaur gauetik domeka arratsaldera > 07



ZALE ASKO Ibarreko saskibaloizale asko izan ziren eguaztenean Intxaurtxuetan; irudian, talde frantseseko Sambe Lamine Bruesako defentsa gainditzeko ahaleginean.

IMANOL SORIANO

Harmailak bete egin ziren Bruesa GBC eta Paul Lacq Orthez ikusteko

Eguaztenean egin zuten Eskoriatza Kirol Elkartearen 45. urteurreneko ekitaldiak oso harrera ona izan zuen, jende asko joan zen-eta Bruesa GBCren eta Paul Lacq Orthez-en lagun arteko partidua

ikustera (76-58). Donostiako taldea izar guztiekin etorri zen Eskoriatzara, eta lagun arteko partidua izanda ere entrenatzaileek tentsio handiz gidatu zituzten bi taldeak.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 06-07
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Gutunak > 10
Herriak > 13-33
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Saillatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Zerbitzuak > 44
Berri-zakua > 45
Non-zer > 46-47

UGARTE
AROTZEGIA-ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • atek



altzari denda
ikerleku zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1A • bergara
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04


eragin eta
aldatu

bozkatu



www.aralar.net

ezkerreko **alternatiba** abertzalea aralar



MIKEL ARROIABE

Proposamenak eta kezkak plazaratu dituzte alderdiek

KRISIA Denen ahotan dago bizi dugun krisi ekonomikoa, baina hortik ateratzeko askotariko neurriak proposatzen dituzte alderdiek

GARRAIOBIDEAK AHT, Debagoieneko tranbia, errepideak, garraio publikoa... dira hautagaiek nabarmentzen dituzten beste gaietako batzuk

PAREKATUTA D3M lehiatik kanpo, Espainiako Konstituzioaren aldekoen eta erabakitze eskubidearen aldekoen artean oso emaitza estuak espero dira



JOSEBA EGIBAR > EAJ

"Mapako orbain berde bakarria ezabatu nahi dute PPK eta PSE-EEK"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joseba Egibar andoaindarra EAJko eusko legebiltzarkidea eta Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea da. 1998 urtetik EAJko bozemailea da Eusko Legebiltzarrean.

Zer dauka Ibarretzek, beste hautagaiek ez dutena?

Herri hau errespetatua izan dadin erabateko bermea da, ekonomian zein politikan daukaguna sendotzeko eta behar duguna eta eskatzen duguna lortzeko. Emandako hitza bete du azken hamar urteotan. Hautagai sendoena da, zintzoena, ekonomia krisitik ateratzeko eta gaur oraindik konpontzeko dauden normalizazio politikoa eta bakea gaiei ekiteko gai den bakarria.

Egungo inkestek diote EAJ, EA eta EBren Hirukoaren Gobernuak ez lukeela erabateko gehiengoa lortuko. Non dago giltza?

Giltza euskal hautesleek dute. Hauteskunderaz hauteskunde

euren heldutasun maila erakutsi dute. Euren erabaki behar dute Ibarretzek edo Lopezek gobernatu behar duen, euskaldunoi eragiten diguten erabakiak guk hemen hartuko ditugun edo Madrilen hartuko dituzten.

PPk eta PSE-EEK osatutako Gobernuaz ere asko hitz egiten da. Aldaketa beharrezkoa dela diote. Zer ekarriko luke horrek?

Garbi dago PSOEk eta PPK estrategia bera darabilte, 2001ean erabili zuten estrategia

"Krisitik ateratzeko eta normalizazioari eta bakeari ekiteko gai den bakarria da Ibarretxe"

"Gobernua dena delakoa ere, edozein akordioak oinarri gardenak eta argiak behar ditu izan"

bera. Helburu bakarria dute: Euskadi kontrolatzea, Estatuan gobernatzen ez duten erkidego bakarria; mapan duten orbain berde bakarria ezabatzea. Euskal herritargorenean erabakiak errespetatzea eragotzi nahi dute.

Beste aukerarik ez bada, EAJ-PSE-EE gobernu osoa osatzeko prest zaudete?

Dena delakoa ere, edozein akordioak oinarri argiak eta gardenak behar ditu izan; bakea eta aukera guztien defentsa batetik, eta, erabakitze eskubidea duen herri baten izatearen aitortza, bestetik. PSEk EAJri lekua kentzeko asmo argia du eta, horretarako, bere eskura dituen lege-tresnak erabili ahal ditu, Alderdien Legearen aplikazioa, esaterako.

Eta PPrekin?

PSE-EEekin egiten dugun planteamendu bera da. Gobernu osoa osatzeko kudeaketari buruzko gaitan ados egoteaz gain, bakeari eta normalizazio politikoari

buruzko gutxiengo komun batzuk behar ditugu. Oinarrian, galarazitako kontsultan planteatzen ziren bi galderak: Indarkeriari elkarriketa bidez amaiera emateko prozesuaren aldeko apustua egitea eta euskal alderdi guztien artean Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen baitan akordioa lortzeko apustua egitea. Gaur egun ez dut uste PP eta PSOEk jarrera hori dutenik.

Ezker Abertzalea hauteskundeetara aurkeztu ezin izanak, zeini egingo dio mesede?

PSOE eta PPri. 2001ean abertzaleak euskal erakundeetatik ateratzeko egitasmoak porrot egin zirenean, egitasmo hori hobetuko zutela esan zuten. Eta horrela izan da. Onartu zuten jokalaritako bat joko-zelaitik kanpo uzteko asmoa. Honela, trikimailu demokratikoak erabiliz, errazago zen PP eta PSOEn batuketak Lehendakaritza lortzeko beharrezko gehiengoa lortzea.

Krisi ekonomikoaren aurrean, zein da EAJren errezeta?

Egindakoa sendotu beharra dago. Esaterako, gure industria estaldurak gure Barne Produktu Gordinaren %30a suposatzen du eta ekoizpen arlo hori sendotu behar dugu. Inbertsioak aurreratu behar dira ekonomiak berak ibilbidea eta likidezia eduki ditzan eta, behin krisia amaitzerakoan, irten eta gaitzetzeko prest egon behar dugu. Gutxietsitako pertsonen ere arretra berezia behar dute.



Joseba Egibar

Udal funtzionarioa
49 urte • Andoain

BERBA BITAN

"Tranbiarekin ari da lanean Jaurlaritza"

"Jaurlaritza tranbiarekin ari da lanean. Baina, horrelako egitasmoak guztionak izan behar dira. Udalerrri bakoitzak dituen nahiak eta ikuspegiak uztartzen gabiltza eta hori ez da lan erreza eta azkarra. Egitasmoa aurrera doa, adostasunak eskatzen duen erritmoarekin".

AGURNE BARRUSO > EZKER ABERTZALEKO KIDEA ETA BERGARAKO ALKATEA

"EAJ eta PSOE herri hau galbidean jartzen saiatuko dira"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Agurne Barruso bergararrak 39 urte ditu eta Parte-hartze teknikaria da. Ezker abertzaleko kidea, Bergarako alkatea ere bada 2007ko udal hauteskundeak ezker.

Martxoaren 1ari begira, zer jarrera hartuko du ezker abertzaleak?

Datozen hauteskundeak testuinguru zabalagoan kokatu behar ditugu; Euskal Herriko egoera politiko orokorraren testuinguruan. Gure ustetan, Euskal Herria bi markoren arteko bidegurutzean dago eta martxoaren 2tik aurrera PSOE eta EAJ bidegurutze hori norabide oke-reen jartzen ahaleginduko dira.

Egungo markoa iraunarazi eta gatazka luzatuko duen norabidean jarri nahiko gaituzte eta ezker abertzalearen jarrera norabide hori aldatzeko lidergoa izango da. Euskal Herria marko demokratikora eramateko prozesuaren buru izatea, hain zuzen ere.

Zelan darama ezker abertzaleak kanpaina?

Egoera honetan eraman daitekeen modu bakarrean: ardura politikoz eta kezka. Ardura politikoz, egoerak eta momentuak inoiz baino gehiago horrela eskatzen duelako; eta kezka, gainontzeko alderdiek egoera ezin antidemokratikoago honetan hartu duten jarrera zeharo lotsagarria delako. Ibarretzek deitu dituen hauteskunde hauetan sektore oso zabalak ez du libreki parte hartzeko aukerarik eta herri hone-

tako klase politikoaren ardura egoera honen ondorioz eserlekuak nola banatuko diren kontatzea baino ez da.

Ezker abertzalea ezin izango da datorren legealdian Gasteizko Legebiltzarrean ordezkatuta egon. Zer ekarriko du horrek?

Alde batetik, guztiz antidemokratikoa izango den Legebiltzarraren eratu dela; bestetik, Legebiltzar horrek ez duela, inondik inora, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako soziologia politikoa ordezkatuko eta ondorioz izango duen zilegitasuna hutsaren hurrengo izango dela. Azkenik, herri hau askatasunera eramango duen prozesua datozen lau urtetan Eusko Legebiltzarretik guztiz kanpo taxutuko dela.

Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

EAJ eta PSOE herri hau galbidean jartzen saiatuko dira hauteskundearen ondoren eta saiake-

"Klase politikoaren ardura egoera honen ondorioz eserlekuak nola banatuko diren da"

"Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeak aukera emango dion markoan dago gako"



EZKER ABERTZALEA

Agurne Barruso

Parte-hartze teknikaria
40 urte • Bergara

BERBA BITAN

"Ezkerretik eraikitako proiektua dugu"

"Euskal Herriarentzat eta Debagoienarentzat eskaintza ezkerretik eraikitako Euskal Herri osorako proiektua da. Debagoienan herriz herrikako programak ditugu garatuta. Guztiak ere ikuspegi ezkerretik eta abertzale-rik eraikiak daude".

ra hori saihestu beharra dago, ukazioa eta gatazka luzatzea nahi ez badugu, horixe da jokoan dagoena martxoaren 1ean.

Zeinek irabazten du Alderdien Legearekin?

Uste dut galdera ez dela zeinek irabazten duen, zeinek galtzen duen baizik. Euskal Herriak eta demokraziak galtzen dute. Baina ez bakarrik Alderdien Legearekin, lege honen aurrean hainbat alderdik hartzen duten jarrerarekin baizik. Galdetu, bestela, Aretxabaletan herriak aukeratu ez duen alkatea izanda zeinek irabazten duen eta zeinek galdu.

Garbi dago askatasunean eta benetako demokrazian sinisten dutenek galtzen dutela, eta alderdiek egoera honen aurrean hartzen duten jarrera lotsagarria da. Horiek baitira "zeinek irabazten duen" horretan pentsatzen jartzen direnak.

Euskal Herriko gatazka konpontzea gero eta zailagoa dela ematen du. Non dago irtenbidea? Zein da gako?

Irtenbidea marko demokratikoan dago. Euskal Herriari bere etorkizuna libreki erabakitzeak aukera emango dion markoan eta marko horretara iristeko bidea sektore independentisten eta progresisten indarrak batzean. Horixe da esku artean daukagun erronka martxoaren 1ari begira eta baita egun horretatik aurrera ere.

IÑAKI ARRIOLA > GIPUZKOAKO PSE-EE-KO ZERRENDABURUA

"Herri eta kudeaketa ereduak daude jokoan martxoaren 1ean"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Iñaki Arriola PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburua da. Eibarko alkate izan aurretik, legebiltzarkide izan zen Gasteizen. Iaz Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi izendatu zuten. Orain, Legebiltzarre-ara bueltatuko da.

Zer dago jokoan martxoaren 1eko hauteskundeetan?

Herri eta kudeaketa ereduak. Azken urteotan, norgehiagokan, zatiketan eta ideia nazionalisten inposaketan oinarritu den eredu egon da indarrean. Horren aurrean beste eredu bat dago, errealitatea islatzen duena. Askotariko gizartean bizi gara, ideia eta irizki askoko jendea duena. Batzen gaituen guneak behar ditugu.

Horretan datza PSE-EEk proposatzen duen aldaketa?

Bai. Norghegiagoketa eta zatiketa gaintzean eta akordioa bilatzean datza. Guztiok elkarrekin bizi gaiten ahalbidetatean eta herriak dituen arazoei aurre egi-

tean datza. Horren harira, hezkuntza eta osasun zerbitzuetako arazoak konpontzeaz gain, bereziki, egoera ekonomikoari aurre egingo dion ituna bultzatuko dugu.

Garaipena eskura duzue?

Hauteskundeak inoiz ez dira izan horren lehiatuak. Benetako aukerak daude martxoaren 1ean herritarrek aldatzeko aldea bozka dezaten.

Diozue guztiekin negoziatzeko prest zaudetela, baina zein da

"Bere obsesioa gordeta badu ere, irteten bada laugarren planari ekingo dio berriz Ibarretzek"

"Debagoienan garraio publikoa, geltoki intermodala eta tranbia bultzatu nahi ditugu"

PSE-EEren lehentasuna gobernu osatzerakoan?

Herritarrei eskatzen dieguna da sostengu nahiko eman diezagutela datorren gobernu buru izateko. Jakinda gobernu horretan inork ez duela gehiengorik edukiko, gobernu horren lidergoa izateko indar nahikoa lortu nahi dugu. Garrantzitsua ez da norekin gobernatzen dugun; inportanteena da helburuak ondo zehaztuta edukitzea eta horiek aurrera ateratu ahal izateko indar nahikoa biltzea. Beraz, guk guzti-ekin egingo dugu berba.

Eta negoziatzeko orduan?

Gehiengoak egon daitezkeen akordioak bilatuko ditugu. Patxi Lopezek, hala ere, argi utzi du ez duela zatiketa bultzatzen duen gobernurik nahi. Askotariko ideien arteko gobernu osatu nahiko luke.

Juan Jose Ibarretzek dio zuek proposatzen duzun aldaketa karramarroarena dela; hau

da, atzera egiteko dela. Zer diozu horren gainean?

Ibarretzek hamar urte eman ditu subiranotasun atxikimenduak babesten, hainbat planen bidez. Ez da ekonomiaz arduratu. Horrekin herria ia porrot egitera eraman du. Orain, bere obsesioa gordeta badu ere, lehendakari izaten jarraitzen badu laugarren plan batekin ahaleginduko da berriro.

Ezker abertzalea hauteskunde- etara aurkeztu ezin izanak zeini egingo dio mesede?

Demokraziari. Guztiok arau berekin jokatu behar dugu. Hauteskundeetara aurkeztu ezin den ezker abertzalearen zatiak argi eduki behar du sistema demokratikoan jokatu ahal izateko bide bakezalea aukeratu behar duela; indarkeriarekin lotura izan barik. Niri, hauteskundeetan egoeta gustatuko litzaidake. Horrek erakutsiko luke ETA desagertu dela edo ezker abertzaleko zati batek ETArekin duen lotura amaitutzat eman duela.

Ze asmo ditu PSE-EEk Debagoienerako?

Orain arte egon diren hainbat aurrerapauso PSE-EEk proposatutakoak izan dira, hala nola ospitalea eta Epeleko araztegia. Garraio publikoari dagokionez, oraingoa hobetzeaz eta Arrasaten geltoki intermodala egiteaz gain, tranbia bultzatu nahi dugu. Baina ekonomiari eta enpleguari lehentasuna emango diogu.



Iñaki Arriola

Abokatua
49 urte • Eibar

BERBA BITAN

"Lehentasuna da enplegua mantentzea"

"Patxi Lopezek lehentasuna da enplegua mantentzea. Lehendakari izatera heltzen bada, bilioi erdi pasatxo euro bideratuko ditu neurri ekonomikoak aurrera ateratzeko. Gainera, sindikatuekin eta enpresari- ordezkariekin akordioa lortzen saiatuko da".



Jesus Mari Larrazabal

EHuko Logika katedraduna
61 urte • Zumaiá

BERBA BITAN

"Krisiari aurre egitea da gure lehentasuna"

"Gure kanpainako lehentasun handiena da krisiari aurre egitea, eta horretarako etengabe proposatuko ditugu neurriak: fiskalak, politikoak, sektorialak... Debagoienean industriak garrantzi handia du, eta horregatik Garaia Berrikuntza Gunearen alde egin behar dugu".

JESUS MARI LARRAZABAL > EA

"EAn zentzuz jokatu behar dugu, orain krisiak du lehentasuna"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jesus Mari Larrazabalek Laia alderdiko kide izan zenetik bigarren mailan jarraitu izan du politika, orain arte. Filosofia eta Hezkuntza Zientziako Fakultatean Logika Unibertsitateko katedraduna da, eta berba egiten duenean igartzen zaio hori. Hauteskunde hauetan legebiltzarkide izateko EAko Gipuzkoako zerrendaburua da.

Euskal Herria eraikitzeke beste modu bat dagoela da zuen leloa. Zer esan gura du horrek?

Ezin dugula orain arte moduan jarraitu. Ahalegin politikoak egin dira kontsulta legearekin eta estatutu politiko berriarekin, eta emaitzak ez dira esperotakoak izan. Bide berri bati ekin behar diogu, eta bide hori da subiranotasunaren aldeko indarrak batzea.

Abiadura Handiko Trenaren gainean iritzi kontrajarriak daude. Zuek argi esan duzue zein den zuen iritzia.

Bai, hala da. Guk argi esan dugu Abiadura Handiko Trenaren alde gaudela; eta garbi diogu hori kritiken eta mehatxuen aurrean. Kritiken eta mehatxuen artean, baina, bereizketa egin behar da. Kritikak gizarte eragileek egiten dituzte, eskubide osoz, eta mehatxuak ETak egiten ditu.

AHTren alde gaude 2005ean Bruselan hartu zuten erabakia-rengatik. Europako nazioarteko azpiegituren barruan erabaki zuten Paris eta Hendaia hiru zenbakidun tren sarearekin lotzea,

"Bide berri bati ekin behar diogu, subiranotasunaren aldeko indarrak batuz"

"EA bere kontutik joatea normaltasun osoz hartu behar da; alderdi honek badu mezu propioa"

eta zortzi zenbakiarekin Hendaia eta Madril. Guk argi dauka tren hori hemendik pasatzea ona dela, eta Y-a egin zen Bilbo alde batera ez uzteko, Bilbo gure hiriburu ekonomikoa delako.

Independentzia aldarrikatzen duzue, European estatu txikiak duten lekua nabarmenduz.

Aldarrikapen hori ez da oraingoa, aurreko hauteskundeetan ere egin genuen, eta egiten jarraituko dugu. Gure estatua gura dugu besteen pare egoteko; izan ere, orain gure interesak zatikata daude, zati bat Frantzia dagoelako, eta bestea Espainian.

Baina hori ez da gure kanpainaren ardatza, zentzuz jokatu behar dugulako, eta orain krisiari aurre egiteak erabateko lehentasuna duelako.

Hezkuntza Legea *standby* egoeran geratu da eta zuek hor indar handia jarri duzue.

Hezkuntza Legean hizkuntza ereduak du guretako garrantzia,

eta demagogia handiarekin erabili den gaia da hori. Oraindik zutik daude A, B eta D ereduak, eta ez Eusko Alkartasunak hala nahi izan duelako. Hori gertatu da hiruko gobernuko beste bi indarrek, eta batez ere EAJk, azken unera arte ez dutelako ezer egin. EAJk gura izan balu, datoren urterako A, B eta D ereduak ezabatuta egongo lirarteke.

Osakidetza galdu duen ospea berreskuratu egin behar duela diozue.

Osakidetza azken urteotan esfortzu izugarria egin du, baina badirudi beherapenetan dagoela-edo. Espezialistekin arazoak ditugu, ez daude medikuak, ez daude erizainak... Eta zer egin horren aurrean? Bada, gure medikuntzako fakultateko atea gehiago zabaltzea beharko ditugu, eta ikasleei bertara sartzeko 8,4ko nota eskatu beharrean jaitsi dezagun nota hori 7,8ra. Izan ere, soluzioa ez da pediatrik latinoamerikatik ekartzea.

Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan EAJrekin joan zineten. Zergatik ez orain?

EA bere kontutik joatea normaltasun osoz hartu behar da, eta erakutsiko dugu gure alderdiak baduela mezu propioa. EAJri dagokionez, bistan dago Ibarretxe ez duela agintzen, Sabin Etxean daudenek agintzen dute, Urkulluk, Ortuzarrek eta Jose Luis Bilbaok. EAJ horretan ez dezatela gurekin kontatu.

ITZIAR LAMARAIN > PP

"Askatasunaren alde egitea eta ekonomia dira gure ardatzak"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Itziar Lamarainek sei urte daramatza Arrasateko zinegotzi. Hauteskunde kanpaina bide onetik doala azpimarratu du, nahiz eta Lamarainen ustez kanpaina honek mami gutxi duen: "Basagoitik bakarrik egin dituelako proposamen zehatzak, hauteskunde kanpainatik haratago doazenak".

Zer eskaintzen du Alderdi Popularrak?

Hasteko, gure lelo nagusia askatasunaren alde borroka egitea da. Eta horrekin batera, ekonomia da gure lehentasuna. Ezin dena egin da, Zapaterok eta Ibarretxek egin duten moduan, krisiaren aurrean begiak estali. Errenten kontura bizi izaten egon dira biak, eta hori ezin da onartu. Eta hala gaude, langabezia datu beldurgarriekin, baita Arrasaten ere.

Horri aurre egiteko enpresa txikiei lagundu behar diegu, eta ez banketxe handiei. Enpreseki zergak gutxitu behar dizkiegu;

noski, ondo kontrolatuta. Izan ere, lanpostuak sortzea da krisiari aurre egiteko irtenbidea.

Basagoitik Lopez desafiatu du notarioaren aurrean sinatzeko EAJrekin ez duela bat egingo.

Ea egiten duen, ea hori egiteko gauza den. Basagoiti oso garbi dabil berba egiten, oso garbi esan du zer egingo duen, eta beste batzuek ez dituzte gauzak horren garbi utzi. Ibarretxek ez du aurreratu gura norekin egin-

"Madrilen gertatzen ari dena 'Gartzonada' hutsa da, lotsagarri egiten du PSOEren alde"

"Osakidetza kudeaketa ona behar du, eta politika kontuetan nahasmen gutxiago"

go dituen hitzarmenak, eta Patxi Lopezek beste horrenbeste. Gehiengo lortzen ez badute elkarrekin egingo dituzte hitzarmenak, eta kromo banaketak.

PP alderdiak Madrilen dituen gorabeherek eragina izango dute hauteskundeetan?

Mesede ez du egingo, baina Madrilen gertatzen ari direnak, nire ustez, *Garzonadak* dira, eta horrela esan behar dut. Epaile horrek PSOEren alde hartzen dituen erabakiak lotsagarriak dira, baina beti esan dut justiziak hartzen dituen erabakiak errespetatu egin beharko ditugula, eta hala egingo dut. Hori bai, nire alderdiko norbait lapurretan badabil zigortua izan dadila, baina frogatuta.

Itziar, zuk Euskara 21 egitasmoan hartu duzu esku, eta bestalde, Basagoitik dio euskara ez dela traba izan behar lanpostu bat lortzeko. Hor ez dago kontraesana?



Itziar Lamarain

Arrasateko zinegotzia
63 urte • Arrasate

BERBA BITAN

"Komunikabide modernoaren alde"

"Alderdi Popularrean argi dugu komunikabide modernoaren alde egin behar dugula: autobideak, tren azkarrak... Hori bai, horrelako obra handietan beti defendatu izan dugu ingurumena kontuan izan behar dela, besteak beste, Suitzan egin duten moduan".

Ez dago kontraesanik, ez. Basagoiti ez dago euskararen alde hartu diren erabakien kontra; alderantziz, alde dago, eta horregatik izan nintzen ni batzar horietan, nire alderdia ordezkatzen nuelako. Beste gauza bat da hizkuntza politika zelan egin gura den; izan ere, batzar horietan hartu ziren akordioetan argi esan zen inposaketa barik egin behar dela aurrera, ondokoa kontentzitatea. Baina argi izan nik euskara defendatuko dudala, nire hizkuntza delako.

Egin duzuen proposamenetako bat da Osakidetza 5.000 lanpostu sortzea.

Izan ere, ezin dugu orain arte moduan jarraitu, Osakidetza erreferente izatetik atzeko postuetara salto egin duelako. Osakidetza kudeaketa ona behar du, eta politika kontuetan nahasmen gutxiago.

Garzonek legez kanpo utzi ditu D3M eta Askatasuna. Gizartearen zati handi batek ezingo du hauteskundeetan esku hartu.

Erabaki judiziala izan da hori, eta nik errespetatu egiten dut. Nik beti esan dut alderdi horiek ETAren itzalpean daudela frogatzen den bakoitzean horiek ez dutela zereginik. Behin eta berriro adierazi dut ETA desagertu egin behar dela, eta gero mahaiaren bueltan esertzeko aukera egongo dela, gura den gaiaren gainean berba egiteko: independentzia... edozein gai.



Aintzane Ezenarro
Kazetaria eta soziologoa
37 urte • Getaria

BERBA BITAN

AINTZANE EZENARRO > ARALAR

"Eguneroko arazoei erantzun nahi dien ezkerreko alderdia gara"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Aintzane Ezenarro Aralarren aurpegia da Gasteizko Parlamentuan; izan ere, hura da Aralarrek duen legebiltzarkide bakarra. Getariarra da Ezenarro; eta, gainera, Getaria-ko zinegotzia azkeneko urteetan.

Zer eskaintzen dio Aralarrek, legebiltzarkide bakarra izan duen alderdiak, herritarrei?

Legebiltzarkide bakarra izan dugun alderdia izan arren, hazten ari garen alderdia gara. Uste dut hori ere herritarrek badakitela. Herriz herri gero eta talde gehiago ditugu, azken batean zapi urteko proiektua da-eta.

Aralarrek eskaintzen duena da ezker abertzale politikoa erakitzeko zutabeak. Bide politikoa soiletik lan egin nahi duen alderdia gara, eta, gainera, eguneroko arazoei erantzun nahi dien ezkerreko alderdia.

Iruditzen zaigu hauteskunde hauetan inoiz baino gehiago dagoela jokoan: batetik, gehiengo abertzalea duen Eusko Legebiltzarra

mantentzea. Baina, bestalde, beharrezkoa ikusten dugu, bereziki oraingo krisi garaian, ezkerreko alderdiek pisu sendoa izatea hurrengo Gobernuan eragiteko eta ezkerreko begirako erabakiak hartzeko.

Zein izango da Aralarren lekua eta egitekoa?

Datorren Legebiltzarrean inoiz baino panorama politikoa irekiagoa izango dugu. Inork ez du gehiengo absoluturik izango eta guztiak izango gara beharrez-

"Bide politikotatik soilik lan egin gura duen ezkerreko alderdia gara"

"Aralarrek giltza izan du lau urte hauetan; eta datozen urteetan are gehiago izango du"

koak, ez bakarrik akordioak bilatu behar direlako Gobernuaren eratzeko orduan, baita datozen lau urteotan proiektu estrategikoak aurrera ateratzeko ere.

Proiektu horietan izan dezagun ezkerreko pisua, izan dezagun ikuspegi abertzaletik pisua Gobernuan eragiteko. Ikusi dugu lau urte hauetan Gobernuan sartu gabe, Parlamentu ireki batean, Parlamentuak erabakitzen duela legeak egitea guztion arteko akordioa izanez gero.

Krisi garai honetan, diozue langileak direla gehien sufritzen dutenak, baina enpresariak ere kexu dira.

Bai, hemen krisia guztiok ari gara pairatzen. Bai enpresariak, bai langileak... Espainiako Gobernuak finantza entitateei erreskate plana ezarri die; eta gu kritikoak gara, gure ustez baldintza barik egin dutelako. Europako beste herri batzuetan, dirua jartzen den heinean akziodun moduan sartu da Gobernuak.

Eusko Jaurlaritzak ere plan baten berri eman du: kredituak lortzeko arazoak dituzten enpresei zuzendutakoa, dirua interes txikiagoarekin emango zaiena. Guk faltan sumatzen duguna da erreskate sozialerako plana. Guri ondo iruditzen zaigu enpresei diru likidezia ematea, beharrezkoa delako; azken finean, enpresek irauten duten bitartean langileak babesten dira eta lanpostuei eusten zaie. Baina beharrezkoa ikusten dugu gizarteari eta langileei bideratutako plana; eta hor neurri zehatzak eskatzen ditugu. Guk nahi duguna da Eusko Legebiltzarrean langileen ahotsa izatea.

Eraginkorra izango da Aralar?

Eraginkorra izan da lau urte hauetan; hainbat kasutan, Aralarrek giltza izan du. Hau da, kasu batzuetan oposizioarekin 34.a ginen eta beste kasu batzuetan hirukoarekin 33.a. Hala, zenbait ekimenetan kontra egiteko giltza izan gara; eta are gehiago izango gara giltza datorren Legebiltzarrean.

AHTren aurka agertu zarete. Debagoienetik pasako da; zela ikusten duzue proiektua?

Orain dela 20 urteko proiektu bat da, Bilbora begira egindakoa. Inolako parte hartze sozial barik egindakoa da. Badirudi egin egingo dela; hortaz, gutxienez eskatu behar da herriekin zuzenean harremanetan jartzea.

MIKEL ARANA > EZKER BATUA-BERDEAK

"Hiritar partaidetzaren aldeko legea bultzatzea da gure asmoa"

A.E. > BERGARA

Mikel Arana Ezker Batuko bozemailea da, eta Gipuzkoako zerrendaburua. Aurten, Antton Karrera ordezkaturko du; eta, lehen aldiz, legebiltzarkide izan daiteke. Ordiziarra da jaiotzez Arana. Zuzenbidea ikasi zuen Deustuan.

Soilik ezkerreko egitea proposatzen duzue.

Herri honetan beti egin izan dugun hausnarketa da hori. Nazionalismo-espainolismo dikotomia horretan, askotan beste gauzei buruz hitz egiteko aukerarik ez dugu izaten. Hortaz, errespetu guztiarekin, guk egin gura duguna da gai ekonomikoa lehen mailan jarri.

Eskubide sozialek pisu berezia izango dute zuen kanpainan. Zein ikusten duzue egoera eskasenean?

Guk uste dugu okerren dau dela bizitza hasierakoak eta bizitza akaberakoak. Uste dut guraso diren guztiak jakingo dutela

ze egoeratan dauden 0-3 urte arteko eskolak. Horiek publiko izateko zailtasunak daude eta askotan pribatuetara jo behar izaten dute; eta gauza bera zahartzarotan. Erresidentzia falta izugarria dago. Erdibidean, aldiz, menpekoen egoerak bereziki larritzen gaitu. Badakigu orain dela urte pare bat mendekotasun legea onartu zela Kongresuan; baina lehen diru gutxi zegoen eta orain krisiarekin are eta gutxiago dago. Lege hori garatu egin behar da; horregatik, guk Etxebizitza eta

"Zerbitzu sozialen legea bultzatu dugu, eskubide objektiboak izan daitezten"

"Debagoienari begira tranbia bi urte barru eginda egotea proposatzen dugu"

Gizarte Gaien Saitetik zerbitzu sozialen legea bultzatu dugu, zerbitzu sozialak eskubide objektiboak izateko. Hain zuzen, guztiok izan dezagun eskubide horiek izan eta garatzeko aukera.

Ekonomia krisia dela-eta, diozue: EB bai, ERE ez.

Ulertzen dugu bi aukera dau dela: orain arteko eredu neokapitalistarekin jarraitu eta beraz bultzatu –hori da egiten ari direna Madrilen eta Eusko Jaurlaritzan bankuei dirua ematean–; edo beste aukera bat eredu produktiboa bultzatzea da; haurtzaindegia egin, erresidentziak egin... Gainera, modu horretan lanpostuak sortzen dira. Hori ez da posible politika kapitalaren mende utziz. Politikak kapitala menderatu behar du.

Zenbat legebiltzarkide lortu gura duzue? Eta uste duzue izango duela emaitza eraginik alderdi barruko korrante kritikoak?



Ezker Batua
Berdeak

Mikel Arana
Abokatu
36 urte • Ordizia

BERBA BITAN

"Ezkerreko bira eman diogu Jaurlaritzari"

"Eusko Jaurlaritzari ezkerreko bira eman diogu. Gu gobernuan izateak ez du EAJ aldatu, baina programa sendoarekin politikak aurrera eramateko gai izan gara. EAJK politika kapitalistak bakarrik egiten ditu, horregatik gaude gu hor, ezkerreko politikak egiteko".

Orain ditugunak baino gehiago; ideia horrekin joan behar dugu, eta uste dugu aukera hori badugula. Bestalde, ezkerreko alderdiek beti izan dute barruan eztabaida bizi-bizirik. Batzuetan eztabaidak egiten dira etxe barenari begira, bestetan komunikabideei begira... baina guk uste dugu harro egotekoa dela. Gure alderdia alderdi bizia da, ikuspuntu ezberdinak daude. Alderdi barruan batzuek %80 atera dute eta besteek %20. Gehiengo kontua da. Hortik aurrera egin daitekeen eztabaida ongi etorria izango da.

Zer eskaintzen die Ezker Batuek hautesleei?

Kudeatzeko gaitasuna begibistan geratu da eta, aldi berean, beste eredu ekonomiko bat. Baita erabakitze eskubidearen aldeko apustua ere. Baina ez bakarrik estatu ereduaren inguruan erabakitze eskubidearen alde, baita egunerokotasuneko gaietan erabakitze eskubidearen alde. Gure proposamena da hurrengo Legebiltzarrean lege bat onartzea hiritar partaidetzaren aldekoa. Pentsatu, bakarrik AHTren inguruan, mereziko luke horrelako galdeketa bat.

Debagoienara begira ze proposamen?

Tranbia bi urte barru egin da egotea, adibidez. Ikusten dugu errepideak zela dauden; zamak eta pertsonak atera egin behar dira eta garraio publikoa ezarri.



Carlos Garaikoetxea, omenaldia jaso zuten alkate eta zinegotzi ohiekin T. MADINA

EA > ARRASATEN

Alderdi batzuen jarrera iruzurtia salatu du EAK

M.B. > ARRASATE

Debagoienean EAK izandako alkate eta zinegotziak omendu zituzten astelehenean. Guztira, 81 lagun. Omenaldian egon ziren EAKo Unai Ziarreta eta Carlos Garaikoetxea, besteak beste. Ziarretak esan zuen EAK

beti "bultzatu" duela politikaren birsorkuntza etikoa. Bestalde, azken hilabeteotan alderdi batzuek izandako jarrera "iruzurtia" salatu zuen Garaikoetxeak. "PSE-EE eta EAJ bipolarizazioa lortzeko saiakeran dabilta", esan zuen Kulturaten.

EAJ > BERGARAN

"Ibarretxe da Euskal Herria errespetatzeko bermea"

Joseba Egibarrek, EAJko Gipuzkoako zerrendaburuak, ekitaldi politikoa egin zuen astelehenean Bergarako San Martin plazan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

EAJko Gipuzkoako zerrendaburu Joseba Egibarrek ekitaldi politikoa egin zuen astelehenean Bergaran. Juan Jose Ibarretxeren aldeko botoa eskatu zuen. "Ibarretxe da Euskal Herria errespetatzeko dugun bermea. Era berean, ekonomia eta politika arloetan orain arte lortu duguna mantentzen lagunduko digu Ibarretxek", esan zuen. Gainera, gehitu zuen Ibarretxek "aurrera, elkartasun eta konpromisoaren ezaugarriak" dituela.

PSE-EE-REN AURKA

Era berean, Sozialistek aldarrikatzen duten aldaketaren gaine-

an egin zuen berba. "Ibarretxe aroarekin bukatu gura dute Euskal Herria kontrolatzeko. Euskal herritarrok hartutako erabakiak balio barik utzi gura dituzte; besteak beste, Alderdien Legea inposatuz. Horren arabera, euskal herritar guztiak ez dute ordezkaririk Legebiltzarrean". Azpimarratu zuen gai batzuetarako Popularraren laguntza dutela: "Estatuko gainerako tokietan ikamikak dituzte, baina, Euskal Herriari dagokionez, eskutik helduta doaz gehienetan".

"EZ DUTE ESTATUTUA BETE"

PSE-EE gezurretan dabilela gogorazi zuen: "30 urte bete dira Gernikako Estatutua onartu zutenetik, eta Sozialistek ez dute orduan erabakitakoa bete. Orain, sinestara gura digute aldaketak egingo dituztela. Sozialistek ez dute agindutakoa betetzen".



Joseba Egibar Bergaran.

EAJ



MIREIA BIKUÑA

"Gure botoak urrezkoak izango dira", dio ezker abertzaleak

Bergarako ezker abertzaleak agerraldia egin zuen martitzenean. Bergarako alkate Agurne Barrusok esan zuen gaur egungo egoera politikoak antzekotasun asko dituela orain dela 30 urtekoarekin, eta ezker abertzalea dela aldaketa ekarriko duena:

"Gure botoak urrezkoak izango dira martxoaren 1ean. Balio handien izango dutenak eta lehenengo zenbatuko dituztenak. Aldaketarako aukera bakarra dela uste dugu, benetako demokrazia ekarriko duten botoak".

PSE-EE > ARROSAK BANATU DITUZTE

Sozialistek diote guztiakin berba egiteko prest daudela

Patxi Lopezek ekitaldi politikoa egin zuen eguaztenean Besaide mendian



Arriola eta Gartzia, Bergaran. M. BITERI

M.B. > BERGARA

Alderdi Sozialistako hainbat ordezkari arrosak banatu dituzte asteon, Bergaran eta Aretxabaletan. Aretxabaletako ekitaldian Blanca Roncalek esan zuen Estatutua eguneratzeko "asmoa" dutela, eta gainerako alderdiekin berba egiteko prest daudela.

Bestalde, Patxi Lopez Besaiden egon zen eguaztenean, eta esan zuen bere politikak "hemendik egingo duela, ez Madrildik".



MIRARI ALTUBE

"Legebiltzarrean eragiteko, Aralar bozkatu"

Aralarko ordezkariak Aretxabaletan egon ziren eguaztenean. Legebiltzarrera osatzeko giltza izango direla aldarrikatu zuten: "Parekotasunean inoiz baino aukera gehiago izango ditugu ezkerreko eta abertzale garenok. Legebiltzarrean eragin gura duenak Aralar bozka dezala".



PODOLOGIA

- KIROPODIAK
- PAPILOMAK
- ONDDOAK
- SILIKONA ORTESIKOAK
- ETXERAKO ZERBITZUA

Itziar Juan Llodio

Belorrieta 6-7
Tel.: 695 76 41 79
ARETXABALETA

> EZKER BATUA

Debagoieneko tranbia 2011. urterako bukatuta egoteko proiektuan lan egingo du Ezker Batuak

Ezker Batua-Berdeak taldeko Gipuzkoako zerrendaburu Mikel Aranek informazioa banatu zuen astelehenean Arrasateko Fagor enpresaren aurrean. Harekin egon zen EBko koordinatzaile Antton Karrera. Ibarreko garraio publikoaren gabeziak azaldu zituen, eta tranbia martxan jartzeko lan egingo dutela azpimarratu zuen: "Ibarrean 45.000 bizilagun daude, eta garraio publiko eskasa dute. Eskoriatzatik Bergarara doan tranbia 2011. urterako buka dezaten lan egingo dugu". Gaineratu zuen errepideetan dagoen zirkulazioa arintzeko garraio publikoaren aldeko apustua egingo dutela: "Trenbide sarea hobetzea eta garraio publikoaren erabilteagatik beharpenak egitea exijituko ditugu".

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Klima aldatzen dabil; aldiz, gure ohiturak...

Ezohiko estanpak jaso ditugu azken egunetan, Oñatin, Errekalde Herri Eskolak antolatutako Mugikortasun Astearen barruan: neska-mutikoez elkarrekin egin dute eskolarako bidea, oinez, gurasoekin autoan ateraino joan beharrean; eta domekan, haur eta nagusiek bizikleta hartu zuten. Natur Eskolaren eskutik, Ingurumen Astea ere ospatu dute... Halakoak, zoritxarrez, noizbehinkako kontuak baino ez dira, ordea. Eta zer da, bada, egunerokoa? Errepedetik pasatzen diren milaka ibilgailuak: 13.400, Arrasateko saihesbidetik; 15.000, Bergara hegotik; 10.000, Arlabandik... Debagoienean, tamalez, ez da alternatiba askorik geratzen; tranbiaren zain gaudede aspaldian, baina ez dakigu noiz iritsiko den. Asteon, Mikel Arana Ezker Batuko Gipuzkoako zerrendaburuak esan digu pare bat urte barrurako izango dugula, baina... hauteskunde kanpaina gaude eta, auskalo! Kanpaina egon barik ere makina bat gezur esaten digute batzuek eta besteek: Frantziak eta Erresuma Batuak, esaterako, ezkutatu egin dute otsailaren hasieran izandako bi urpekari nuklearen arteko talka. Eta horrelakoak gertatzen diren bitartean, bat ez da harrizten irakurtzen duenean Antartikatik 14.000 kilometro koadroko -EAE adina bi- izotz zati bat askatu dela, berotegi efektuaren eraginez. Klima aldaketaren ondorioak gure kontzientziazioaren aurretik doaz.

"Bi urte barrurako izango dugula tranbia? Kanpaina gaude eta, auskalo!"

> **'Lanbus'** aurkeztuko dute gaur Oñatin: hain zuzen, egunero, langileak enpresen atariraino eramango dituen autobus zerbitzua. Herriko beharginak lantokietara modu iraunkorragoan joatea lortu gura dute bultzatzaileek. Ez dago gaizki pentsatuta.

> **Aratusteetan** murgilduta gaude atzoko egunaz geroztik, eta Debagoieneko ia herri guztietan antolatu dituzte ekitaldiak; goza ditzazue. Hauteskunde kanpaina ere bete-betean sartuta gaude, baina hori gogoratu beharrik ez dago, ezta?

EUSKARA > DIRULAGUNTZAK

Topaguneak Kultur Errotari eutsiko dio

Diputazioak dirulaguntza kentzea salatu du Euskara Elkarteen Federazioak; sarean kanpaina abiarazi du Topaguneak

EDU MENDIBIL > BERGARA
Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi berri du Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa eta hark antolatzen duen Kultur Errota kultura zirkuitua diruz laguntzeko hitzarmena. Jasone Mendizabal arrasatearra da Topaguneako zuzendaria.

Haren arabera, azken hiru urteetan 49.000 euro jaso dituzte urtero Diputazioarengandik, 23.000 euro Kultur Errotarako eta 26.000 euro elkarteen sustapenerako. "Dirulaguntza kentzeko erabakia politikoa izan da, nahiz eta hasieran krisia zela jakinarazi ziguten. Kultur Errotaren eredu parte-hartzailea zalantzan jartzea dago erabakiaren atzean", adierazi zuen Mendizabalek martitzenean Donostian emandako prentsaurrekoan. "Etorikizunari begira beste irtenbiderik ere ez digute eman" gehitu zuen.

Diputazioaren dirulaguntzarik gabe, Topagunearen hainbat ekimen kolokan geratu dira eta Federazioak euskara elkartee-

kin egiten duen lana ere kaltetua izango da. Federazioaren sustapen lana beharrezkotzat jo dute euskara elkarteez, prestakuntza, aholkularitza eta bozeramaila lanak eskaintzen dizkietelako.

KANPAINA SAREAN

Badira hamaika urte Kultur Errota martxan jarri zela eta orduetik hona 1.700 emanalditik gora eskaini dituzte Euskal Herri osoan. Diputazioaren erabakia gizarteratzeko eta hori salatzen kanpaina abian jarri du Topaguneak sarean (www.topagunea.org). Bien bitartean, Kultur Errotari eutsiko diote, Gipuzkoako Diputazioaren laguntza barik bada ere.



Jasone Mendizabal eta Topaguneako ordezkariak, martitzenean Donostian.

TOPAGUNEA

ENPRESA > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Modulu fotovoltaikoa garatu du Ikerlan lantegiak

E.M. > BERGARA
Ikerlan-IK4 lantegiak plastikozko materialetan oinarritutako modulu fotovoltaikoa (eguzkitako panela) garatu du. Ikerlaneko iturrien arabera, Espainiako estatuan siliziorik ez duen lehen

modulu fotovoltaikoa da eta erabilgarria da bai aparailu elektronikoko eramangarrietan zein eraikin arkitektonikoetan. Esan bezala, koste baxuko plastikoez egindako modulu hauek malgutasun handia daukate eta eguz-

kitako energia fotovoltaikoaren aukerak zabaltzen ditu.

EGUZKITAKO PANELAK

Hain zuzen ere, panel hauen erabilpena gero eta ohikoagoa da etxebizitzetan eta, urtetik urtera eskaera handitzen doa, Ikerlaneko ordezkariak azpimarratzen dutenez. Udaletako eraikin berrietan, dekretu bitartez, eguzkitako panelen erabilpena arautu dute eta partikularren eskaera ere gero eta handiagoa da.

ELKARTASUNA > SAHARARAKO KARABANA

Saharara 10.494 kilo elikagai

Iesbaa, Nubi eta Bubisher elkarteez batutakoa atera da dagoeneko Sahararako kanpamentuetara

U. AGIRRE/E. MENDIBIL > BERGARA
Aurten 35 kamioi, autobus, furgoneta, zisterna eta bestelako ibilgailu atera dira Euskal Herriko Saharara, elikagai, higie-ne produktua, botika, arropa, eskola

material eta abarrek. Donostiatik Alacanteko porturaino joan dira, handik itsasontziz Oranera heltzeko, eta Orandik Tindouferaino errepidez joango dira sahararren kanpamentuetara.

BALORAZIO POSITIBOA

Debagoienean, esan bezala, 10.494 kilo batu dituzte. Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarteez elkarlanean *Piztu itxaropena* herri sahararren aldeko elikagai bilketa antolatu dute bosgarren urtez. Bi elkarteen artean Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin elikagai bilketa egin dute supermerkatuetan eta ikastetxeetan.

Bergaran ere balorazio positiboa egin du Bubisher elkartek. 4.536 kilo janari batu dituzte Antzuolan, Elgetan, Bergaran eta Soraluzean. Aurreko urteetan bezala, besteak beste, arroza, azukrea, pasta eta leka-leak jaso dituzte azken asteotan. Hogei bat lagunez osatutako taldea ibili da jasotako materiala sailkatzen eta kutxetan sartzeko. Hezkuntza bereziare-

kin lotutako proiekturako material ugari batu dute eta Bergarako Udalak 1.500 euro eman ditu. Sahararen aldeko taldeek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman duten guztiei.

Sahararako laguntza	
Arrasate	1.628 kilo
Bergara	3.508 kilo
Oñati	2.548 kilo
Aretxabaleta	1.202 kilo
Eskoriatza	580 kilo
Antzuola	678 kilo
Elgeta-Angiozar	100 kilo
Soraluze	250 kilo
GUZTIRA	10.494 kilo
ITURRIA: BUBISHER, IESBAA, NUBI.	

> ERREPIDEAK

AP-1 itxi egingo dute asteburuan, Bergara eta Arrasate artean

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, AP-1 autobidea itxi egingo dute Bergara eta Arrasate artean eta domekara arte, 17:00ak arte itxita izango da. Epeleko lotunearen eta eraikitze fasean dagoen Arrasate-Eskoriatza bide-zatiaren artean lotura lanak egiteko itxiko dute Bergara hegoaldea eta Arrasateren arteko tartea.

AP-1eko Arrasate-Eskoriatza zatia 2006an hasi ziren eraikitzen, 6,3 kilometro luze da, eta 100 milioi euro baino gehiagokoa da kostua. Foru Aldunditik jasotako informazioaren arabera, lan horiek amaitzean daude



zabalik

Joxe Ramon Elortza

Noiz arte?

Duela 45 urte inguru Opus erakundeari buruz apaiz bati honako entzun nion: "Horiek, Jaungoikoaren izenean, kristo oro izorratzen dute".

Espainiarrak ez dira batere aldatu. Amerikara joan eta Jaungoikoaren izenean ia indigena guztiekin amaitu zuten. Bost mende geroago, bere demokraziaren izenean, gure eskubideak zapaltzen dituzte, gure etorkizuna eta erabakitze eskubidea, besteak beste. Herriaren borondatea ezkutatzeko asmoz, berdina zaie herriko biztanleriaren %20ari bozkatzeko aukera kentzea, horretarako alderdi politikoak legez kanpo utziz. Berdin zaie NBEK esaten diena.

Demokrazia faltsua. Giza eskubideak errespetatzen ez dituen. Alderdi zapaltzaileak, PSOE eta PP. Hauteskunde manipulatuak: independentista asko eliminatu gero, Parlamentuko indarren korrelazioa zeharo aldatuko da espainiarren alde.

Noiz arte jasan behar dugu egoera hau? Ez naiz indarkeriaren aldekoa. Baina basakeria hauen aurrean galdera bat daukat nire buruan: behin eta berriz burua makurtuz, Garzonen aginduak betetzea segurtatuko duten ertzainak bidaliz, alderdiek indarririk gabe emandako erantzunez, planto gogor bat jarri gabe... behar bada gu beraien indarkeriari indarra ematen ari gatzazkio, kolaboratzen ariko gara. Bakezaletasuna bai, baina ez geldotasuna.

Bidegabekeria hauen aurrean erakusten ari garen erantzun eskasak ondorio gogorrek ekar ditzake gure herriarentzat: gazteak indarkeria mundura jotzea, herritarrek politikarienganako konfiantza galtzea, jendearen desengainua eta apatia... Arazo larri eta etsigarria litzateke hori, gizartearen haustura suposatuko luke. Bada ordua beste alderdi denak elkartu eta zerbait egiteko. Berandu izan baino lehen.

usteak uste

Arrixtu Barruso

GI-627an, zuloak han eta hemen

Errepidean gora eta behera ibiltzen garenok ondo ezagutzen ditugu, dagoeneko, GI-627 errepidearen sekretu guztiak; alegia, zulo eta petatxu guztiak. Horiek ekiditen nahikoa lan izaten dugu egunero-egunero. GI-627 errepidea luzea da eta gure ibarreko herri bat baino gehiago zeharkatzen du. Batzuetan leunagoa da eta beste batzuetan malkartsuagoa. Dena dela, Arrasaten, ospitalearen parera iristen denean errepidea baino *zulo-bidea* dirudi gehiago.

"Bada ordua beste alderdi denak elkartu eta zerbait egiteko"

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Ai ama! Alfonso Gabriel

Markos Zapiain

www.eibar.org/blogak/zapiain

Arantxa Iturbek *Ai ama!* liburuan gure tokian jarri gaitu emakumeekin guaiarena egiten ibiltzen garenok, esanez adibidez: "Hori zorte ona zuena, erditu ahal izatea, nik ere nahi nuke bizia eman, nire haragiaren haragia sortzeko misterioa erraietan sentitu!".

Utzi bakean, ihardetsi du Iturbek, utikan, gezurti. Erditza tortura hutsa da. Natura, sadikoa ez ezik, gaiztoa ere bada.

Gezur hutsa da naturak ama erditu berriari umearen ganako maitasun ezitia agintzen diola.

Nire lankide batek erditze arazoak nozitu zituen. Botika gogor batek amets goxoetara eramane zuen. Palmondo baten azpian zegoen, hamaka batean etzanda, itsasoa hurbil, zoriontsu. Umearen negarrek bortizki esnatu zuten. Emaginak izterren gainean zion ipinia. Haserre bizian, "daramatela

hemendik ziztuan!" garrasi egin zuen. Semeak mundualdi honetan entzundako lehenbiziko hitzak izan ziren, amaren lehenbiziko ele plazentak. Orain elkar maite dute, baina erditzeak sarriegi dakar oinaze ikaragarria. Batak ez du bestea kentzen. (...)

Gure lehenbiziko alabaren jaiotzaz oroitzen naiz. Uzkurdurak aurrera zihozten. Artean ez zen epiduralik. Arrate une batetik bestera hil zitekeela iruditzen zitzaidan. Beste galaxia batean zebilen eta sekulako deiadarrak botatzen zituen. "Bitartean heldu eskutik" eskatu zidan, berak behar zuelakoan, baina ziur aski ni kontsolatzearen, oso fina baita.

Emagina alboko gelan zegoen, telebista ikusten. Mexikoko sugetzar bat ematen zuten *Tele Bost*-en. Noizbehinka atea ireki, gu han oihuka eta izuturik ikusi eta "*vale, vale, joder, no exageres, qué pesada*" esan eta berriro kulebroia ikustera. Arrate erdi ito eta isilik gelditzen zenean, "*vaya sorpresa que seas mi hermano, Alfonso Gabriel, siempre creí que eras mi abuela*" eta horrelakoak entzuten genituen.

koplak

Xabier Igoa

Karnabalak ondo pasatu

Agur Santa Agedari ta kaixo Karnabalar! baina berdintsu jarraitu nahi dut nik hemen koplakantari!

Mozorrotzea erronka zer jantzi ez du inporta txokolatea, bero-beroa baitugu hotzaren kontra!

Derrigor mozorrotzea ta itxurak gordetzea nahiz ta batzuek berezko duten kareta bat izatea.

Aukera bat gozatzeko denok ondo pasatzeko eta txikitari izan nahi gendun heroi hura izateko.

Cawboy ta munstroak handik eta printzesak hemendik ta pailazoak ere ugari nahiz badauzkagun lehendik.

Polit-polit mozorratu, umeak lez disfrutatu, aprobetxatu jai giroa ta guztiok ondo pasatu!

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Oñel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziertza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzakoGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Facebook, Tuenti, eta Metroflog hitzak askotan entzun ditugu, baina askok ez dakite ze esanahi duten. Sare sozialak dira, eta, batez ere, nerabeek eta gazteek ezagutzen dituzten pertsonekin eta ezezagunekin hartu-emanak egiteko erabiltzen dituzte. Juan Arbuluk gurasoendako ikastaroa emango du Arizmendi ikastolan. Informazioa eta aholkuak emango ditu.

Juan Arbulu > Lanbide Heziketako irakaslea

"Kaleko sare sozialak dira inportanteak, birtualak bigarren mailakoak dira"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Juan Arbulu (Antzuola, 1947) biologoa da eta Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako irakasle. Informatika eta Komunikazio Teknologia (IKT) dinamizatzailea ere bada. Sare sozialen gaineko ikastaroren aurrerapena egin digu.

Zer dira sare sozialak?

Sare birtuala erabiliz pertsonen artean komunikatzeko beste bide batzuk dira. Aplikazio ezberdinak dira. Egunerokotasunean, besteak beste, lagunekin eta familiakoekin izaten ditugun elkarrizketak edo argazki trukaketak Internet bidez egiteko aukera ematen digute sare sozialek. Era berean, ezezagunekin hartu-emanak egiteko aukera ematen digute.

Adinaren arabera, sare sozial ezberdinak erabiltzen dituzte, ezta?


Nik esango nuke baietz. Adibidez, 9 eta 10 urteko neska-mutikoen Metroflog eta Fotolog erabiltzen dituzte. Bi horiekin argazkiak zintzilikatzeko aukera dute. Horretaz gain, argazkiaren gaineko testu laburra idatz dezakete. Aplikazio horiek oso erraz erabiltzen dituzte. Gainera, muga dute: egunero, gehienez argazki bat zintzilikatu dezakete.

11-12 urte ingurukoek Tuenti eta Facebook erabiltzen dituzte gehien. Aplikazio horiekin argazkiak zintzilikatzeaz gain, elkarren artean elkarrizketak egiteko eta taldeak sortzeko aukera dute. Aplikazio konplexuagoak dira.

Huhez in egin duten ikerketa baten arabera, ikasleen %100 erabiltzen dute sare soziala. Zuen ikasleek erabiltzen dituzte?

Bai. Ez dugu ikerketarik egin, baina informatika gelan egiten duten lehen gauza korreoa begiratzea da, eta ondoren Tuentin sartzen dira. Aplikazioak galdezen die: *Zertan ari zara?*, eta norberak gura duena idazten du. Testua sarean zintzilikatzen dute, eta webgune horretara konektatuta dauden erabiltzaileek jasoko dute testua. Ondoren, erabiltzaile horien bitartez beste taldeetako erabiltzaileengana helduko da. Testuak zabaldu egiten dira adar baten moduan, eta erabiltzaile askorengana helduko dira.

Nondik eta noiz sortu ziren sare sozialak?



Juan Arbulu Arizmendiko informatika gelan ikasle batekin.

MIREIA BIKUÑA

Ez dakit zehatz-mehatz noiz; baina erabilera asko handitu da azken bost urteotan.

Duela urte batzuk Internet bidezko korreoa erabiltzen hasi ginen, baina mugak ditu; besteak beste, oso motela da argazkiak eta bideoak bidaltzeko. Sare sozialek azkarragoak dira lagunekin hartu-emanak izateko; besteak beste, aste bukaerako planak egiteko edo zinemara joateko ordu batean geratzeko...

Sare sozialen bidez egiten dituzten hartu-emanak oso arinak eta motzak dira. Hau da, gai serioagoetarako korreoa erabiltzen dute.

Gurasoendako ikastaroa egingo duzue martxoan. Zergatik? Beharrezkoa ikusten zenuten?

Irakasleok guraso garen aldetik eskolan egindako hausnarketa baten ondorioa da ikastaroren. Pentsatu genuen guraso askok ez zutela jakingo ze egiten

ADINAREN ARABERA

"9 eta 10 urtekoek Metroflog eta Fotolog erabiltzen dituzte, eta 11-12 urtekoek Tuenti"

ONURAK

"Sare sozialak mesedegarriak eta onuragarriak dira, ondo erabilia"

DATU PERTSONALAK

"Sare sozialetan izena ematerakoan ahalik eta datu gutxien ematea komeni da"

duten seme-alabek ordenagailu aurrean. Tuenti hitza entzun eta gutxienez zer den jakitea komenigarria zela ikusi genuen. 100etik gora gurasok izena eman dutela ikusirik, konturatu gara gure hausnarketa zuzena izan dela.

Bestalde, komunikabideetan, askotan sare sozialak arriskuarrekin lotzen dituzte. Gure asmoa da arriskuen eta onuren berri ematea. Ez dugu psikosirik sortu gura gurasoen artean. Sei orduko ikastaroa egingo dugu eta aplikazioen gaineko informazioa emango diegu.

Zeintzuk dira sare sozialen onurak? Ze abantaila dituzte?

Ondo erabilia, onura asko dituzte; besteak beste, aspaldi ikusi ez dituzun pertsonekin topo egiteko aukera ematen dizu, eta galduta zenuen hartu-emanak berreskuratzeko. Gainera, sare sozialetan sortutako taldeak eza-

gutu eta eurek egindako ekarpenak erabiltzeko aukera ematen dute. Beste pertsona batzuek egindako ekarpenak aberasgarriak izan daitezke askorendako.

Orduan, zeintzuk dira alde txarrak?

Batez ere, sare sozialetan izena ematen dugunean, eskatzen dituzten datuekin kontu handiz ibili beharko dugu. Kontuan izan behar dugu sare sozialak ez direla guztiz pribatuak. Datuak aplikazioa sortu duenaren esku geratzen dira. Baina ez dakigu norzuk diren eta zertarako erabiltzaketan datu horiek. Gazteei aholkatuko nieke ahalik eta datu gutxien ematea. Sare sozialetan edonor ibil daiteke, tartean fede txarreko pertsonak.

Badago modurik fede txarreko pertsonekin hartu-emanik ez egiteko?

Hori kontrolatzea ezinezkoa da. Dena den, bi gauza argi utzi gura ditut: alde batetik, sare sozialek kontu handiz erabili behar direla; eta beste alde batetik, ez direla debekatu behar.

Noiz hasi behar dute gurasoek kezkatzen?

Nik hiru seme ditut, eta dagoeneko hasi dira sare sozialak erabiltzen. Ordenagailu aurrean behar baino denbora luzeagoa ematen dutela ikusten dudanean kezkatuko naiz; besteak beste, etxean geratzen badira edo lagunak alde batera uzten badituzte. Sare sozialek erabiltzea garrantzitsua eta mesedegarria da, adiskide berriak egiten dituzte-eta. Baina gure seme-alabendako sare sozial garrantzitsuenak kalekoa izan behar du; alegia, eskolako lagunekin eta etxekoekin egiten duten sare soziala. Internet bidez egiten dituzten adiskideak bigarren mailakoak direla azaldu behar zaie. Kaleko sare soziala alde batera uzten dutenean, larritzen hasteko ordua dela esango nuke.

Ordenagailu aurrean eta sare sozialetan ematen duten denbora kontrolatu behar dugu gurasook. Bestalde, gertutik zer diren ezagutzeko hoberena da naturaltasunez erabiltzen hastea. Gure seme-alaben ondoan egotea komenigarria da, baina gehienetan nahiko zaila da. Eurek sare sozialek erabiltzen dituzte lagun giroan ibiltzeko, eta gurasoei ez digute hor sartzen utziko. Baina aholkulari egiten behar dugu.

Demagogia gutxiago

Inaxio Garro
(Aretxabaleto alkatea)
Aretxabaleta

Mundu zabalean gertatuko den lez —zorionez, Aretxabaleta ez da horretan salbuespena—, alde batetik, herritar dinamikoak, aktiboak, itxaropenez beteak eta motibatuak daude gurean, eta, beste alde batetik, aukera dutenean ezertxo ere egiten ez dutenak eta ezertxo ere egiten ez dutenak, herritarren beharretara egokitzen diren azpiegiturak eta proiektuak bideratzeko trabak jarri, ahal dela. Gainera, beste behin agerian geratu den moduan, egin beharrekoak beren irizpideen arabera kudeatzen eta garatzen ez direnean, badira geurean atzera egiten dutenak, lamentaziotan hasiz eta ardurak hartzeari uko eginez, txori harrapakarien karranka ilunak botatzen hasiz.

EAK aspaldian hartu duen ibilbidea norabide horretan doa, noraezean bideratuta. Zoritxarrez aitortu beharra dago, EAK udal gobernu hautsi zuenetik, bere "buruzagi espiritual" baten inposizio, presio eta xantaia nabarmenari Aralarrek ezezko borobila eman izanaren eraginez, EAren helburu nagusia Aretxabaletoaren alde lanean diharduen taldearen izena zikindu eta kalumniatea da, beren karranka-hotsak gero eta nabarmenagoak izanik. EAren logikatik aztertuta, oposizioan dauden neurrian hori erakutsi nahi eta behar dute, oposizio eraikitzailea egiten ari den aitzakia sinesgaitza erakutsiz. Jarrera lotsagabe horrek, jakizue, ez du justifikatzen buruan dabilkion jokabide arduragabea, baztergarria eta makala.

Baina hauteskunde bezperatan egonik, zalaparta aterata atxabaltarrei ziria sartu nahi diete, diskurtso nahasgarri, filosofiko eta batere pragmatikoak ez direnak astinduz. Horren jarrera dinamiko erakutsi izan balute gaur arte, eta gutxienez beren sailetan inplikazio handiagoa erakutsi izan balute! EAren antzezpina mozorrota eta atxabaltarrak despistatzen ahalegintzeko, Basotxo Berrria edo eraberritua, Osasun Zentro berria edo umeen parkeak babesteko proiektuen bozeramaile eta defendatzaileak atera zaizkigu, gure Gobernu-Programan jasota eta adostuta ez balego moduan, proiektu horiek, beraz, EAren jabetzakoak bailiran.

Nor engainatu nahi duzue? Ez al dute gogoratuko atxabaltarrek aurreko agintaldian

EAK EAJ/PNV bakar-bakarrik utzi zuela koalizio moduko hartan eta oraingoan beste horrenbeste egin duela Aralarrekin? Nork luzatuko dio eskua hurrengoan Aretxabaleto EARI, behin eta berriz horren harrokeria eta jarrera erakutsita? Izan ere, zentzugarria, eta baita errespetu, ardura eta etika gabekoa ere bada EAK bere ardurakoak ziren sailtetako gastu korrontek kuestionatzea, orain arte Udaletxean egon izan ez balira moduan jokatzuz, eta duela bi hilabete arte ezelako gogoetarik egin ez dutenean.

Beraz, Udal gobernuaren zeudenean balekoa zen eszenatokiak zuzen-zuzenean kaudimen-gabezia faltsu batera (hortxe daude kontuak, kontrako frogatzeko) garamatza, atxabaltarren artean ustezko alarmak piztuz.

Bestetik, 1,5 milioi euroko murrizketak planteatzen dute, baina ez dute gehitzen atxabaltarrei eskaini nahi zaizkien zerbitzuen kalterako izango litzatekeela. Gainera, ez dute proposatzen zein partidatan eta zenbat murriztu beharko litzatekeen. Egiten duten ekarpen zehatz bakarra da kalitatezko eta ezinbesteko kirol-instalazio gisa onartutako proiektuaren beharra zalanztan jartzea, Kirol-Etxeak gaur arte izan dituen 2.000tik gorako abonatu atxabaltarrak ahaztuz. Bi alderdi politikoen arteko bilera batean garbi eta lotsarik gabe esan zutena aipatuz, "kirola egitera zoazten lau katu izanda...".

Beraz, Aralarrek mezua transmititu nahi dio Aretxabaleto EARI, umiltasun handiagoz joka dezala, eta bizitza modu positiboan ulertzeko terapia egin dezala, ahal den neurrian, baikortasunez, eta aurrera begira eraikitzaileagoak eta kolaboratzaileagoak izan daitezten.

'Abre los ojos'

Aritz Galarraga
Arrasate

Aurreko astean lanetik etxera iritsi eta ia beti bezala, postontzia zabaldu nuen bertan zeuden paper guztiak batzeko. Betikoa, publizitate piloa, bankuko paperak... (gora agenda 21 eta marketing "berdearen" izenean hartzen diren konpromisoak!). Baliteke errua nire (eta antzekoena) izatea; izan ere, paper horiek irakurtzen hasi nintzen.

Horien artean, *Abre los ojos* izenburua zeukan eskuorri bat. Bertako informazioa irakurtzen hasi eta propaganda politikoa zela berehala jabetu nintzen... Bizi guztia kanpai-

nan gauden arren, hauteskundeak datozenean intentsitatea handitzen da. Eta klaro, hauteskunde giroan, guztiak balio du eta politikoen benetako (edo gezurretako) jarrerak ikusi ditzakegu. Eskuorri batek bereziki harritu ninduen (gizajoa ni, oraindik ere harritu?); izan ere, bertan "Te discrimina por no saber euskara" irakur daiteke. Hori da PP alderdiak bozkak lortzeko darabilen iritzietarik bat, suposatzen dut etorkin askoren bozkak lortzeko nahian edo..., ze euskararen alde dagoen alderdi demokrata batean slogan hori irakurtzea ez nuke ulertuko.

Gaur, astebete beranduago, on-line dagoen hedabide baten kanpaina honen banner bat ikusi dut. Indarrez dabilta gero! Ez dut hedabideen jarraipen handirik egiten, baina denbora honetan ez dut kanpaina honi aurre egiten dion iritzirik entzun edo irakurri.

Euskarak alderdikarien gainetik beharko luke egon. Ondorioz, eragile ezberdinei zera esan nahi diet: *Abre los ojos*. Behatokia, euskara elkarte, alderdi politikoa (batez ere PSOE) eskatu nahi dizuet ekimen hau kondentatzea. PSOErena diot, ze aukera paregabea daukazue euskara gaietan PPrekiko alde egiteko.

Euskal preso politikoa hauteskudetara

Joxe Lazkano
(Bergarako euskal preso politikoen senideen izenean)
Bergara

Iazkoa ez da urte batere erraza izan euskal preso politikoztat, ezta euren lagun eta senideentzat. Izan ere, iazkoan, estatuek errekorra hautsi zuten. Marka triste da, frankismo garaitik sekula egon den preso politikoen kopururik altuenera ailegatu bakara. Urtea 764 euskal preso politikorekin itxi genuen. Euren ziegatan eta inolako eskubiderik gabe nahi dituzten 645 gizon eta 119 emakume.

89 espetxe ezberdinetan zeuden eta horietako 15 bakarrik ziren Euskal Herrian. 595 Espainiako Estatuan daude eta 154 Frantziako Estatuan. Sakabanaketa politikaren ankerkeria begi bistakoa da. Senide eta lagunok Espainiako Estatuan bisita batera joateko egin behar dugu eta Frantziarrean media 800 kilometroa ailegatzeko da.

Espetxe politikaren krudelkeriarekin gure senide eta

lagun presoekin amaitu nahi dute. Bizi baldintza oso gogorak inposatu diete 2008an, euren osasunari zuzenean kaltetzen diotenak. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 10 euskal preso politikoa espetxean daude eta beste hiru, etxean diren arren, espetxeratzetik arindu egoeran daude. Azken hauen eskubideak erabat murriztuta daude. Orduz finko bat inposatu diete, medikura joateko espetxeari baimena eskatu behar diote, derrigor euren etxetan lo egin behar dute, ezin dira euren herrietatik irten, sinatzera joan behar dute, telefono bidezko kontrola aplikatzen diete eta adierazpen publikoak egitea debekatuta dute. Eta baldintza horiek erakusten digute ez direla aske, inolaz ere.

Euskal preso politikoa suntsitze nahi horretan, Espainiako Estatuak abian jarri zuen beste tresna bat bizi osorako zigorraren aplikazioa da. 2008an, Espainiako Estatu Auzitegi Goreneko doktrina 14 presori aplikatu zieten eta guztira 28 dira bizi osorako zigorra aplikatu dieten presoak, 14 preso politiketatik bat, geure eskualdekoa delarik.

Guzti hau esanda eta hauteskundeak gainean ditugula, ondorengo hau adierazi nahi diegu gure euskal herri honetan abertzale sentitzen direla esaten duten partidu politikoei:

Euskal herriak iraungo badu, euskal herritar guztiak egon beharko lukete bertan, edo hobeki esanda etxean, bes-tela jar zaitezte euren edo euren senideen larruan. Honekin zera esan nahi dugu, zuen diskurtso elektoral eta partidista horietan, gure senideekin gogoratu eta konpromiso sendo bat hartu ez ezazueta. Ez da horren zaila izango denok batera eginaz euskal preso politikoa etxera ekartzea.

Gure senideak bizirik, aske eta dagozkien eskubideen inolako mugapenik gabe etxean nahi ditugu.

Bergara, eskalada eta rokodromoa

Iñaki Arenaza
Bergara

Hogei urte daramatzat eskalatzeko. Kirol hau ezagutu nuen 80ko hamarkadaren amaieran, Bergarako rokodromoa, Euskal Herrian egin zen lehenetarikoa, inauguratu zenean. Kanpoko eskalatzaileak (arrasatearrak, durangarrak, azpeitiarrak...)

Bergarako rokodromora hurbiltzen ziren, orduan ez baitzegoen aukera handirik. Gainera, garai hartan, eskalada, herriko *lau txorok* praktikatzeko genuen, motibazioz eta ilusioz, eta guztiontzako lekua zegoen.

Azken urteotan, kirol eskaladak sekulako gorakada izan du, eta gorakada horretan Bergara ez da atzean gelditu. Gaur egun, gure herrian eskalada ez da *lau txorok* egiten duten kirola. Atzean gelditzen ari dena, kirol honenganako errespetua eta Bergarako rokodromoa dira. Txikia gelditu da. Jada, kanpotik ez da inolortzen eta bertakoak sarri joan behar izaten dugu kanpora entrenatzeko. Herritar batzuek ere ez gaituzte errespetatzen, rokodromoa larunbat eta igande arratsaldeak pasatzeko dela uste baitute, baloiarekin jolasean, koltxonetan saltoka, hormetan endrekatzen e.a., gureganako, kirolari bezala, inongo errespeturik gabe. Badirudi rokodromoa *txikipark* bat dela.

Labegarieta *Calgary* bezala ezagutzen da. Bertan izaten den hotz eta hezetasunagatik, (lesioak izateko kondizio egokienak). Agorrosinen milioiak inbertitzen diren bitartean Labegarietako kiroldegia alde batera utzi da. Agorrosin, herriko kirol zentroa da. Polita, txukuna eta taberna galantarekin, inguruak herrirentzat eredu, arro egotekoa.

Zergatik bazterten da eskalada? Agian, ekipa edo bandera baten azpian praktikatzeko ez delako? Igande arratsaldetan telebista botatzen ez dutelako? Edo bizkarrean zenbaki bat ipinita ehunka ipurreseriren aurrean praktikatzen ez delako?

Eskalada naturan eta era pertsonalean egiten den kirola da. Norberak bere erronka pertsonala hormaren zailtasunarekin izaten du. Kalean ikusten ez den kirol bat da, konpetibitatean oinarritzen ez dena, eta kirol guztiak bezala, sasoiaren egoteko entrenatu eta orduak sartu behar dira..., eta instituzioen bultzada eta herritarren errespetua merezi duen kirola. Errespetatu ezazue mesedez.

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAN, 7. orrialdean agertutako albiste nagusian, akats bat zegoen. Bergarako Aperribay enpresa ageri zen ordu murrizketak egin behar izan dituzten enpresen artean, baina bertako zuzendaritzak argitu digunez, ez dute horrelakorik egin eta normal dihardute lanean. ELA eta LAB sindikatuek emandako datuetan oinarrituta egin zen albiste.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Bi lagunentzako afaria,
gau osoa aurrean
eta zu...

**zure ekonomian
pentsatzen?**



Helbidera ezazu nomina kutxan. **LASAIAGO BIZIKO ZARA.**

- . Ordainketak diru-sarreretara egokituko dizkizu.
- . Irtenbideak aurkituko dizkizu.
- . Finantza-abantaila esklusiboak lortuko dizkizu.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

ARRASATEN GIRORIK ONENA!

AMETS

BENGOA

BRANKA

EDERRA

IAMAI

ITZALA

MONTE

OKORETEGI

OSTANTZ

RUMBA

TXOKO



ARRASATEKO ARATUSTEAK 2009

Herriak

Arrasate > 14-15 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> **BERGARA**
Euskal Herriako historiari buruzko hitzaldi sorta eta erakusketa > 21



> **ARETXABALETA**
Domekako mozorreen jairako gertu daude koadrilak > 25



> **ESKORIATZA**
Udalaren proiektuak onartu ditu Espainiako gobernuak > 28



> **GATZAGA**
Emakumearen Eguna ospatzeko, bazkaria antolatu dute > 33



Irudian, Goikobalu abesbatzako kideak; 20. urteurrena beteko du aurten Arrasateko abesbatzak.

GOIENKARIA

ARRASATE > GOIKOBALUREN 20. URTEURRENA

Goikobalu abesbatza: erromes kantariak Santiagora bidean bihartik

NAFARROAN Lehenbiziko geldialdia zapatuan egingo dute Arrasateko abeslariak, Aurizberrin

OSPAKIZUNAK Mozarten 'Requiem' eta 'Carmina Burana' gertatzen dihardu Goikobaluk

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Ez mendiko botekin, ezta bizikletarekin ere. Santiagorako bidea abesten egingo dute Arrasateko Goikobalu abesbatzako kideak, herririk herri. Lehenbiziko geldialdia bihar, zapatua, izango dute Arrasateko abeslariak, Aurizberrin, Nafarroan. Hango parrokan egingo dute emanaldia, 20:00etan; Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean, besteak beste, *Ave Maria*, *Aita Gurea*, *Te quiero*, *Ni ez naiz zomorroa* eta *Ama begira zazu* kantatuko dituzte arrasatearrek.

SANTIAGORAINO, POLIKI-POLIKI

Santiagoko bidea abesten egitasmoa Juan Antonio Barriocanal abesbatzako presidentearen ideia izan da eta harrera ona jaso du gainerako abeslarien artean. Barriocanalaren hitzetan, "Nafarroako abesbatzen federazioarekin berbetan egon gara gainerako emanaldiak lotzeko eta helburua hori da,

Santiagora bidean hainbat emanaldi egitea eta hara heldutakotan, hemendik pare bat urtera-edo, Santiagoko katedralean kantatzea. Zapatuan egingo dugu lehen emanaldia eta irail aldera eutsiko diogu berriro bideari".

BESTE HAINBAT OSPAKIZUN

Bien bitartean, hainbat ospakizun prestatu dituzte abesbatzaren 20. urteurrena ospatzeko. Horrela, apirilaren 4an Mozarten *Requiem* lana eskainiko dute San Frantzisko elizan, Arrasateko Udalaren Musika Astearren barruan; ekainaren 13an, berriz, *Carmina Burana* eramango dute Elgoibarrera.

Dagoeneko bi kontzertu horiek gertatzeko entseguetan dira Goikobalukoak. Gaur egun 47 lagun dira abesbatzan eta astean bitan egiten dituzte entseguak Saiolanen, martitzenetan eta egunetan.

Bestalde, Aste Santuan Andaluziara bidaia egingo dute Goikobalukoek. Apirilaren 13tik 18ra joango dira eta Granadan (hilaren 14an), Lanjaronen (15), Guadix (16) eta Fuentevaquerosen (17) abestuko dute.

Bihar, esan bezala, Santiagora bidean jarriko dira. Autobusez aterako dira 14:00etan eta domeka Orreaga eta ingurua bisitatzeko aprobetxatuko dute. Helmuga urrun dago oraindik, baina geldialdiak kantuan eginez arinagoa egingo zaie bidaia, dudarik ez da horretan.

Goikobalu Gazteren 15. urteurrena eta kantu tailerra

Abesbatza nagusiaren ospakizunekin batera, Goikobalu Gazterenak ere etorriko dira, gaztetxoek abesbatzak 15. urteurrena beteko baitu. Arrasate Musikalen txistu irakasle ibilitako Jagoba Astiazaraneke propio abesbatzarendako kantu bat idatziko du eta azaroan egingo dute horren aurkezpena. Elkartruke baten ondorioz Errenteriako Orereta abesbatza ekarriko dute azaroan (arrasatearrek maiatzaren 30ean abestuko dute han) eta, aldi berean, argazki eta bideo erakusketa antolatuko dute Santa Zezilia ingururako. Rakek Murgiondo zuzendariarekin 32 gaztetxo dabilta (12-18 urte bitartekoak) eta Goikobalu Txikin beste 15 (5-11 urte). Amaia Aboitiz da zuzendaria.

Musika tailerra antolatu du Goikobaluk martxorako. 4-5 urteko umeei zuzenduta dago eta eguaztenetan izango dira eskolak Maialen Gonzalezekin, 17:00etatik 17:45era. Izenematea eta argibideak 669 83 34 38 telefonoan.



Argazkian, Goikobalu Gazte abesbatzako gaztetxoak.

GOIENKARIA

JAIK > ARATUSTEAK 2009

Zazpiehun herritar baino gehiago eta gutxienez 10 karroza bihar

Aratusteetako egun handiena biharkoa bada ere, gaur ludoteketan mozorro festak egingo dituzte

Martitzenean, kaleko ekitaldiez gainera, Abaroan ere egingo dute Aratuste jaia, 18:30ean

UBANE MADERA > ARRASATE

Datu potoloak iragarri dituzte aurtengo Aratusteetako egunik handienari –biharkoa– begira: 700 lagunetik gora parte hartuko dute Uarkapeko herri bazkarian; eta Arrasateko gaztetxea itxita izan da egunotan, bihar-

ko prestatzen ibili diren karrozak landu ahal izateko. Zeren gainera izango diren ezin da esan, jakina, sekretuak hala agintzen duelako. Baina esan dute hamar karroza aterako direla bihar gaztetxetik kalera. "Jende pilo gabilta lanean, 50 lagu-

netik gora. Gainera, gazteekin batera nagusitxoagoak ere badabiltza", esan du Jon Ugartek, Aratuste Komisiñoko ordezkariak.

Datu horiek guztiak esku artean, beraz, pentsatzekoa da girorik, behintzat, ez dela faltako zapatu erregularrean.

KALEJIRA, BITERITIK

Egitarau orokorrari dagokionez, erraldoi eta kilikiak eta mozorro tailerrak izango dira bihar 11:30ean hasi eta pregoia irakurri bitartean. 12:30ean irakurriko dute pregoia, Biterin, iaz mozorro onenaren saria irabazi zuen koadrilak; bestela esanda, sardina irabazi zuenak: *Txorromoski* koadrilak.

Eta pregoiaren ostean egin dute hitzordua herri bazkarian parte hartuko dutenek, herri bazkarirako "motorrak berotzeko". Jon Ugartek jakinarazitakoaren arabera, *Gasoliner*a-tik aterata, honako ibilbidea egingo dute: *Gasoliner*a-Laubide-Maalako biribilgunea-Maala kalea-Seber Altube-Okoretegi-Arbolapeta (errepidetik, kontrako noranzkoan)-Olarate eta Uarkape (14:30ean da bazkaria).

MOZORRO ETA KARROZA ONENAK

Bazkariak gainera, bazkaloste polita izango dela ere azpimarratu du Ugartek: "Bazkaldu, mahaiak batu eta jolasak egingo ditugu; horiek ere puntuagarriak izango dira geroko sari banake-

tarako", argitu du. Izan ere, iaz bazkalostea eta mozorroren sari banaketa artean gertatu zen hutsunerik izan ez dadin, bazkalostean banatuko dituzte aurtengo hiru sariak: koadrila, karroza eta taberna onenei (31 tabernak parte hartuko dute). Beraz, zera esatea besterik ez da falta: bihar, *Mozorrotu ala hil!*

Egitaraua, eguna-ordua

21, zapatua

11:30 Erraldoi eta kilikiak.
12:00 Mozorro tailerrak, Biterin.
12:30 Pregoa, Biterin
14:30 Bazkari herrikoia
19:30 Dantzaldia: Trakets taldea

22, domeka

19:30 Nancho Novoren *Sobre Flores y Cerdos* antzezlan.

24, martitzena

16:30 Mozorro desfilea, plazan
17:00 Hipo eta Tomax pailazoak
17:30 Samasiku txaranga
18:00 Kalejira Funky L'Olla taldearekin
19:00 Arrasate Musikaleko banda eta balletarekin kalejira
20:00-21:30 Egan taldearekin dantzaldia
22:30 Egan taldearekin dantzaldia
23:30 Sardinen hileta; Segizioak errialdeko kaleak ibili ondoren Herriko Plazan bukatuko du desfilea, sardina bertan erretzeko.

bere ustez



Nerea Makazaga

Zurea ez den memoria

Zurea ez den memoria esleitu zaizu. Zuk ezagutu ez zenituen garaietako gertakariak idatziak azaldu dira zure historiako lerroren artean.

Lerroak eta pasarteak nahastu zaizkizu urteek aurrera egin ahala eta zureak ez ziren haiek zure bihurtu dira. Zurea ez den memoria esleitu zaizu; ez dago autore zuzenik eta are gutxiago errudunik.

Orain, minaren sustraiak ezagutu gura dituzunean, ez dakizu segitzen ari zaren bide

"Lerroak eta pasarteak nahastu zaizkizu urteek aurrera egin ahala"



Martitzenean hasi ziren kale agerraldiak egiten Iturbide egoitzako hainbat langile; konponbiderik ezean, udaletxe parean elkartuko dira eguerdiko.

U.M.

LAN PROTESTA > ITURBIDE EGOITZA

Egunotan elkartuko dira azpikontratatuak Iturbideko langileak eta udal ordezkariak

Azpikontratatu daudenek eskatzen dute pareka ditzatela euren lan baldintzak udal langileenekin

U.M. > ARRASATE

Herriko Plazan mobilizaziotan ikusi ditugu egunotan Iturbide egoitzan azpikontratatu dau-

den langileak. Euren lan baldintzengatik dihardute protestan. Izan ere, Iturbideko lantaldean hiru langile udal langileak dira eta gainerako 30ak dira azpikontratatuak, Untza enpresakoak. Halakoetan ohi denez, udal langileen eta gainerakoen baldintzak ez dira berak; udal langileenak (soldatak barne) hobek dira. Bada, protestan diharduten langileek eskatzen dutena da lan berarengatik baldintza berak.

ESK SINDIKATUA

Iturbideko langileak ordezkatzeko dituen ESK sindikatuak aditerra emandakoaren arabera, legegaldien hasieran aurkeztu zituzten euren eskaerak eta 2008ko aurrekontuan 150.000 euro onartu zituzten Udalak gai hori lantzeko. Baina ikusita bi urteren ostean kontua gelditu dagoela eta langileek egindako hiru eskaerei Udalak ezezkio eman diela, erabaki dute mobilizazioak egiten hastea.

NEGOIAZIO PROZESUA ZABALIK

Udalari dagokionez, alkateak dio badihardutela negoziatuz Iturbideko langileekin. Asteon batzartu da egoitzako zuzendaritza batzordea, alderdi politikoei osatutakoa. Eta datozen egunotan deituko dituzte berriro Iturbideko langileak alderdien posturak argitu eta ea irtenbiderik aurkitzen duten. Alkateak azpimarratu du, baita ere, egoera hori 90eko hamarkadatik datorrela.

horren seinaleak nori zuzendutako izan diren.

Ez dakizu, nori tatuatu zitzaizkion lehenengo aldiz zuk errepikatzen dituzten gida-lerro okerrak, eta ez dakizu nori eskatu galdera guztien erantzunak; erantzunik bagego.

Denborak biribildutakoa gertakizun ororen ondoriozko korapilo osotu bat da, eta lehenengo korapilo batean oinarritu zenak aparteko korapiloak barneratzen jarraituko du; eta denborak kiribilduko ditu ekuazio amaiezinean.

Arnasaldi bat bailitzan, eredu idealizatu bat bilatu zenuen zerri eutsi izateko, aukera berri bat zeureganatzeko; beti, ispiluaren beste aldean iristeko behar horretan.

> GIZARTEA

Astelehenean hasiko dira nagusien zaintza lantzen

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza. Horixe da astelehenean hasi (otsailaren 23an, 15:30ean) eta beste sei egunean Ekin Ekamumeak elkartean landuko duten ikastaroa. Bizikasi elkartean antolatutakoa da eta oraindik izena ematea posible da (943 76 93 94).

OBRAK

Espaloiak irigarri izateko obrak

Herriko hainbat puntutan dabilta irisgarritasuna bermatzeko obretan

U.M. > ARRASATE

Egunotan herriko hainbat puntutan obrak hasi dituzte, espaloi eta kaleen irisgarritasuna bermatzeko. Oraingo honetan, erdigunean, Otalaran, Jose Luis Iñarra kalean, San Andres auzoan, Santa Marinan, Uriben eta Zigorrolan dabilta, besteak beste, halako lanak egiten. Obra eta Zerbitzu Saitetik emandako xehetasunen arabera, Xaxarki enpresa dabil lanok egiten. Bi hilabete eta erdian bukatu beharko dituzte. 80.000 euro pasatzeko aurrekontua dute.

Arrasateko Udalak lauzpabost urteotan dihardu irisgarritasuna bermatzeko lanak egiten. Espaloiak maila txikitu eta oinezkoari lehentasuna ematen dien zebra-bideak egokitzen dituzte, oro har.

Amaia Labaien > Bideogilea eta Islada komunikazio enpresako kidea

"Bideokamerari askotan diogun beldurra kentzeko ikastaro egokia da"

UBANE MADERA > ARRASATE

Eguaztenean (otsailak 25) hasi behar dute Gazte Bulegoak antolatutako bideogintza ikastaroa. Beste urte batzuetan ere egin izan dute, arrakasta handiarekin. Amaia Labaien bergarra da irakaslea. Azpimarratu du oraindik badela izena emateko aukerarik.

Ikastaro praktikoa da?

Gaur egun beharrezkoa da. Eskura dauzkagun elementu, erreminta eta beste, denbora librerako, lanerako, ikasketetarako edo norberak gura duenarendako erabili ahal izateko.

Aldez aurretiko ezagupenen bat behar da parte hartzeko?

Ez. Izan ere, oinarrizko kontzeptuak ikusiko ditugu. Adibidez, kamera bera aztertuko dugu (objektiboa, botoiak...), askotan izaten diogun beldur hori kentzeko. Kolorea, iluminazioa, irisa, konposaketa eta halakoak ere ikasiko ditugu. Hori guztia ikusi eta gero, grabazioaren prozesuan sartuko gara; gero, muntatu, eta horren ostean hurrengo atalera pasatuko gara: zelan osatu gidoi txiki bat edo zelan antolatu grabazio horiek. Azken batean, kontua da kontatzeko dugun



lazko ikastaroaren argazki bat, Bergarako kultura etxearen kanpoaldean. GOIENKARIA

horri forma eman paperean eta paperetik zelan pasatu errealtzera... Helburua hau da: nahiz eta zerbait txikia izan, behintzat lantxo bat osatu; ikasleak ikusi ahal izateko prozesu guztia.

Bideokameraz gainera, argazki kamera ere aztertuko dugu, zerikusi handia dute-eta biek.

Eta materialik behar da?

Ezta ere. Kamerak bertan egongo dira eta editatzeko bidez-pahiru ordenagailu ere bai. Edo zelan ere, norbaitek makina bal-

din badu, eta gero hori erabili behar badu, akaso gura du hura ondo erabiltzen ikasi. Horrela bada, gura duenak ekarri egin dezake. Hori bai, ordenagailu eta kamera kopurua kontuan hartuta, 8-10 lagun baino gehiago ezin dugu ditugu hartu.

Lehenago ere egin izan duzue halako ikastaroren bat, ezta?

Bai. Eta orain arteko esperientziak onak izan dira; beti ondo pasatu dugu, azken batean ikastaroa praktikoa da-eta.

oharrak

LAN ESKAINTZA

> Txatxilipurdi

Arrasateko ludoteketan astelehenetik egubakoitzera lan egiteko hezitzailea behar du Txatxilipurdi Aisialdi eta Euskara Elkarteak. Egunean lau ordu lan egiteko pertsona behar dute. Beharrezkoa da euskara maila handia izatea eta neska-mutikoekin esperientzia izatea. Interesa dutenek: 943 79 54 46 edo haurrak@txatxilipurdi.com.

NORTASUN AGIRIAK

> Txandak bukatuta

Nortasun Agiriak egiteko martxo, apiril eta maiatzetarako txandak ematen ibili dira egunotan Biztanleen Arreta Zerbitzuan; baina dagoeneko bukatu egin direla jakinarazi dute. Hilabete bakoitzeko Arrasaten 80 txanda ematen dituzte, eta, inguruko herrietakoak ere etortzen direla kontuan hartuta, berehala gastatzen dira.

Gainera, esan dute ez dituztela txanda gehiago emango uda osterarte. Izan ere, ekain, uztail, abuztu eta irailean ez dira etortzen agiriak egitera. Hori horrela, errazena da Gasteizeko egitea. Txandak hartzeko: 902 24 73 64, 09:00etatik 20:00ak arte, astelehenetik egubakoitzera.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

AZPIEGITURAK > JOLASPARKEAK ETA ADINDUENDAKO ZIRKUITUA

Zirkuitu bio-osasuntsua eta lau jolasparke eraikitzen hasiko dira

Bost parke eraikitzeko proiektuak adjudikatu ditu Udalak. Laster ikusiko ditugu, beraz, obrak Uribe, Bedoña, Zerrajera, Makatzena eta, akaso, Gernika zumardian

UBANE MADERA > ARRASATE

Zerrajeran eraiki behar du Udalak jolasparke berrietako bat, Aprendizen Eskolaren eta La Cai-xaren etxeen artean. Yor SA enpresak eraikiko du, Santa Barbarako parkea eraiki zuen berak. Izan ere, haren antzerakoa izango da Zerrajerako parke berria. Besteak beste, izango ditu Arrasaterekin zerikusia duten elementuak. "Zerrajerako giltzen marrazkiak sartu dituzte lurrean eta hainbat zaburutan", azaldu du Moises Altunak, Obra eta Zerbitzu Saileko teknikari-buruak. Parke "handi samarra" izango da, bi guneduna: bata, irisgarria (edozeinek

erabili ahal izango du, baina egokituta izango da zailtasunak dituztenentzako); bestea, 7-13 urte bitartekoendako gunea.

Parkea eraikitzen hasiko dira ingurua egokitu bezain laster.

URIBE, MAKATZENA ETA BEDOÑA

Bestalde, beste hiru parke ere eraikiko ditu Udalak: Bedoñan (berria, eliza parean, 2-8 urteko umeendako); Makatzenan (aparkalekuaren gainean, lehenago jolasparkea zegoen lekuan; 4-12 urtekoendako); eta Uriben (orain dagoena aldatuko dute, 4-12 urte bitartekoendako).



Santa Barabarako kulunka.

I.A.

BIO-OSASUNTSUA, GERNIKAN

Bukatzeko, Arrasateko lehen parke bio-osasuntsua izango dena ere eraikiko du Udalak, helburu argiarekin: herriko pertsona nagusiek "kirol praktika osasuntsua" egin dezaten. Oraindik ez dute erabaki zein izango den zirkuituaren kokagune egokiena, aukerak "aztertzen" dabiltzala adierazi dute. Eta, adibidez, aukeretakoa bat dela Gernika Oinezkoen Zumardian kokatzea zirkuitua. Hori bai, udal teknikariek badakitena da zortzi aparailu izango dituela. Udaberri inguruan hasiko dira hori eraikitzen.

ESTATUKO DIRU FONDOTIK

Martxoan, Aldai, Erguin eta Santa Marina

Asteon jakin du Arrasateko Udalak onartu egin diotela Estatuko Diru Fondoarekin finantzatu dute laugarren proiektua: Santa Marina inguruan irisgarritasuna bermatzeko espaloien mailak txikitzea. Bestalde, martxoan adjudikatuko dituzte Estatuko fondoarekin Arrasaten finantzatu behar dituzten gainerako hiru obrak: Aldaiko parke berria; Erguin auzoko eskailerak berritzea eta Santa Marina auzoa berriro urbanizatzea. Lau proiektuak batuta, ia lau milioi euroko inbertsioa egingo dute Arrasaten. Gainera, obra guztiak urtea bukatzerako amaitu beharko dituzte, hori da-eta dirulaguntzok duten baldintzetako bat.

DATUA

170

MILA EURO

Zerrajerako parkerako 87.000 euro inbertituko ditu Udalak eta gainerako lau parkeendako, berriz, beste 83.000 euro. Hori horrela, 170.000 euro inguru inbertituko ditu jolasparkeetan.

Zaborra guztion arazoa dela ohartarazteko kanpaina

Udala auzoko Ingurumen Eskolak eta Debagoieneko Mankomunitateak *Sentitu, pentsatu, ekin!, zaborraren berdin!* kanpainarekin aurrera dihardute. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko lehen zikloko ikasleei zuzendutako ekimena da, eta haren helburu nagusia zaborraren trataerak eta sor ditzakeen arazo ezberdinak jakinaraztea da.



INGURUMEN ESKOLA

> EUSKAL ROCKA

Gatibuk kontzertua eskainiko du 3.60 aretoan hilaren 27an

Gernikako Gatibu taldeak Arrasateko 3.60 aretoan joko du datorren egubakoitzean. Euskal Herrian zein kanpoan oso ezaguna den taldea da. Laukote bizkaitarrak euskarazko rocka egiten du, eta disko berria aurkeztera dator: *Lainoen guztien gainetik, sasi guztien azpitik*. Taldekideak dira: Haimar Arejita (gitarra), Gaizka Salazar (bateria), Mikel Caballero (baxua) eta Alex Sardui (ahotsa).

Emanaldia 22:30ean hasiko da eta sarrerak 7 euro balio du aurrez erosita eta 10 euro leihatilan bertan.

**BASATI
TABERNA**

943 711768

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:

legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MUSIKA > ARRASATE MUSIKALA

Piano joleek 19 domina ekarri dituzte Andoaindik

Urrezko lau, zilarrezko hamahiru eta brontzeko bi domina eskuratu dituzte neska-mutikoen

Aratusteen harira, Arrasate Musikalek datozen egunotako ekintzen berri eman du

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Pozik itzuli dira joan den aste bukaeran Andoaingo piano jaialdian parte hartu zuten Arrasate Musikaleko piano joleak. Guztira, 19 neska-mutikok hartu zuten parte Andoain eta guztiak eskuratu zuten diploma; baita dominak ere: lau, urrezkoak; hamahiru, zilarrezkoak; eta bi, brontzekoak, hain zuzen.

Honako ikasleek parte hartu zuten esandako jaialdian: Asel

Solozabal, Gorka Barkero, Nagore Gomez, Marina Lasa, Nestor Uroz, Vera Garmendia, Natalia Llanos, Txomin Valle, Leire Retege, Danel Cusi, Sara Larrabe, Maitane Mayor, Mikel Barkero, Garazi Romero, Nerea Barriocanal, Ainhoa Heriz, Eukene Dorronsoro, Oihana Gonzales eta June Ortiz de Landaluze. Pianisten arduradunak, berriz, Isabella Blazien eta Raquel Hernandez izan ziren.



Andoaingo jaialdian parte hartu duten arrasatearrak pozik daude jasotako diplomekin eta dominekin.

GOIENKARIA

Aurten lortutako emaitzak ikusita, ziur piano jole bat baino gehiago datorren urteko jaialdiari begira egongo dela. Hara joan aurretik, baina, bestelako ekintzetan parte hartuko dute; tartean, Aratusteen antolatutakoetan.

ARATUSTEAK

Gaur, egubakoitza, esaterako, Arrasate Musikaleko ikasleek Aratustetako ohiko kontzertua eskainiko dute Kulturaten. Asko

tariko musika tresna eta taldeak ikusi eta entzuteko aukera izango dute, 18:30ean, Kulturatera joaten direnek. Ohiturari jarraituz, musikari guztiak mozorrotuta joko dute bakoitzari dagokion pieza.

Aratuste-martitzenean, otsailak 24, Arrasateko Musikaleko Bandak eta Balet taldeak kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Klasikoa bihurtu da esandako ikuskizuna; urteak darama-

tzate Bandakoek eta Baletakoek Aratuste-martitzenean irteeren.

Aurtengo musika emanaldia-ri 19:00etan emango diote hasiera. Aurten, polizia eta lapurretaz joango dira mozorrotuta musikariak eta beraz, *Loca Academia de Policia* filmaren eta Pantera Larrosaren gaineko pieza ezagunak joko dituzte. Bandak musika jotzen duen bitartean, Balet taldekoek, berriz, dantza egingo dute martitzeneko emanaldian.

PAILAZOAK > AMAIA ANTZOKIAN

Hipo eta Tomax, sukaldari lanetan

M.B. > ARRASATE

Haurrek zein helduek Hipo eta Tomax pailazoan abenturak ikusteko aukera izango dute martitzenean, hilak 24, Amaia Udal Antzokian. Sukaldarien istorioa kontatzen duen ikuskizuna 17:00etan izango da eta ordubete inguruko iraupena izango du.

Emanaldi dibertigarria aurkeztuko du bikoteak. Hipo garbitzailea eta Tomax zaintzailea Argiñano sukaldari ezagunaren

telebista platoan elkartuko dira eta aspaldi zeukaten ametsa errealitate bihurtzen saiatuko dira: egun batez sukaldari famatuak izan eta umei Cola-Cao pastela nola egin erakutsi.

PASTELA EGITEKO OZTOPOAK

Horretarako, Argiñano sukaldariari errezeta liburua lapurtuko diote eta han azaltzen diren osagaiak esandako pastela egiten saiatuko dira. Tomax sukaldari



Hipo eta Tomax pailazoak sukaldean sartuko dira martitzenean.

GOIENKARIA

lanetan jarduten duen bitartean, Hipo laguntzailea izatearekin konformatu beharko da. Pastela gertatzea ez dela horren erraza konturatuko dira Hipo eta Tomax; ara-

zo asko izango dituzte pastela prestatzeko. Mikel Sarriegiren eta Joserra Fachadoren ikuskizuna lau urtetik gorako umeendako da.

> ZINEA

Hiru film ikus daitezke datozen egunotan Amaian

Valkiria, *La comedia de la vida* eta *El valiente Despereaux* filmak botako dituzte datozen egunotan Amaia antzokian. *Valkiria* ikusi gura dutenek hiru egun izango dituzte aukerara. Gaur, egubakoitza, 22:00etan botako dute; bihar, zapatua, 19:30ean; eta astelehenean, 20:30ean. Zapatuan, gainera, haurrentzako zinea egongo da 17:00etan; *El valiente Despereaux* botako dute. Eguenean, hilak 26, Roy Anderssonen zuzendutako *La comedia de la vida* filma egongo da ikusgai, 20:30ean.

Garagardo ona, giro hobea



Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

IAMAIA ANTZOKIA
ARRASATE

Ostiralean 00:00etatik aurrera

otsailak 27 Carlitos. Umorezko saio musikala

matxoak 6 Oswaldo Digon. Galiziar umorea

matxoak 13 Dany Boy. Bakarrizketak

matxoak 20 Sebas "El Rayo". Umorezko kantua

matxoak 27 Ramón Guama. Bakarrizketak

apirilak 2 Martín Luna. Umorista



SASKIBALOIA > LEHEN MAILA

Bihar, lehenengo faseko partidu garrantzitsuena

MUK jaitsiera fasean kontrario zuzena izango den Bidegintzaren bisita jasoko du bihar Iturripen

Erabakita dago zeintzuk borrokatuko diren EBAr igotzeko eta zeintzuk mailari eusteko

X.U. > ARRASATE

Bihar arratsaldean Mondragon Unibertsitateak lehenengo faseko norgehiagoka garrantzitsuena jokatu du Bidegintzaren kontra (Iturripen, 18:00). Matematiketik aspaldi zioten zuri-moreek ez zutela igoera faserako sailkatzerik izango, eta horrenbestez, jaitsiera fasean kategoriari eusteko borrokatu beharko zutela.

Eta biharko kontrario Bidegintza ere jaitsiera fasean izango da; hain zuzen, talde horrek joan den astean jaso zuen kolpe erabakigarria, Zornotzaren kontra 77-80 galdu eta gero goiko

fasera sailkatzeko zituzten aukera apurrak bertan behera geratu zirenean.

URREZKO PUNTUAK

Biharko norgehiagokari dagokionez, MUK azken hiru jardunaldietan batu dituen emaitza txarrekin ez dute jaitsiera fasean inongo eraginik izango; baina biharkoak bai, zuzen eragingo du.

Orain arte MUK bi partidu irabazi ditu, eta bihar irabaziz gero, garaipen horrek balio bikoitza izango luke: hurrengo fasean Bidegintzaren aurkean MUK etxeko lanak eginda izango lituzke.



Antxon Hernandezek Baskoniaren elastikoa jantziko du aurrerantzean. GOIENKARIA

HERNANDEZ, BASKONIARA

Biharko norgehiagokari azken astean jasotako kolpearekin egin beharko dio aurre MUK, izan ere, Javi Zurbanok lehen ere talde gaztea bazuen, aste barruan jakin dugu taldeko *beteranoetako* batek, Antxon Hernandezek, kategoria berean dagoen Basko-

niara joatea erabaki duela, Gasteizera doalako bizitzera. Kolpe horretatik erreperatu eta biharko partidua irabaztea "nahitaezkoa" dela adierazi dute Ointxe! taldeak: "Iturripetik ez delako garaipen batek ere ihes egin behar". Horretarako zaleen babesa beharko dute.

> KIROLDEGIA

Jonathan Perez Sevillan izango da asteburuan

Sevillan egingo dituzte asteburuan Espainiako pista estatiko atletismo txapelketak, eta Realeko atletak pertika saltoan jardungo du. Arrasatekoak aurten 4,95 metroko marka dauka, eta bosgarren dago sailkapen orokorrean. Bost metroko marka gainditzea du helburu.

Bestetik, Gasteizen egingo dako eskola mailako krosean Maria Jaca 12.a izan zen, eta gipuzkoar onena.

> KIROLDEGIA

'Body Pump' egiteko plaza libreak daude Musakolan

Musikaren erritmoan pisuekin egiten den entrenamendua saioa da *Body Pump*, eta AUKEATik aditzera eman dute hainbat ikastarotan plaza libreak dituztela.

Martitzen eta eguenetan egiten dituzte *Body Pump*-eko saioak, 18:30etik 19:30era, eta astean egun batean edo birritan joateko aukera dago. Informazio gehiago gura duenak dei dezala 943 77 16 77 telefono zenbakira.

SASKIBALOIA > SERIES COLEGIALES

Arizmendi Dragons taldeak beste pauso bat egin zuen Zaragozan

Zaragozako zonako Escolapiosi final estuan 71-72 irabazi zion joan den egubakoitzean Arizmendik; Ipar zonako finala da hurrengo erronka

X.U. > ARRASATE

Arizmendi Dragons taldeko mutilendako, Series Colegiales saskibaloian bizi behar zuten esperientzia ederra izatetik bizi osoan gogoratuko duten txapelketa izatera pasa da. Lehenengo, TAU Baskoniak antolatutako fasea gainditu zuten, talde mordoa atzean utzita, eta joan den egubakoi-

tzean Gabilondoren eta Amianoren mutilek Madrilan jokatu dituzten finaletan egoteko beste pauso bat egin zuten: Zaragozako kanporaketa gainditu (71-72). Arizmendiko *dragoiek* ondo egin zioten aurre kontrarioari, eta baita Zaragozako kantxako presioari ere, normala den moduan zaleak beste taldearen alde zeudelako.

Baina horrelako adinetan ohikoa ez den patxadarekin jokatu zuten, eta bigarren laurdenean aurretik jarri eta gero azken minutuetan lortu zuten kontrarioa geratzea, nahiz eta larri ibili ziren. Hurrengo erronka datorren astean izango dute: ipar zonako finala; garrantzitsuena, orain arte gozatu duten moduan gozatzea.



Zaragozako kantxa jendez beteta, Escolapiosen eta Arizmendiren partiduan. ARIZMENDI

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Zenbaki Aholkulariak



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- Fiskala: Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

JAIK > ARATUSTEAK

Txartel gehiago atera behar izan dute zapatuko mozorro afarirako

Aurrez saltzen jarritako 200 txartelak aste bukaeran bukatu ziren eta beste 50 daude eskuragarri

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Zapatuan egingo den mozorro afariak sekulako arrakasta izan du. 200 txartel jarri zituzten saltzen eta aste bukaerarako guztiak salduta zeuden. Hala, beste 50 aterratze erabaki du Udalak. Txartelok eskura daitezke Pol-Pol tabernan, 12 euroen truke.

Mozorro afaria 21:30ean, izango da, Seminarioko zutabeen patioan eta ezinbestekoa izango da mozorrotuta joatea.

PIRRITX ETA PORROTX

Pirritxek, Porrotxek eta Mari Mototsek zapatuan egingo duten emanaldirako sarrerak badaude, oraindik. Hain justu, 18:30ean egingo duten bigarren emanaldirako 170 sarrera geratzen dira. Prezioa da bost euro eta pertsona bakoitzak egingo ditu sei baino gehiago erosi. Leihatila irekiko dute 17:30ean.



Askotariko pertsonaiak ikusten dira kaleetan, harri-jasotzaileak, esaterako. ARTXIBOA

ASKOTARIKO EKITALDIAK

Gaur, egubakoitza, abiatuko dira Inauteri-ekitaldiak. 17:30-19:30 ordutegian umeendako jolasak egingo ditu Jardun elkarteak San Martin plazan. 22:30ean Udala Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratuste-kontzertua egingo dute. Aurtengo aukeratu duten gaia da Kuba.

Bihar, zapatua, bonba japoniarrek egongo dira umeendako San Martin plazan 18:00etan eta 18:15ean, erraldioen konpartsak

kalejira egingo du Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

Mozorro kalejira 19:30ean hasiko da. Burrunbazale txarangak alaituko du kalejira eta Kultura sailetik animatu nahi dituzte herritarrak parte hartzera. Kalejira eta gero, mozorro afaria hasiko da eta 23:00etan, Gaubela taldearekin dantzaldia egongo da San Martin plazan. 24:00etan, berriz, mozorro kalejirako mozorro onenak saria jasoko du Bedelkarren eskutik, plazan.

Domekari dagokionez, Turukutupá taldeak *Rezikletas* emanaldia egingo du 18:30ean erdiguneko kaleetan eta 20:00etan, antzerki emanaldia egongo da Udala Pilotalekuan; Ados Teatroaren *Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela*, hain justu ere.

IPINTZA INSTITUTUAK, TABERNA

Ipintza institutuak hainbat ekitaldi antolatu ditu Aratuste-zapatuak, San Martin plazan. Bate-tik, taberna jarriko dute; beste-tik, saskiak zozkatuko dituzte, eta azkenik, umeendako jolas eta tailerrak egingo dituzte. Besteak beste, aurpegia margotzen, mozorroak eta bestelako eskulanak egingen irakatsiko diete tailerretan txikienei. Batutako dirua erabiliko dute ikas bidaian joateko.

Horrez gain, ikastetxeetako neska-mutikoek ere alaituko dituzte herriko kaleak euren mozorroekin. Gaur, egubakoitza, arituko dira kalez kale.

ARATUSTE-MARTITZENA

Disko festa eta karaokea egongo dira 16:15-19:15 ordutegian, San Martin plazan. 16:30ean, Musika Eskolako gazteen bandak kalejira egingo du eta 19:30ean, suzko zezena egongo da San Martin plazan.

JENDARTEA > BEDELKAR ELKARTEA

Merkealdi azoka egingo dute dendariak

Martxoaren 7an egingo dute, Bedelkarreko 25 bat dendak, herriko kaleetan barrena

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bedelkarrek ekimen berria egingo du martxoaren 7an; merkealdi azoka, hain justu ere. Elkarte-ko 25 bat dendak hartuko dute par-

te eta helburua da denda kalera ateratzea. Hain justu, komertzio bakoitzak denda aurrean jarriko du erakusmahai. Denda aurrea atondu egingo dute eta kalean sal-

duko dute egun horretan, kaleko merkatu txikia balira bezala.

ALDE ZAHARRA, OINEZKOENAKO

Alde zaharrari dagokionez, kaleak estuak eta espaloi gutxiak direnez, dendak kalera atera ahal izateko, trafikora itxi egingo dute martxoaren 7an. Hala, San Pedro, Artekale, Barrenkale eta Bidekurutzeta kaleetatik ez da ibilgailurik igaroko.

Eguna borobiltzeko Musika Eskolako musikariak goiz eta arratsalde ibiliko dira kaleak alaitzen eta umeendako puzgariak ere egongo dira 17:00-19:00 ordutegian San Martin plazan.

Merkealdi azokak modan daude gaur egun eta Bedelkarreko eutsi nahi izan diote aukera horri. Gainera, urriari Udala Pilotalekuan egin zuten azokak izandako erantzun onak ere animatu egin ditu merkealdietan ere merkatu txiki antzeko hau egitera.

URRIAN AZOKA PILOTALEKUAN

Urriko azokari dagokionez oraindik data erabat zehazteke dago, aurtun ere egingo dutela aurreratu dute, iazkoak izandako harrera ona ikusita. Hala, bakarrik zapatuan egin beharrean, zapatu eta domekan izango dela azpimarratu dute.

bere ustez



Jon Suinaga

Pailazoak eta babes gabeko gurasoak

Zapatuan gorbata buruan lotuta kalean ibiltzen bazara inork ez dizu deus ere esango. Kalera txukuntxukun irtetea, sekula berriro ez duzun jantziko traje berriarekin, eta pixka bat kargatuta eta trajea txikituta etxera bueltatzen bazara ere normala izango da. Ez, ez da ez-kontza bat... Inauteriak dira!

Azken urtetan bezala Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak gure herri-erorriko dira. Iraganean istilu lotsagarriak gertatu ziren sarrerak lortzeko, zer ez

"Aurtun ere ilara luzea egon da txartelak erosteko; eta oraindik sarrera pila bat dago salgai"

du egingo guraso batek bere umetxoan nahiak betetzeko! Ordutik bi emanaldi ospatzen dira. Aurtun ere ilara luze bat egon da txartelak erosteko, txartel-leihatila zabaldu aurretik lau orduz lehenago bazegoen jendea zain eta zabaldu ostean, ordu pare baten, inor leihatila aurrean eta oraindik sarrera pila bat salgai. Je, je...

Porrotx eta konpainia kolore, musika eta alaitasunez betetako pailazo kutunak dira. Ikusten dituzun lehenengo aldian barruan daukazun umea ateratzen dizute. Abesti guztiak buruz dakizkizunean eta emanaldi batzuk ikusi eta gero barruko oker-senak esnatzen hasten dira. Beno, guraso jasankorrek, zapatuan frontoira... Ze erremedio!

trinmer telecomunicaciones

tdt televisión digital terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

SANTOS

TIEN 21

DESKONTUAK
Renove plana etxeresnetan

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

25 URTEURRENEKO JAIALDIA




www.ariznoaelkartea.com

BERGARAKO PILOTALEKUAN

Martxoak 1 17:00




SARRERA 3 €




Almudena Cid

auk^oran dantza konpainia



acroindar

SAMU CREW



Ariznoako Gimnastak,
Euskadi eta Nafarroako
Klub federatuak

**SUPER
AMARA**



Loradenda
Lorak
Landareak
Opariak **GOROSTI**

INDUSTRIAS
ZANGUITU

50
1958 / 2008
GOIZPER S. COOP

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

TRIGAR-Pi.s.L
PRODUKTU PROFESIONALAK:
- Garbitasuna, desinfekzioa, etab.
- Ikuztegia
- Baxera-detergentea
- Zelulosak, etab.

**LETE
TOLDOAK**

JENDARTEA > EUSKAL HERRIKO HISTORIA

Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldi sorta eta erakusketa antolatu ditu Udalak

Nabarralde elkartearekin batera antolatu ditu, 'Euskaldunak eta Nafarroa' izenburupean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Udalak eta Nabarralde elkarteak *Euskaldunak eta Nafarroa* izenburupeko hitzaldi sorta eta erakusketa antolatu dituzte. Estatua, subiranotasuna, independentzia eta halako ideien gaineko hitzaldi sorta eta erakusketa dira eta eguaztenez aurkeztu zituzten prentsaurrekoan. Aurkezpenean izan ziren Enara Minguez, Udaleko Kultura zinegotzia; Angel Rekalde, Nabarraldeko lehendakaria; eta Jose Ignacio Miner, Bergarako Nabarraldeko ordezkaria.

Angel Rekaldek aurkezpenean hauxe azaldu zuen: "Gizarte batek eztabaidatu beharra badauka izenaren gainean; hau da, adibide bat jartzearen, selekzioari nola deitu, Euskadiko, Euskal Herriko... bada, horrek esan nahi du gizarte horrek informazioa



Angel Rekalde, Enara Minguez eta Jose Ignacio Miner.

MONIKA BELASTEGI

behar duela. Ideien eta erreferenteen arteko borroka dago, eta hitzaldi eta erakusketarekin gure helburua da informazioa ematea.

HITZALDIK ETA ERAKUSKETA

Sei hitzaldik osatzen dute sorta eta hizlari ezagunek egingo dituzte: Angel Rekaldek, Mikel Sorrauren eta Floren Aoizek, esaterako. Hitzaldiok jorratuko dituzten gai

dagokienez, Rekaldek klabetzat ditu: "Gure historia ezagutzen laguntzeko. Izan ere, baldintzatu gaituzten historia pasarteak dira".

Erakusketak *Nafarroa, euskal estatua* du izena eta Euskal Herriko historia ezagutzeko "modu erraz" gisa definitu du Rekaldek. Otsailaren 25etik martxoaren 15era egongo da ikusgai, osoko bilkuren aretoan.

Hitzaldien egutegia

Otsailak 25

Izenburua: *Euskal Esatua*
Hizlaria: Angel Rekalde

Martxoak 4

Izenburua: *Nafarroako gazteluak*
Hizlaria: Iñaki Sagredo

Martxoak 11

Izenburua: *Historia de Navarra, el Estado vasco*
Hizlaria: Mikel Sorrauren

Martxoak 17

Izenburua: *Independentziaren galera*
Hizlaria: Floren Aoiz

Martxoak 25

Izenburua: *Navarra como paradigma*
Hizlaria: Lusi M. Mtz Garate

Apirilak 1

Izenburua: *1936. Memoria*
Hizlaria: Iñaki Egaña

OHARRA: Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira osoko bilkuren aretoan.

> IKASTAROAK

Izena emateko aukera dago Agorrosingo hainbat ikastarotan

Kirol Zerbitzutik jakinarazi dute oraindik ere badagoela aukera hainbat ikastarotan izena emateko. Batetik, eman daiteke izena Emakumeak eta atletismoa ikastarotan. Astelehenean 19:15ean eta eguenean 19:30ean dira eskolak. Bestetik, helduendako kirol has-tapen eta sasoiaren egoteko gimnasia eskoletarako lekua ere badago. Martitzen eta eguenean izaten dira, 19:00etan, Martinez de Iralako gimnasioan. Fibromialgia eta astenia kronikoa dutenendako ur jardueretan ere bada lekua, astelehen eta eguaztenez.

Iñaki Gabilondo eta Juantxo Azpiazu irabazle

Zapatuan jokatu zen Euskal Herriko mus txapelketarako kanporaketa Avenida tabernan. 11 bikotek hartu zuten parte eta irabazle izan ziren Iñaki Gabilondo eta Juantxo Azpiazu. Hala, bildotsa eta ardoa eroan zituzten etxera. Bigarren saria jaso zuten Felix Altunak eta Pedro Narbaizak -bi untxi eta ardoa-. Gabilondok eta Azpiazuk jokatu dute Gipuzkoako finala otsailaren 28an, Seguran. Final handia martxoaren 14an izango da, Seguran hori ere.



GOIENKARIA

oharrak

LOKALEN ZOZKETA

> **Etxebizitza erabilera izango duten lokalak zozkatuko ditu Udalak**

Interesatuak izena eman beharko dute Bulego Teknikoan (2. solairuan). Hala, dagoeneko badagoen interesdunen zerrendara atxikituko dute. Beti ere, gutxienez azkeneko urtebetean Bergaran erroldatua egon beharko du interesdunak eta ez du etxebizitzarik jabetzan izan behar.

UDAL PILOTALEKUAK

> **Angiozar eta Elorregiko pilotalekuak erabilgarri daude**

Behin-behineko konponketak egin dizkiete eta eguraldiak hobera egiten duenean erabatekoak egingo dituzte. Zabalotegiko pilotalekuak itxita jarraitzen du.

KINTADA

> **1974koek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 7an**

Agorrosinen egingo dute. Joan nahi duenak 30 euro sartu beharko ditu Kutxan (30350009170090083732). Izena emateko azken eguna da martxoaren 2a. Hitzordua egin dute 12:30ean, Pol-Polen.

KINTADA

> **1969an jaiotakoek kinto bazkaria martxoaren 7an**

Tartufon izango da. Izene-matea da hilaren 27ra arte, Deportivo tabernan, eta aurreratu behar dira 25 euro. Bazkari egunean, 12:00etan trikipotea hasiko dute Deportivon. 14:15ean talde argazkia egingo dute pilotalekuan eta urbanoa handik abiatuko da Tartufora, 14:30ean.

BERTSO AFARIA

> **Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi, Artatsen**

Urteroko bertso afaria egingo dute martxoaren 14an. Txartelak salgai daude Arrano, Pol-Pol eta Kortazarren. 24 euro da prezioa; 15 euro, ikasle eta langabeendako.


PLASTIKO BATZEA

> **Hilaren 24an batuko dute baserrian sortutako plastikoa**

Ohiko lekuetan laga beharko da, arratsalde. Batzelekua aldatu nahi izanez gero deitu 943 76 25 47 zenbakira.

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MUSIKA > ARATUSTEETAKO KONTZERTUA

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Kubara 'bidaiatuko' dute gaur

'Cuba 2x1' ikuskizuna eskainiko dute gaur, 22:30ean, Udal Pilotalekuan

Gaur gauekoa Aratusteetan egiten duten 21. kontzertua izango da

JASONE ZABALA > BERGARA

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua eskainiko dute gaur, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

Joan den urteko Aratusteetako *Mexico lindo* ikuskizuna.

GOIENKARIA

'CUBA 2X1'

Aurtengo ekitaldirako erabaki duten gaia Kuba da, eta *Cuba 2x1* deitu diote. Zuzendari lanetan Alfredo Gonzalez Chirlaque arituko da, eta hark adierazi digu gaia aukeratzeko orduan jantziaren erraztasunari begiratzen diotela: "Saiatzan gara gai erraza aukeratzan, musikariek egin behar dituztelako jantziak; gainera, Kuba, musika eta erritmoa esku-

tik doaz beti, baita kolore biziak ere. *2x1* bidaiak agentziek egiten dituzten eskaintzekin lotu dugu". Egitarauak bi zati izango ditu: lehenengo zatian, Udal Musika Bandak hiru lan eskainiko ditu: *Concert Prelude* (P. Sparke), *La isla de las perlas* (P. Sorozabal) eta *Aratusteetako dantzak* (Herrikoia). Azken horren barruan lau

izango dira eskainiko dituzten abestiak: *Pastelero*, *Galtzaundi*, *Iriyarena* eta *Praiskuarena*. Ondoren, Orkestra Sinfonikoak bi lan eskainiko ditu: *Juramento* (M. Matamoros) eta *Bachanale* (C. Saint-Saens). Ikuskizunaren bigarren zatia Udal Musika Bandak eta Orkestrak -Tropicana Orkestra- eskainiko dute, *Cuba 2x1*

ikuskizuna. Ikuskizunean, lau lan eskainiko dituzte: *Saba* (Herrikoia); *El camison de Pepa* (Compay Segundo); *Contigo Aprendi* (Armando Manzanero) eta laugarrena eta azkena, *Amor Narcotico* (Chichi Peralta). Eta, azken horretan, Bergarako areto dantza taldeko bederatzi bikote hartuko dute parte.

FUTBOLA > ERREGIONALA

Bergara Oriora joango da, hamaika puntuko aldearekin

Atzetik datozen taldeek kale egin zuten joan den astean; mahoneroek sendotu egin dute lidergoa

XABIER URTZELAI > BERGARA

Batzuetan hobeto jokatuta eta bestetan ez horren ondo, baina Bergarak (46) irabazi egiten ditu norgehiagoka ia guztiak -bakarra galdu dute-, eta atzetik datozen Mutrikuk (35) eta Zestoak (34) ezin diote erritmo horri eutsi. Joan den astean bistan geratu zen hori, Aretxabaletak (25) eta Ilinxak (25) ezustea eman zieten-eta bi talde horiei.

Asteburuan, preferentera bidean beste pauso bat eman gura dute Bergarako mutilek, Orio (25) mendean hartuta (domeka, 16:30, Mendibeltz).

BTLS-K ETXEAN GAUR

BTLS (23) taldeak, bestalde, joan den astean Azkoitian urrezko hiru puntu eskuratu eta gero Lazkao (21) hartuko du gaur Ipinza futbol zelaian (20:00).



Mahoneroek behin baino ez dute galdu; irudian, Cabanillas.

GOIENKARIA

> SASKIBALOIA
Asteburu biribilaren ostean, Soraluce BKE igoera fasea

Soraluce BKE saskibaloia taldeak igoera fasea jokatu du, eta datorren martitzenean egingo dute fase horretako zozketa.

Bergarak lehenengo itzuli biribila egin du, hamahiru partidua irabazi eta bi galdu. Gainera, joan den asteburuan bi partidua jokatu zituzten, eta biak irabazita lortu dute igoera fasean egotea.

> ESKUBALOIA
Soraluce BKEk jaitsiera postuak uxatu nahi ditu

Soraluce BKE eskubaloia taldeak Urrietaren kontra jokatu du bihar (17:00); datozen bost asteotan izango duten lehenengo finala, horrenbestez. Izan ere, atzetik zetozen taldeek alde txikitu dute, eta azken jardunaldietan mailari eusteko egin beharko dute lan.

> ARETO FUTBOLA
Aratusteak direla-eta asteburuan ez da jardunaldirik egongo

Labegaraietako areto futbol txapelketan atseden hartuko dute asteburuan, Aratusteak behar den moduan ospatzeko. Hain zuzen ere, taldeek hala eskatuta erabaki dute antolatzaileek oraingo asteburuko jardunaldia hurrengo astera atzeratzea.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



GAZTELY, S. A.
BURDINDEGIA

HORNIDURA INDUSTRIALAK

Mintegi kalea 1
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com



disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



***ONDO IBILI
INAUTERIETAN!***

**Agorrosin • Ariznoa • Avenida • Biko • Etxagi • Euxebio II
Frontoia • Iraho • Galway Irish pub • Kai • Kayak
Pol Pol • Sirimiri • Toki Ona • Usoa • Zapelaitz • Zunbeltz**

INAUTERIETAN EZ GAZ DANOK!



KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIETA



NATALE LANDA



ERREFUXIATUAK

ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Muxibar, Taupa eta Gure Leku.

OSPAKIZUNA > ARATUSTEAK

Mozorroen jaia hasteko gertu daude koadrilak eta gainerako herritarrak

Azken bi hilabeteotan Larrinben dagoen industrialdeko lokalean gertatutako mozorroak erakusteko gogoz daude batzuk eta ikusteko besteak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Txapel Txin mexikarrak aurreratu zigun joan zen zapatuan Aratusteetako giroaren berri eta dagoeneko mozorroari azken ukituak ematen dabilta koadrilak. Larrinben dagoen industrialdeko lokal baten elkartu dira azken bi hilabeteotan –Oskar Encinak utzitako lokala eta Udalak egokitutakoa– eta isilean ondo baino hobeto gorde dutena erakusteko eguna iristear daukate.

Hala, koadrilen kalejira (12:00) izango da goizeko ikusizunik arrakastatsuenak. Eta mozorrorik dotorenenak eta ikusgarrienak saria jasoko dute arratsalde-



Mozorrotutako koadrilak kalejiran, iaizko Aratuste-domekan.

M.A.

an (18:30). Urtero legez bi talde egingo dituzte sariok banatzeko: 16 urtetik gorakoena eta 16 urtetik beherakoena –bi taldeetan bosna sari–.

Herri bazkaria aurten Iturri-gorri frontoian da, eta 400 bat lagun elkartuko dira; eta bazkalostea girotzeko Nahima taldearekin dantzaldia izango dute.

MARTITZENA, UMEENDAKO Aratuste-martitzenean, ostera, ikastetxeetako umeek izango dute jaia (11:00). Herriko plazan elkartu eta kalejiran joango dira.

Egitaraua

22, domeka

10:00ak, txistulariekin diana.
12:00ak, koadrilen kalejira. Ibilbidea: Copreci lantegiko aparkalekua, Araba ibilbidea, Mitarte, Durana, Errekabarren, Andramari, Mitarte, Durana eta Herriko plaza.
12:30ak, Txino Dantza.
14:30ak, herri bazkaria Iturri-gorri frontoian.
16:00ak, dantzaldia Nahima taldearekin Iturri-gorri frontoian.
17:30ak, kalejira txarangarekin.
18:30ak, mozorro lehiaketaren sari banaketa.
19:00ak, Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.
22:00ak, Akelarre txarangarekin dantzaldia kalean..

24, martitzena

11:00ak, Mutil Gazteak txarangarekin kalejira.
16:00ak, txaranga Herriko plazan.
17:30ak, buruhandiekin kalejira.
18:00ak, euskal disko festa.
20:00ak, Txinen hiletza; Mitarte kaletik plazara komitiban.

oharrak

GAZTETXOAK

> **Izotz pistara joateko izenemate epea zabalik**

Gazteria Sailak izotz pistara irteera antolatu du martxoaren 1erako (15:30-19:45). 7-12 urte arteko gazteendako da eta izena ludotekan eman behar dute 6 euro ordainduta –azken eguna otsailak 26–.

IKASTAROA

> **Txalaparta ikastaroan izenemate epea zabalik**

Loramendi EEK txalaparta ikastaroa antolatu du. Hona egunak: martxoak 3, 10, 17 eta 24. Debalde da baina izena otsailaren 26rako eman behar dute interesatuek Loramendin (943 77 09 70).

IKASTAROA

> **Hitano ikastaroan izenemate epea zabalik**

Gaur, hilak 20, bukatzen da Loramendi EEK antolatutako hitano ikastaroan izenemate epea. Saiok izango dira: otsailak 26, martxoak 5 eta 12. Debalde.

GAZTETXOAK

> **Paint ball egitera irteera**

Atxagazte gaztelekuak irteera egingo du Bedoñako paint ball parkera otsailaren 28an. Izena gaztelekuan eman behar da eta 20 euro da.

AURREKONTUA > ARALAR

Inplikazioa eta lana gura ditu Aralarrek

Earen ekarpen bakarra ezinbestekoa den kirol etxeko proiektua zalantzan jartzea izan dela dio

M.A. > ARETXABALETAKO

Aralarrek Udala kudeatzeko duen era gogor kritikatu zuten joan den astean Aretxabaleko Eusko Alkartasuneko kideek, 2009ko aurrekontua onartu bezperan. Aralarrek, berriz, esandakoak gezurtatu gura ditu eta kontuak behar bezala argitu.

"Buruzagi espiritual" baten inposizio eta presioei Aralarrek ezezkia eman ziolako hautsi zuela EAK Udal Gobernuak diote Aralarrek. Eta ordutik hona Aralarren izena zikindu beste helbururik ez duela EAK. Jarra arduragabea egotzi diote EAri, eta, "hauteskunde bezperatan,

zalaparta atera eta aretxabaletarrei ziria sartu nahi diete, diskurtso nahasgarria erabilita".

JARRERA ARDURAGABEA

EAKo zinegotziek eskatzen duten Basotxo berria edo eraberritua, osasun etxe berria edo umeen parkeak babesteko proiektuak Gobernu programan jasota daudela diote Aralarrek, eta "ez direla EAKoen jabetzak".

Aralarko zinegotziek uste dute zentzugabekoa eta arduragabekoa dela EAren ardurapean egondako sailtako gastu korronteak zalantzan jartzea orain, "orain arte udaletxean egon izan ez balira moduan jokatuz eta duela bi hilabete arte ezelako gogotarik egin ez dutenean". Eta gaineratu dute lehen –gubernuan

zeudenean– balio zuten kontuek orain ordainezintasunera daramatela herria esaten dabilzala, aretxabaletarren artean ustezko alarma piztuz.

2009ko aurrekontuan 1,5 milioi euroko murrizketa proposatu arren ez dutela zehazten non eta zenbat diote Aralarrek, ezta herritarrei eskaintako zerbitzuen kalterako izango litzatekeen ere. Gaineratu dute ezinbestekoa den eta onartuta dagoen kirol instalakuntza proiektuaren beharra zalantzan jartzea izan dela ekarpen bakarra, "2.000 abonatuak gora ahaztuz". Bukatzeko, Aralarrek eskatu gura dio EAri umiltasun handiagoz jokatzeke eta aurrera begira eraikitzaileagoak eta kolaboratzaileagoak izateko.

SERRERIA ERRASTI S.L.

EGUR BILTEGIA

Taula aglomeratuak, D.M. melaminak

Mozte zerbitzua

Aurremarkoak eta aholzak

Egurrezko enbalajeak

Tel. 943 79 01 61 - 651 70 79 96
Araba ibilbidea, 7

ARETXABALETAKO

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

KULTURA > KONTZERTUAK

Liken eta Oskarbi taldeak gaur eta bihar

Talde aretxabaletarrak kontzertu akustikoa eskainiko du gaur eta Oskarbi, oster, folk musika dakar bihar

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Musikak tarte handia izan du otsailean Arkupen, eta aste bukeran kontzertu bi ditugu. Gaur (22:00) Liken talde aretxabaletarrak musika akustikoa eskainiko die herrikideei –debalde– eta bihar, zapatua (19:30), Pasaiaiko Oskarbi taldeak folk doinuak ekarriko ditu –8 euroren truke–.

Liken boskotea orain dela bost urte inguru sortu zuten eta Andoni Arana, Oier Sarasua, Iker Iglesias eta Aitor Ziardegi aretxabaletarrek eta Igor Herrarte arrasatearrek osatzen dute. Musika akustikoa egiten dute, pianoa, gitarra, baxua, klarineta eta perkusioa erabilita, eta 12 bat kantu eskaintzeko asmoa daukate: "Kantu gehienak instrumentalak izango dira, baina ahotsa ere sartuko dugu hainbate-



Liken taldea osatzen duten bost mutilak.

LIKEN

tan", argitu digu Andoni Aranak. Herrian emango duten bigarren kontzertua izango da.

OSKARBI, 43 URTEKO TALDEA

Oskarbi taldea 1966. urtean sortu zuten Pasaia inguruko hainbat gaztek. Eta 1966 eta 1980 bitar-

tean bizi izan zuen taldeak une gorena. Sasoi hartan Ez Dok Hamairu kolektiboan egon ziren lau urtez. Azken urteotan agerraldi gutxiago egiten dituzte, baina lanean jarraitzen dute. Euskal abestiak eta folk doinuak eskainiko dituzte bihar (19:30).

> OSPAKIZUNA

Alkartetxearen 22. urteurrena ospatuko dute Eusko Alkartasunekoek gaur, Iñaki Galdosekin

Eusko Alkartasunak herriko plazan daukan egoitzaren urteurrena ospatuko dute gaur, 18:30ean. Ekitaldian, Iñaki Galdos EAKo Gipuzkoako presidente eta Foru Aldundiko diputatuak berbaldia eskainiko du, beste kide batzuekin batera. Aretxabaletako alkate eta zinegotzi izandakoak elkartuko dira –bi alkate eta 12 zinegotzi– eta aretxabaletar guztiak gonbidatu gura dituzte ospakizun ekitaldira. Egunotan, gainera, kanpoko itxura berriku diote alkartetxeari: "Daukagun gogo eta ilusioaren adibide".

> LANAK

Espainiako Gobernuaren dirulaguntza deialdira aurkeztutako hiru proiektuak onartu egin dituzte

Udalak hiru proiektu aurkeztu zituen Espainiako Gobernuak eskainitako dirulaguntza egitaspora eta hirurak onartu dizkiote. Mitarte kaleko saneamendu eta berritze lanendako da diru gehien: 793.916,47 euro; Aozaratza auzoan egin gura duten bidearendako 303.420,78 euro izango dira; eta herriko farolak aldatzeko, 54.288 euro, energia-eraginkortasuna handitu eta argi-kutsadura murrizteko. Lan horien proiektuak eginda daude eta Mitarte kaleko lanak egiteko oinarriak onartuta ere bai, lehenbailehen hasteko.

> ERAKUSKETA


Namibian ateratako argazkiak jarri ditu ikusgai Iker Iglesiasek Bergarako Nahikari tabernan

Iker Iglesias musikari eta argazkilari aretxabaletarrak erakusketak jarri du Bergarako Nahikari tabernan –Masterreka kalea, 20–. 2008ko udan Namibiara (Afrika) egindako bidaiari atera zituen argazkiak dira ikusgai daudenak: bi elefanteren arteko borroka, Himba tribuko neska eta umeak, herrialde hartako errepideak eta beste hainbat daukate zintzilik tabernan. Otsaila bukatu bitartean egongo da erakusketa ikusgai, eta Afrika gustuko dutenek aparteko aukera daukate argazkiokin gozatzeko.

ONDO PASA ETA DISFRUTATU
aratusteak

EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkiGRAF.com



KONTZEJUPETIK

Urtarrileko osoko bilkuran onartu zuten lanak enkantera ateratzeko baldintza-zerrenda

Deialdia martitzenean kaleratu zuten GAOn eta lanak azaroaren 30erako bukatu beharko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Oñatiko Udalak Madrilgo Gobernuaren Estatu Fondotik jasoko duen diruarekin hiru proiektu egingo ditu. Hain zuzen, postetxe-ko autobus geltokia eraberritzeko, kanposantuko bidea konpontzeko eta Euskadi Etorbideko irisgarritasun lanak egiteko proiektuak. Horren harira, urtarrileko osoko bilkuran hiru proiektuetako lanak enkantera ateratzeko baldintza zerrendak onartu zituzten. Deialdiak Gipuz-

LANAK > MADRILGO GOBERNUAK EMANDAKO DIRUA

Apirilean hasiko dituzte autobus geltoki nagusia berritzeko lanak

koako Aldizkarian kaleratu ziren martitzenean. Lanak apirila aldera hasi gura dituzte eta azaroaren 30erako bukatu beharko dituzte.

Adjudikazioa egiteko orduan hiru irizpide hartuko dituzte kontuan: aurrekontua, langile berriak kontratatzeke enpresak duen gaitasuna (gutxienez sei langile) eta lanak bukatzeko epea errespetatzea.

ATZETIK AUERRERA
Goiko planoan ikus daitezke postetxe-ko autobus geltokian egingo dituzten aldaketak. Alde batetik, geltokia lekuz aldatuko dute: postetxearen aurrealdean jarriko dute. Alboan komunak jarriko dituzte. Bestea alde batetik, Guardia Zibilaren kuartelaren

aurreko gunean parkea eta jolas-lekua jarriko dituzte. Gainera, Ibarra aldera doan bidegorria pasako da bertatik.

BI BIRIBILGUNE
Bestalde, postetxe inguruko zirkulazioa hobetzeko bi biribilgune egingo dituzte, hain justu ere,

BESTE BI PROIEKTUAK

Kanposantuko bidea konponduko dute

Hainbat lan egingo dituzte kanposanturako bidean, besteak beste, egun dagoen horma konpondu egingo dute, eta errepide berria egingo dute. Ondoan, bizikletendako bidegorria eta espaloia egingo dituzte. Kanposantuko bidearen eta Ulma Handling enpresaren parean jolas-lekua egokituko dute.

Euskadi etorbideko irisgarritasun plana

Irisgarritasun planeko hirugarren fasea egiteko aprobeztatu dute Madrilgo Gobernuaren dirulaguntza. Hain zuzen ere, Euskadi Etorbideko eta Patruie kaleko oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte; besteak beste, espaloiak zabalduko dituzte. Gainera, bizikletendako eta oinezkoendako bidegorria egokituko dute.

Cegasa lantegiaren parean eta kanposanturako bidea hasten den tokian. Cegasaren pareko biribilgunea egingo dute autobusek bira hobeto egin dezaten. Kanposantuko bide hasierako bidegurutze arriskutsua berrantolatzeke egingo dute bigarren biribilgunea. Hain justu ere, zirkulazioa eta oinezkoen bideak egoki antolatu gura dituzte. Azkenik, tren zaharra dagoen parkea txukundu egingo dute.

AURREKONTUA
Udalak 1,9 milioi euro jasoko ditu Madrilgo Gobernutik: 720.000 euro postetxe-ko autobus geltokia berritzeko, 718.000 euro kanposantuko bidea konpontzeko, eta 467.000 euro Euskadi Etorbideko irisgarritasun planerako.

ZIRKULAZIOA > HAINBAT ALDAKETA

Zirkulazio aldaketa Auzabarri eta Arantzazu kaleen artean

Aldaketarekin, besteak beste, lehentasuna izango dute Arantzazu kaletik behera datozenek

M.B. > OÑATI
Hainbat aldaketa egin dituzte Arantzazu, Roke Azkune eta Auzabarri kaleetako zirkulazioan. Aldaketekin Arantzazu kaletik behera datozen autoek lehentasuna izango dute. Orain arte, stop seinalea errespetatu behar zuten gidariek Roke Azkune kalearen sarreran. Aldiz, Auzabarri eta Roke Azkune kaleetatik irtezen diren autoek stop seinalea izango dute.

SEINALE BERTIKALAK, JARRITA
Arantzazu kaletik Auzabarri kalera sartzeko errepidea bi noranzkoa da (orain arte noranzko bakarrekoa zen). Portalekua-ko biribilgunetik doazen autoek eskuinera hartzeko aukera dute Auzabarri kalera joateko.

Zirkulazio aldaketak duela aste batzuk sartu ziren indarrean. Seinale bertikalak jarri dituzte dagoeneko, eta datozen eguntan jarriko dituzte horizontalak.

oharrak

INGURUMEN ASTEA
> **Zuhaitz Eguna egingo dute domekan**

Ingurumen Astea bukatzeko Zuhaitz Eguna egingo dute domekan. 10:00etan plazan bilduko dira.

Bestalde, Jorge Gonzalez biologoak Euskal Herriko ugaztunen gaineko hitzaldia egingo du gaur, Natur Eskolan 19:00etan.

Bestalde, bihar, Urdaibai Biosferako Erreserbara egun osoko irteera egingo dute.

ARATUSTEAK
> **Lantz-eko dantzak eta antzerkiak, bihar eta etzi**

Eguerdian irtengo dira Oñatz taldeko kideak Lantz-eko dantzak eskaintzera kalerik

kale. 20:00etan amaiera ekitaldia egingo dute plazan. Domekan, Luzaideko dantzak egingo dituzte 18:30ean, plazan.

Bestalde, bi antzerki emanaldi egingo dituzte aste bukeran. Alde batetik, Glu-Glu taldeak *Maldito Parné* antzezlanaren eskainiko du gaur Santa Ana aretoan, 22:30ean. Beste alde batetik, Teatro Paraiso taldeak haurrentzako *Bremengo musikariak* lana egingo du. Hain justu ere, bihar 17:00etan. Bi emanaldietarako sarrerak salgai daude kultura etxean.

MUSIKA
> **Musika Bandaren kontzertua**
Domekan, 12:30ean egingo du Udala Musika Bandak kontzertua, Santa Ana antzokian.

> **ARATUSTEAK**
Ikastolan aratusteak ospatuko dituzte gaur arratsaldean

Txantxiku ikastolan aratusteak ospatuko dituzte gaur arratsaldean. Haur hezkuntzako ikasleek lanbide ezberdinetako mozorroak egin dituzte gelan. Bestalde, Lehen Hezkuntzakoak hippy mozorrotuko dira. D.B.H.ko Lehen eta Bigarren mailetak ikasleek nobre mozorroa erango dute. Haur Hezkuntzako ikasleak jolas-lekuan eta kiroldegian egongo dira 14:30etik 16:30era. Bestalde, Lehen Hezkuntzakoak kale-rik kale ibiliko dira dantzan. Eskola bukeran, 16:30etik 18:00etara, jolas-lekuan jaiak ospatuko dute.



Luis Ezeizako su-detektagailuaren instalazioa hobetuko dute.

ARGAZKIAK: MIRIAN BITERI



Olaetako frontoia estaliko dute



Aranburuzabala-Arana konponduko dute

UDALA > 2009KO INBERTSIOAK

Espainiako Gobernuak Udalaren proiektu guztiak onartu ditu

Argitaratutako zerrendan akats bat dago hainbat Elizateetako ur sarea konpontzeko proiektuan

Guztira, Tokiko Inbertsiotarako Estatuko Fondoen harira 700.250 euro jasoko ditu Udalak

San Juan auzoko atzealdeko kaleko hainbat zati berriro urbanizatzeko 227.000 euro emango ditu

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsiotarako Estatuko Fondoen kontura Udalak aurkeztutako hamar proiektuak onartu ditu asteon. Baina, Pedro Lasagabaster alkateak jakinarazi du proiektu bateko aurrekontua txarto dagoela eta horren erreklamazioa egingo dutela.

Bolibar, Eraña, Mendiola eta Lete auzoetarako edateko ur hornidura sarea hobetzeko Espainiako Estatuak 38.843 euro aurre-

kontua aurreikusi du. Udalak, baina, 52.146 euro eskatu ditu esandako proiektua garatzeko. Gobernuak Eskoriatzarako 700.250 euro gorde baditu ere, argitaratutako egitasmoen aurrekontua 687.210 euroka da.

Partida esanguratsua San Pedro auzorako aurreikusi dute: 227.708 euro. Hainbat zati berriro urbanizatuko dituzte, zoladura eta zerbitzu sareak berrituz eta auzoaren eta kiroldegiko plaza-aren arteko irisgarritasuna hobe-

tzeko arrapala jarritz. Aranburuzabala-Arana kaleetako asfaltatzeko lanek, bestalde, 140.717 euro balioko dute; eta Olaeta auzoko frontoia estaltzeko 125.861 euro.

Elizateetarako ere hainbat proiektu aurreikusi dira; esaterako, Zarimuzko Mendibe eta Urubil-Buruntzako baserrien arteko bidean hormigoia botatzeko.

87 PROPOSAMEN

Udalak aurkeztutako hamar egitasmoetatik, asko herritarrek proposatutakoak dira. Jakina denez, estatuko fondoetarako laguntza iragarri zenean, Udalak herritarrei proposamenak eskatu zizkien; 87 proposamen aurkeztu dira. Udalak eskerrak eman du, parte hartzea eta inplikazioa "handia" izan delako eta aurkeztu diren egitasmoen artean zenbait "oso interesgarriak" direlako.

Jakinarazi du aukeratu ez diren proposamenekin zer egin aztertu duela. Batzuk aurtengo aurrekontu arruntaren bidez

gingo dira; esaterako, kiroldegian ile lehorgailuak jartzea eta Hidalgo kaleak San Juan kalera eta Dorleta alderantz duen irteera hobetzea. Beste egitasmo batzuk iaz onartu ziren, eta, beraz, Udalak azaldu du laster hasiko direla horiek egiten, hala nola skate parkea eta Jose Arana ikastolan oinezkoendako zubia.

Argitaratutako egitasmoak

San Pedro auzoko hainbat zati berriro urbanizatzea.

227.708 €

Aranburuzabala-Arana kaleetako zoladura eta azaleko asfaltoa hobetzea.

140.717 €

Olaeta auzoko pilotalekua estaltzea

125.861 €

Zarimuzko Mendibe eta Urubil-Buruntzako baserrien arteko bidean hormigoia bota.

41.149 €

Bolibar, Eraña, Mendiola eta Lete auzoetarako edateko ur-hornidura sarea hobetu.

38.843 €

Lete eta Eraña auzoen arteko bidean hormigoia bota.

38.843 €

Santa Anako 19. zenbakiko udal etxea birgaitzea.

36.184 €

Txistulari Arratea plaza birgaitzea.

20.556 €

Kulunka haurtzaindegia eta udal liburutegiko teilatuak konpontzea.

14.594 €

Luis Ezeiza su-detektagailuaren instalazioa hobetzea.

2.755 €

GUZTIRA 687.210 €

ARATUSTEAK

Mozorroak ludotekan eta gaztelekuan

M.B. > ESKORIATZA

Datozen egunotan mozorroak izango dira protagonista nagusiak herrian. Jantzi koloredunak edozein tokitan ikusiko ditugu, baita Tortolis ludotekan eta gaztelekuan ere. Lehenengoan gaur, egubakoitza, mozorrotuko dira. 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei Aratuste jaialdia egingo dute, 18:00etan.

Gaztelekuan, berriz, zapatuan ospatuko dute. Lokala 19:00etan irekiko dute, herriko kaleetan zehar mozorroen desfilea amaitzen denean. Azken hori Udal Pilotalekutik abiatuko da, 18:00etan. Jakina denez, aurten, bigarrenez, mozorro lehiaketa antolatuko dute herrian.

GAZTELEKUA, 23:00AK ARTE

Ekimen interesgarriak antolatuko dituzte gaztelekuan. Hala, 20:00etan afari-merienda egingo dute eta 21:30etik 23:00etara bitartean gazteek jokoak eta musika izango dituzte.

oharrak

KIROLA

> Frantziara eski irteera antolatu dute otsailaren 28rako

Eskoriatzako kirol elkar-teak otsailaren 28ko eta martxoaren 1eko aste bukaerarako eski irteera antolatu du Luz Ardidenera. Astelehenean, hilak 23, amaituko da izena emateko epea. Namaste belarrendan edo 943 71 43 27 telefono zenbakian eman daiteke.

ONA TXARTELA

> ONA txartela astean hirutan egin ahal izango da KZgunean

Hiru egunera murriztu dute ONA txartela KZgunean ateratzeko aukera otsailean; hain zuzen, martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan, 10:30etik 13:00etara.

ERRETIRATUAK

> Otsailaren 9tik 28ra urteko kuota ordaindu behar dute

Olazar erretiratuen elkar-teko kuota ordain daiteke hilaren 28ra arte. Erretiratuek sei euro ordaindu beharko dituzte elkar-tearen bulegoan, 11:00etatik 12:30era.

TASAK

> Martxoaren 2ra arte ordain daiteke ur eta estolderia tasa

Iazko laugarren hiruhilabeteko estolderia eta ur hornikuntza tasa martxoaren 2ra arte ordain daiteke.

Frutería MARTIN Frutería

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA
San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

Villar

Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



Herriko plazan elkartu ziren guztiak txistorra jateko.

TXOMIN MADINA

UMEAK > IPUIN KONTALARIA

Giza baloreen gaineko ipuin kontaketa egongo da eguenean

Vanesa Gonzalez Aratuste eta giza baloreen gaineko ipuinak kontatuko dizkie lau urtetik gorako umeei herriko liburutegian, 18:00etan



Vanesa Gonzalez lehenengo aldiz egongo da herriko liburutegian.

GOIENKARIA

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Hilero moduan, datorren eguenean, hilak 26, ipuin kontaketa egongo da udal liburutegian. Lau urtetik gorakoendako emanaldia izango da oraingoa. Vanesa Gonzalez Moya kontalari arrasatearrak etxeko txikiak ipuinen mundu magikoan murgilduko ditu, 18:00etan. Betiko moduan, horretarako sarrera librea izango da.

Vanesa Gonzalezekin egon gara egun horretarako dituen asmoak ezagutzeko. Jakinarazi digu lehenengo aldia dela Eskoriatzako liburutegira joaten dela eta gutxienez bi ipuin kontatuko dituela: "Umeek duten jarreraren arabera, gehiago izan daitezke".

Datozen egunotan Aratustek izango direla kontuan hartuta, horietako bat gai horrekin

lotuta joango dela azaldu digu. Bestean, berriz, giza baloreei emango die lehenengo aldia: "Adiskidetasuna bezalako giza baloreari garrantzi handia ematen diot eta hori umei barneratzen saiatzen naiz"

15-20 MINUTUKO IPUINAK

Ipuin bakoitzak, normalean, hamabost eta hogei minutu artean irauten duela dio. Horren hari-

ra, azaldu du hasieran sarrera-txoa egiten duela eta ondoren, haurrek parte hartzen saiatzen dela: "Entzule moduan bakarrik aritu beharrean, parte hartzera animatzen ditut; modu horretan, samurragoa da eta euren arreta mantentzea".

Vanesa Gonzalezek ipuin kontalari moduan eskarmentu handia du; hamabost bat urte daromatza mundu horretan.

ARATUSTEAK > URDELARDERO EGUNA

Etxeko txikiak ziriak eskuan zituztela kalejira egin zuten atzo goizean

T. MADINA - M. BITERI > ESKORIATZA

Urdelardero egunarekin hasiera eman zioten atzo Aratusteei herrian. Antzinako ohitura bati jarraituz, ehunka ume ibili ziren goizean kalez kale Urdelardero eguneko kantua abesten, base-rritarrez jantzita eta ziria izeneko makilatxoak eskuan zutela. Horretan denetarik zuten jarrita. Haur gehienek, txorizoa, ogi zatia edo sagarra eramaten zuten barruan; baina, batzuek hain klasikoak ez diren produktuak ere bazituzten.

Ume gehienek ondo ikasita zuten esandako kantua eta ondorioz, sari moduan, etxeetatik gozokiak eta bestelakoak bota zizkieten.

TXISTORRA PLAZAN

Urtero bezala, jarraian, plazan elkartu ziren ikasleak, irakasleak eta baita guraso asko ere, txistorra gozoa jateko. Arratsaldean, berriz, Hipo eta Tomax pailazoekin sukaldean sartzeko aukera izan zuten umeak. Aratusteak hemen daude.



GUREA

Gora Inauteriak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

oharrak

IKASTAROA

> Zoru pelbikoa

Bideberri mankomunitateak ikastaroa antolatatu du zoru pelbikoa indartzearen gainean. Martxoaren 5ean hasita, eguenero 19:00etatik 20:30era izango da Orlanen. Izena emateko udaletxera jo behar da eta 30 euro ordaindu.

MUSIKA

> Kontzertua Mox tabernan

Gaur, otsailak 20, kontzertua izango da Mox tabernan 23:00etan. Antzuolako Los viernes al ron bakarlariak jardungo du lehenengo eta gero Klakson taldeak.

IPIIN KONTAKETA

> Pello Añorga

Eguaztenean, otsailaren 25ean, Pello Añorga izango da 17:30ean liburutegian ipuinak kontatzen.

JAIK > INAUTERIAK

Oinarinekoek zazpi dantza egingo dituzte

Luzaideko esku dantza, La Raspa, Gorulari, Kaskarrotz, Bertzijana, Txantxoak eta sorgin-dantza dantzatu dituzte domekan plazan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Inauteri-domekako ospakizunak egingo dituzte otsailaren 22an Oinarin dantza taldekoek, herri-tar batzuk lagun dituztela.

Goizean, hamarrak aldera abiatuta, bi taldetan banatu eta talde bat plazatik gora joango da

eta bestea behera. Herriko kale-etan dantzan ibili ostean, plazan bat egin eta han eskainiko dute dantzaldia, 12:30ean.

Umeek ekingo diote ikuskizunari eta 50 neska-mutiko inguruk lau dantza egingo dituzte: Luzaideko esku dantza, La Raspa, Goru-

lari eta Kaskarrotz. Dantza taldeko neskek, herriko hainbat emakume lagun dituztela, Bertzijana eta Txantxoak dantzatu dituzte plazan; haiek 20 izango dira, gutxi gorabehera.

SORGIN-DANTZA MUTILEK

Azkenik, ohikoa den moduan, dantza taldeko mutilek eta herriko beste zenbait mutilek -12 gutira- Sorgin-dantza egingo dute. Antzuolako da dantza hori eta berreskuratu zutenetik urtero egin dute Inauterietan. Domekako jai horretan hutsik egiten ez dutenak beste hiru pertsonaia dira, dantzariekin batera joaten direnak: *hartza*, *domadorea* eta *tximinoa*.

Plazako saioaren ondoren, dantzariak bazkaria egingo dute 14:00etan Olalde elkartearen eta iluntzera arte luzatuko dute jaiak.

Eta Inauterietako beste ospakizunik ere izango da: martitzenean, otsailaren 24an, erretiratuek merienda egingo dute Landaxoeko elkartearen.

bere ustez



Iraia Gabilondo

Arrazoiak milaka; esperantzarik?

H auteskundeak gainean ditugu. Urte osoko sentipena dela iruditzen zait, baina oraingoan horrela da. Herriarrok demokrazia delako honetan gure iritzia emateko ordua. Sufragio unibertsala. Gertatzen dena da hori bermatu beharko lukeen sistemak hori oztopatzen duela. Ideia guztiak plazaratzea gaur egun ezinezkoa da.

Modu egokian funtzionatzen ez duen sistema aldatzea, edo gutxienez, horri buruzko eztabaida sendoak

Iñaki Gurrutxaga > Bertsolaria

"Nahi dugu ikastaroa 16 urtetik gorako Antzuolako bertsozaleen bilgunea izatea"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Herrian aspaldian eskaria bazela sumatuta bertso ikastaroa antolatu du Udalak. Martxoan hasiko dira saioak; Iñaki Gurrutxaga bertsolari oriotarra izango da irakaslea eta bertsoarekiko jakin-mina edo zale-tasuna nahiz bertsoaren inguruko giroa gustuko duen adin eta era guztietako jendea animatu nahi du lagun artean bertsoez gozatzera.

Nolatan bertso ikastaroa Antzuolan?

Aurrez ere egin da ikastarorik eta oraingoa izan liteke lehen ibilitakoek jarraitzeko edo beste batzuek. Denendako dago zabalik. Programa gertatuta daukagu, baina oso malgua da, biltzen den jendearen arabera egokitzen. Oinarizko ezagutzetatik bat-bateko jardunera arte zabal liteke. Bertsoarako lagunarte atsegina bilatu eta hitzaren jolas eginez gozatu nahi duen guztiak du lekua.



Aurrez ere eman ditu bertso eskolak Iñaki Gurrutxagak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zer erakutsiko duzu?

Asmoa denetarik ikustea da: bertsoaritzaren historia (bertso idatzien bitartez), bertso teknikaren oinarizko ezagutza, gaitzaila kontuan ere lehenengo pausoak emango ditugu, doinuak

ikasi... Batik bat, produkzioari emango diogu garrantzia. Aurrera dezaket, esaterako, bertso-afari batekin bukatzeko asmoa dugu, eta ikastaroan parte hartuko dutenek eurek ipinitako gaiak izango dira han.

Bestalde, nahi izan dugu ikastaroa luzeegia ez izatea, gehiegi luzatzen den ikastarora jendea nekezago hurbiltzen baita. Dena dela, ikastaroa amaituta jendea gogoz geratuz gero, urte osoko bertso-taldea osatzeko aukera dago.

Zeinendako ikastaroa da?

Bertsoa gustuko duen edozeinendako. Ez genuke nahi inor lekuz kanpo sentituko den beldurragatik ez etortzea. Nahi dugu 16 urtetik gorako Antzuolako bertsozaleen bilgunea izan dadila.

Antzuolan bada zaletasunik?

Nik ikusi dudana apurragatik Antzuola herri bertsozalea da. Gainera, azkenaldian herrikeri eskari nahikoa izan da bertso-saioen antolaketari dagokionez. Joan den urtean izan den bertso-saio mordoxxa da horren adibide. Bertso-saio hauetara hurbildu dena ere, zalantzarik gabe, etor daiteke ikastarora.

"Funtzionatzen ez duen sistema aldatzea ideiak gauzatu ezin dituenari dagokio?"

egitea, arrazoizkoena iruditzen zait. Baina nori dagokio horren sustapena? Ideiak gauzatu ezin dituenari soilik? Sistemako parte diren guztiei?

Nik argi daukat, sistema berak oinarritzat jotzen dituen kontzeptuak gauzatzeko gai ez bada, sintoma nahikoa dela hori osasuntsu ez dagoela ikusteko, eta beraz, guztion arazoa dela hori konpontzen saiatzea. Bere ideiak plazaratu ezin dituenak derri-gorrez bide hori jorratu beharko du, bere ideia politikoek bere horretan galtzeko arriskua dutelako, baina ez dagokio berari soilik kakaztutako guztia konpontzea. Konponketarako arrazoiak badira, baina ba al da konponduko den esperantzarik?

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

ARATUSTEAK > OSPAKIZUNAK GAUR

Eskolako umeek gaur egingo dute Aratusteetako desfilea

Desfilea 15:15ean izango da; gauerako herri afaria antolatu dute gaztetxeok eta gauean kontzertuak egingo dira

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hemen dira Aratusteak eta askok prest dituzte mozorroak. Gaur arratsaldetik aurrera aterako dira mozorro horiek guztiak kale-ara. Lehenengoak pauso hori ematen Herri Eskolako umeak izango dira. 15:15ean hasita mozorro desfilea egingo dute herriko kaleetan barrena. Eskolatik irten eta Domingo Iturbe kalerantz egingo dute. Kantoikuan buelta eman eta San Roke kaletik behera plazara iritsiko dira. Mexikarrak, errusiarrak, brasildarrak eta



Ludotekan sarritan margotu dute aurpegia asteen.

MIREIA BERRIOZABAL

eskoziarrak ikusiko ditugu desfile horretan. Munduko musikak aukeratu dituzte aurten eskola-koek Aratusteetarako eta Herriko Plazan, egunotan ikasitako

kantuak eta dantzak erakutsiko dituzte desfilea amaitutakoan.

Jarraian, eta Udalak antolatu, *Altzorraren bila* jokoa egingo dute leku berean, 16:15ean

hasita. Maala guraso elkartearen eskutik txokolate-jana egingo da eta arratsaldea borobiltzeko Udalak buruhandiak ipiniko ditu. Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi horiek guztiak Espaloian egingo direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Azkenik, 19:00etan hasita, gaztetxoendako disko-festa antolatu du Udalak Espaloian. Ama Lur taldeak egingo du dantzaldi hori. Herriko ume guztiak daude bertan parte hartzeraz gonbidatuta.

HERRI AFARIA ETA KONTZERTUAK

Gauerako, berriz, herri afaria antolatu dute gaztetxeok. Marokoar menua prestatuko dute eta lerrook idazterakoan 18 lagun zeuden izena emanda.

Afariaren ostean eta Aratuste-gaua girotzeko kontzertuak egingo dira gaztetxean. Besteak beste, Trapatoni Circus Band taldeak egingo du emanaldia.

HITZORDUAK

Aste Berdea egingo dute martxoaren 2tik aurrera

L.Z. > ELGETA

Martxoaren 2tik 8ra Aste Berdea egingo dute eskolako umeek. Iaz bezala ura hartuko dute ardatz eta, besteak beste, egingo dituzte ur jolasak, herriko iturrien inguruko ibilbidea eta irteera Zaldibiako Ur Interpretazio Gunera.

Elgetako Udalak Herri Eskolarekin lankidetzan bigarren aldiz bultzatzen duen ekimena da honakoa. Aurreko edizioan egin zen moduan, uraren erabilera arduratsua bultzatzea da ekimenaren helburu nagusia. Hala, aurtien ere eko-erreduktoreak edo txorrotak banatuko dituzte eskolako umeek herritarren artean. Martxoaren 5ean izango da hori. Eskolan gaiaren inguruan egindako lanak ere kalera aterako dituzte.

PODOLOGOAREN KONTSULTA

Erretiratuen elkartetik jakinarazi dute podologoaren otsaileko kontsulta hilaren 26an, eguena, izango dela. 15:00etan zabalduko du kontsulta eta ez ditu 22 bezero baino gehiago hartuko. Txanda hartzeko Nati Arrietari deitu behar zaio: 943 76 80 77.

Hamaika domina ekarri dituzte Andoaindik

Elgetako musika irakasle Lorea Larrañaga pozik agertu da aste bukaeran ikasleek Andoaingo piano jaialdian egindako lanarekin. Elgetako ikasleek bederatzi domina ekarri dituzte: bost zilarrezkoak eta lau brontzezkoak. Bergaran diharduen Maitena Mañarikua urrezko domina eskuratu du eta Iñaki Berstainek zilarrezkoa.



IBAN ARANTZABAL

frontenis txapelketa

Lehia piztu da frontenis txapelketan

Ez dago txantxarrik Elgetako I. frontenis txapelketan. Gizonezkoetan hamar bikotek dihardute nor baino nor gehiago eta oraingoz bi dira nagusi sailkapenean: Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi bikotea alde bate-tik eta Asier Morales-Asier Osoro bikotea bestetik.

Emakumezkoen txapelketan, berriz, zortzi bikotek dihardute lehian. Oraingoz, Garbiñe Sarasqueta eta Idoia Elkoro dira nagusi. Bi norgehiagoka jokatu dituzte eta biak irabazi dituzte.

EMAITZAK

Josu Urizar-Jabier Gamarra / Oskar Sarasua-Roberto Mora	15-25
M. Carmen Salas-Izaskun Ojanguren / Nagore Morales-Janire Lazkano	14-25
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Jose Monterroso-Anton Pierruges	25-06
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas / Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi	11-25
Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera / Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa	25-13
Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasqueta / Nagore Ojanguren-Idoia Serna	25-22
Oskar Sarasua-Roberto Mora / Mikel Arkarazo-Josu Olasolo	17-25
A. Gorosabel-I. Untzetabarrenetxea / Josu Arantzabal-F. Zenitagoia	12-25
Asier Morales-Asier Osoro / Josu Urizar-Jabier Gamarra	25-13

PARTIDUAK

Zapatua, otsailak 21. Ordua: 18:30

Josu Urizar-Jabier Gamarra / Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi
M. Carmen Salas-Izaskun Ojanguren / Amaia Iribar-Alizia Gartzia
Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasqueta / Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas / Ander Gorosabel-Ibon Untzetabarrenetxea

Domeka, otsailak 22. Ordua: 11:00

Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera / Nagore Morales-Janire Lazkano
Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa / Nagore Ojanguren-Idoia Serna
Oskar Sarasua-Roberto Mora / Fernando Zenitagoia-Josu Arantzabal
Mikel Arkarazo-Josu Olasolo / Jose Monterroso - Antton Pierruges
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Asier Morales-Asier Osoro

UDALA

Alkateari gardentasunik eza egotzi diote


Erostarbek interes elektoralistak salatu ditu EAJ-Earen kritiken ostean

L.Z. > ELGETA

Elgetako EAJ-Earen eskutik jakin dugu asteen Bilboko epaitegi batek 56.670 euro ordaintzera kondenatu duela Elgetako Udala, duela urtebete Alberto Olalde udal apa-jadorea kaleratzeagatik. "Alkateak hiru hilabetez ezkutatu du erabakia elgetarren, oposizioaren eta EAE-ko zinegotzien aurrean", salatu dute EAJ-Eatik. "Oxel Erostarbek lau haizetara zabaldu du politikan gardentasunaren beharra (...), hemen dugu horren erakusle garbia (...) eta alkatearen benetako aurpegia".

ALKATEAREN ERANTZUNA

Oxel Erostarbe alkateak onartu egin du Udalak apa-jadore zerbitzuaren gaineko lehenengo auzia galdu izana, baita hilabeteak direla horren berri jaso zutela. Argitu du, baina, Udalak errekurtsioa aurkeztu duela erabaki horren aurrean. "Onartzen dugu lehenengo epaiketako emaitza eta errekurtsioa egitearen gainean gaizkiuler-tuak egon direla. Gaizki uler-tu horren berri izan dugun momentuan egoera argitu nahi izan dugu. Auziaren gaineko txosten osoa prozesuaren hasieratik ikusgai izan dute eta aurrerantzean ere ikusgai izango dute zinegotzi guztiek. Batzuek Elgetaren interesen alde dihardugun bitartean, beste batzuk udal hauteskundeak galtzearen amorruekin itsututa edozer eta edonon esateko gai dira. Oposizioak Elgetaren kalte diharduen bitartean, auzia bideratzeko lanean jarraituko dugu".



Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

EUSKARA > KALE ERABILERAREN NEURKETA


Gazteetan beherakada handia izan du euskararen erabilerak

Euskara batzordea oso arduratuta dago neurketaren emaitzekin

Gazteetan izan du beherakada handien euskararen erabilerak: %81etik %32ra pasa da zazpi urtean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraren neurketa egin zuen 2008. urtearen amaieran Aramaion. Azterketa horren emaitzak honakoa dio: Aramaion kalean entzundako elkarrizketen %56,2 izan ziren euskaraz. Datu hori 2003an egin dako azterketarekin alderatzen badugu, beherakada nabarmena izan da, orain dela bost urte elkarrizketen %61,9 izan ziren-eta euskaraz. 2001ean ere beste neurketa bat egin zen eta orduan %65,4k erabili zuten euskara. Tendentzia, beraz, beheranzkoa da eta horrek asko arduratzen du Udaleko Euskara batzordea.

GAZTEEK GAZTELERARA JO DUTE
Dena dela, gazteetan euskararen erabilerak izan duen beherakada ikusgarria da. Gazteek berba egiten dugunean 14 eta 25 urte bitarteko herritarrez ari gara. Adin tarte horretan, esan bezala, era-



bilerak sekulako beherakada izan du: 2001ean %81ek erabiltzen zuten euskara eta gaur egun, berriz, %32k. Helduetan ere behera egin du euskararen erabilerak: %60,9tik %45,6ra.

"Oso arduratuta gaude. Badi-rudi orain arteko mitoa apurtu

egin dela. Beti esan izan da Aramaio Arabako herri euskaldunena dela. Uste dugu jende askok hori erabiltzen duela aitzakia moduan gaztekerara pasatzeko. Gainera, hausnarketa egin beharko dugu. Gazteek zeinen eredu jarraitzen dute?", azaldu du Rosa Mondrago-

nek, Euskara teknikariak. Euskara batzordeak 2009rako euskara sustatzeko akzio plana landu du. Dena dela, azken neurketa horren datuak jakin ostean azaldu dute herriko gazteekin esfortzu berezia egin beharko dutela egoerari buelta emateko.

Eskolako umeei itsasoa ekarriko dute aurten Aramaiora

San Martin eskolako umeei, azken egunotan, Aratusteetarako mozorroa prestatzen jardun dute buru-belarri. Miraria egingo dute aurten eskolako gaztetxoek: itsasoa ekarriko dute Aramaiora. Hain justu ere, itsasoa da aurtengo mozorroetarako aukeratutako gaia; piratak, medusak, arrantzaleak, pinguinak, urpekariak eta olatuak ikusi ahal izango dira Aramaion Aratuste-martitzenean herriko kaleetan. 14:15ean iritsiko dira guztiak herriko plazara.



SAN MARTIN ESKOLA

> KULTURA Txistulari taldea osatu nahi du Udaleko Kultura batzordeak

Aramaioko txistulari taldea sortu nahi du Udaleko Kultura batzordeak. Hau da, orain artekoa hobeto antolatu nahi dute eta presentzia handiagoa eman herriko jailetan eta kultura ekitaldietan. Horretarako, baina, herriko txistularien laguntza behar du Udalak eta bilera egiteko deialdia egin dute datorren egunerako, hilaren 26rako; kultura etxean izango da, 19:30ean. "Txistulari talde sendoa sortu nahi dugu; izan ere, herrian baditugu txistulariak. Horrek ez du esan nahi orain artekoak alde batera utziko ditugunik, ezta gutxiago ere. Taldea indartzea da asmoa", dio Ainara Inuntziaga zinegotziak.

> LAN ESKAINTZA Aramaioko Argindar Banatzaileak langilea behar du

Aramaioko Argindar Banatzaile SA enpresak administrazio orokorrerako teknika-ria behar du jardunaldi erdirako. Lanpostua bete ahal izateko honakoa eskatzen da: sistema ofimatikoak eta azpiegitura teknologikoak erabiltzeko gaitasuna, legeen eta zergen obligazioak betetzeko beharrezko ezagutza eta negoziazio tekniken ezagutza, besteak beste. Horretaz gain, enpresak kontuan izango du euskara maila ona eta antzeko lanetan esperientzia izatea. Profilaren araberrako kontratua izango da eta ordutegiak eta egutegia malgua izango dira. Curriculumak martxoaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

> ZINEMA 'Nire munstroa eta ni' filma emango dute etzi, domekan

Aramaioko txikitxoek hitzordua daukate zinemarekin domeka honetan ere. Kultura etxean *Nire munstroa eta ni* filma eskainiko dute domekan, 17:00etan.

Angus mutiko bakartiak arrautza handi eta misterioitsu bat aurkitu du Ness lakuaren ertzean. Laster konturatuko da arrautzatik jaio den biziduna itsas zaldi bat dela, laku ospetsu horretako izakirik misterioitsuena. Hala ere, zaldiaren tamaina egunetik egunera hamar bider haziko da, eta, hori horrela, Angus berehala konturatuko da ezingo duela bere lagun berriaren sekretua luzaroan gorde.

Martxoaren 7an egingo du bazkaria, urtero legez Gure Ametsan

Dagoeneko 22 urte bete ditu elkarteak eta indartsu dirau oraindik

Emakumeen gaineko erakusketa egiteko argazki bila dabil Udala

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Nazioarteko Eguna gertatzen hasi dira *sorginak* Gatzagan. Eta aurreko urteetan legez bazkaria eginda ospatuko dute martxoaren 8a. Bazkaria, baina zapatuan izango da, martxoak 7, eta ohitura ez galtzeko Gure Ametsa jatetxean egingo dute. Izena emateko epea zabalik daukate Labidea dendan.

EMAKUME GUZTIAK ELKARTZEA

Sorginak Emakume Elkarteak 22. urteurrena ospatuko du Emakumeen Nazioarteko Egunean. 1987an hasi zuen ibilbidea hain urruti ailegatuko zenik askok ez zuten pentsatuko –halako herri txikian gainera– baina oraindik bizirik eta indartsu diraute. Horregatik hain zuzen, emakumeen artean sortutako giroari eta harremanei eusteko, herriko emakume gehienak elkartzea dute helburu aurten. Jateko ederra bermatuta dagoela diote antolatzaileek eta bazkalostean giro



Sorginak Emakume Elkarteak iaz egin zuen bazkaria, Gure Ametsa jatetxean.

M.A.

EMAKUMEA > MARTXOAREN 8A

Bazkaria egingo du Sorginak, emakume gehienak elkartzuta

bikaina ere bai: trikitilariak dantzari egiteko eta isuskien zozketa, sorginetan sorginenei emateko. Izenak Labidea dendan jasoko dituzte aste guztian, hilaren 28a da azken eguna.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Gizarte Zerbitzuak, bestalde, emakumeen gaineko argazki erakusketa antolatu guran dabil. Herriarren laguntza behar du horretarako etxean gordetako

argazkiak jaso gura dituztelako, beti ere emakumea protagonista dela. Argazkiok udaletxera eron behar dira –eskaneatu eta jabeari itzuliko dizkiote–, eta azken eguna astelehena da, hilak 23.

Erakusketa txukuna egiteko behar beste argazki elkartzuz gero, martxoaren 8aren bueltan jarriko dute ikusgai –data zehatza erabaki barik daukate–, eta hainbat astetan egingo da zabalik.

OSPAKIZUNA > INAUTERI-ZAPATUA

Ume eta heldu, mozorroak gertu

Umeek eta gazteek jolasak egingo dituzte bihar arratsaldean Gurelekin; gero herria afaria guztiendako

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Inauteriak bertan ditugu eta gatzagarrek gertu dituzte mozorroak bihar arratsalderako. Inauteri-zapatuko egitaraua ez da luzea baina herritarrek behar bezala girotuko dituzte Udalak antolatutako ekitaldiok.

JOLASAK ETA HERRI AFARIA

Gurel guraso elkarteak antolatutako jolasak egingo dituzte umeek eta 12 urte arteko gaztetxoek pilotalekuan (16:30). Jinkana erako jolasak izango dira, hau da, probak gaintu beharra, eta proba bakoitzeko txartelak emango dizkiote taldeei. Txartel guztiekin zozketa egingo dute gero eta sariak banatu. Eta jolasak bukatu eta ilunkarako hotza uxatze-ko txokolate beroa izango dute.



Neska-mutikoak mozorrotuta jolasak egiten pilotalekuan, iaz.

M.A.

Ilunkarekin batera helduak ere mozorrotuta agertuko dira eta afarirako gertatuta (21:30). Urtero legez Garro jauregian izango da herri afaria. Hona menua heldu zein umeendako: urdaiazpikoa eta beste hainbat jaki, oilaskoa entsaladarekin eta ijito besoa izozkiarekin.

Afalostea, osteria, Kuluxka taldeak girotuko die eta goizaldera arte dantzan jarduteko aukera izango dute. Ainara Zubillaga kultura zinegotziak iaz beste herritar elkartzea gurako luke afarian eta umore ona nagusi izan dadila Inauterietarako antolatutako ekitaldietan.

EUSKARA > KORRIKA

Korrika gertatzen hasteko batzarra otsailaren 27an

Korrikari lagundu gura dioten herritar guztiek parte har dezakete batzarrean

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Korrikaren 16. ekitaldirako gero eta gutxiago geratzen da, eta Korrikari lagundu eta ekitaldietan parte hartzeko gertu daudenek batzarra egingo dute hurrengo egubakoitzean, hilak 27, Toki Eder elkartearen (18:30).

PROPOSAMENAK JASOTZEKO

Korrika aitzakia hartuta eta iritsi bitartean herrian antola daitezkeen ekintzen proposamenak jasoko dituzte hilaren 27an. Gainera, Korrikaren lekuko Gatzagatik pasatzerakoan zelan antolatu hasiko dira pentsatzen. Horregatik iritziren bat bota gura duenak edo proposamenen bat egin, orduantxe dauka aukera, guztiak izango dira eta ongi etorriak.

GATZAGARA APIRILAREN 5EAN

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! da 16. Korrikaren leloa, eta euskaraz ikasten eta galdutakoa berreskuratzen jardun duten horiek guztiak omendu gura dituzte. Gatzagan ere halako hainbat daude, eta bereziki eurak izango ditu gogoan Korrikak.

Tuteran hasiko du ibilbidea lekukoak martxoaren 25ean, eta geratu barik ibiliko da apirilaren 5ean Gasteizera ailegatu bitartean. Gatzagara azken egunean iritsiko da Eskoriatatik bueltan, apirilaren 5eko goizaldean hain zuzen, Gasteizera bidean.

KORRIKARI LAGUNTZEKO ERA

Korrikari lagundu gura diotenek hainbat era dituzte: Korrika laguntzaile eginda, materiala erosita, diru bilketetan lagunduta, Korrika batzordeetan parte hartuta eta zelan ez, lekukoaren atzetik takarradan, joanda. Hortaz, lagundu gura duenak aukerarik asko izango du.

Goienkaria

ASTELEHENKO
astehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Otsaileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
Kuota: 40 euro

SARRERAK



Bruesa- Kalise Gran Canaria partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

DVD



Danbakako DVD bat.
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra

PENT-DRIVE



Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN
ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAICO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioantzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com



Pau Lacq Orthez taldeko Josh Duncan jaurtiketa egiteko unean, guztira 8 puntu egin zituen.

IMANOL SORIANO



Ricardo Uriz eta Manolo Muñoz.



Andy Panco kantxaraterako orduan, gazteei bostekoa ematen.

i.s.

Duncan

SASKIBALOA > ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREN 45. URTEURRENA

Bruesa GBC taldeak erakutsi zuen beste maila batean dagoela

Pau Lacq Orthez taldea bigarren laurdenean izan zen Bruesa estutzeko gauza, donostiarrek ordekoekin zirenean

BRUESA GBC

76-58

PAU LACQ ORTHEZ

Bruesa GBC > Popovic (11), Urtasun (10), Andrade (5), Roe (8), Marconato (3), //Hopkins (5), San Epifanio (6), Uriz (4), Panko (7), Sanchez (9), Lopez (5) eta Doblás (3).

Pau Lacq Orthez > Heurtel (17), Samba (3), Rimac (4), Vaty (2), Page (9), // Nikkiah, Duncan (8), Mendy (5), Moncade, Molas (4) eta Raposo (6).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 19-26. Bigarren laurdena: 32-27. Hirugarrena: 51-44. Laugarrena: 76-58.

XABIER URTZELAI > ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteak betebetean asmatu du klubaren 45. urteurrena ospatzeko orduan, eguazteneko kirol hitzorduak ikusmin handia sortu zuelako. Emandako hitza betetz, Pablo Lasok Bruesa GBCko izarrekakerrri zituen Eskoriatzara, eta nahiz eta hasierako bostekoan -Urtasun, Andrade, Marconato, Roe eta Popovic- normalean jokatzeko duten jokalariek ez jokatu, minutuek aurrera egin ahala guztiak ikusi genituen kantxan: Hopkins, Panko, Doblás, Sergio Sanchez...

ENTRENAMENDU SAIOA

Lagun arteko partidua izanda, Bruesak joko-sistema ezberdinak probatzeko erabili zuen norgehiagoka, baina han ez zegoen oparirik egiteko asmorik. Hala, lehen zatian hiruko 16 jaurtiketa egin zituzten, eta erdiak sartu -ibarreko zaleak jaurtiketa horiekin animatzen ziren gehien-. Baina biko jaurtiketetan ez ziren horren fin ibili, 16tik hiru saskiratze lortu

zituzten-eta. Minutu haietan, Epi gazteak -Juan Antonio San Epifanioren semea- ondo asmatu zuen taldea gidatzeko orduan. Bitartean, frantziarrek erakutsi zuten asko geratzen zaiela orain dela urte batzuk izan ziren taldera bueltatzeko; bigarren laurdenean baino ez ziren gauza izan Bruesa estutzeko (32-27).

Bigarren zatian talde frantziarrek intentsitate handiagorekin defendatu zuen eta Bruesak zailtasun handiagok izan zituen saskiratzeak egiteko. Orduan, ohikoak diren jokalariek kantxaratu zituen Lasok eta donostiarrek duten maila erakutsi zuten. Hirugarren laurdenetik aurrera (51-44) Lasok kantxa osoko presioa agindu zuen, eta orduan ito zen Laurent Mopsusek zuzentzen duen taldea (76-58).

Azken minutuetan Frantziako entrenatzailea kalera bidali zuen epaileak, protesta egitearren, eta horrek ere gatz apur bat jarri zion eguazteneko hitzordu gogoangarriari.



eta Hopkins taulapean lehia.

IMANOL SORIANO



Epi gaztea kopa eskuan duela, gazte bati eskaiolan sinatzen.

IMANOL SORIANO



Intxaurtxuetako harmailak beteta.

I.S.



Dylan Page errebotean.

I.S.

Pablo Laso > Bruesa GBCko entrenatzailea "Eskoriatzarrek ondo hartu izan gaituzte beti, gustura egon gara"

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Bruesa GBC taldeko entrenatzaileak hainbat jokalariri minutuak eman eta joko-sistema ezberdinak probatzeko erabili zuen eguazteneko norgehiagoka. Lagun arteko partidua izan arren, Bruesako entrenatzailea uneoro jokalarien jarduna zuzentzen ibili zen, eta tentsio handiarekin jarraitu zuten partidua.

Nola ikusi duzu partidua?

Esango nuke partidu ona jokatu dugula; kostatzen zaigu, baina azkenean garaipena lortu dugu eta pozik nago taldeak egindako lanarekin. Partiduak balio izan digu normalean jokatzeko ez duten jokalariei minutuak emateko, erritmoa hartzeko eta sistema ezberdinekin saiakerak egiteko.

Eskoriatzako kiroldegiko giroa ezin hobea izan da, ezta?

Hirugarren urtea da ona gatozena eta horrelako partiduak politak izaten dira, bai zaleendako eta baita guretako ere. Ez baldin bagatoz, gure falta igartzen dute! Gainera, eskoriatzarrek harrera oso ona egingen izan digute beti.

Asteburu honetan Errege Kopa jokatuko dute Madrilan. Zein ikusten duzu faborito?



GOIENKARIA

Nire ustez, TAU da faboritoa, denboraldi bikaina egiten ari da eta taldea ondo gertatuta dagoela uste dut; gainera, lesionaturiko jokalariek errekuperatu ditu; horrenbestez, Ivanovic jokalaririk guztiak edukiko ditu bere esanetara; Gasteizko taldeak irabaztea lortuko duela uste dut.

Liga amaitzeko hamaika partidu gelditzen dira. Zenbat partidu irabazi beharko direla uste duzu mailari beste urtebetez eusteko?

Beste taldeek egiten dutenaren arabera ere badago. Baina gu partiduz partidu joan behar dugu eta datorren asteburuan Badalonako Joven-tut taldeari irabazten badiogu pozik geldituko nintzateke.

bozkatu  Jakin eta egin

 **ba
rre
txe**

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Hercules
Domeka. 17:00. Anoeta.

Gazteen euskal liga
Aretxabaleta-Abetxuko
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Bergara-San Inazio
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Preferente maila
Pasaia-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Errenteria.

Lehen erregionala
Antzuola-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Estala.

Orioko-Bergara
Domeka. 16:30. Mendibelz.
Elgoibar-Mondra
Zapatua. 18:30. Mintxeta.
BTLS-Lazkao
Gaur. 20:00. Ipintza.

Bigarren erregion. Igoera
Soralue-Bergara
Zapatua. 16:15. Ezozia.

Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera
Lagun Onak-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Garmendipe.

Lehen mailako gazteak, igoera fasea
Lazkao-Mondra
Zapatua. 12:00. Lazkao.

Kadeteen ohorezko maila, igoera fasea
Aretx. Arizmendi-Real Union
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Kadeteen ohorezko maila, Kopa eta jaitsiera fasea
Arrasate-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Kadeteen lehenengo maila
Aretxabaleta-Ondarroako A.
Zapatua. 10:15. Ibarra.

Kadeteen lehenengo maila, kopa
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 11:30. Ipintza.
Urola-Arizmendi
Domeka. 11:30. Argixao.

Kadete txiki

Urola-Arrasate
Zapatua. 11:00. Argixao.
Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera
Aretxab. Arizmendi-Ostadar
Zapatua. 12:00. Ibarra.
Bergara-Urola
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Infantil txikien txapelketa
Kostkas-Arrasate
Zapatua. 10:30. Matigoxoteg.

Infantil txikien kopa
Bergara-Aretx. Arizmendi
Domeka. 12:00. Ipintza.

Emakumezkoen igoera fasea
Mondra-Beti Gazte
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Emakumezkoen kadete F-11, txapelketa fasea
Ostadar-Bergara
Zapatua. 11:30. Lasarte.
Ostadar-Bergara
Zapatua. 11:30. Lasarte.

Arizmendi-Luberri
Zapatua. 11:00. Almen.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila. Igoera
Lazkao-Mondra
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Kadete emakumezkoak
Arizmendi Esko-Salleko Zar.
Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.

Infantilak gizonezkoak
LEK Ointxe-Salleko Zarautz
Zapatua. 10:30. Musakola.
LEK Arizmendi-Ikasi ISB
Zapatua. 10:30. Musakola.

Hotel Cast.-Aloña Mendi
Gaur. 18:30. Ordizia.

Infantil emakumezkoak
LEK Almen-Lizeotarrak
Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.
Pasaia Lezo-LEK San Viator
Zapatua. 11:15. Pasaia.
LEK San Viator-Aldapeta
Zapatua. 10:30. Musakola.

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketa
Sucesores-Ford Mugarri
Zapatua. 17:00. Gasteiz.

Euskadiko txapelketa, emakumezko preferentea
Verkol Aloña-Leizaran
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gipuzkoako lehen territorial maila
Soralue BKE-Urnieta
Zapatua. 17:00. Labegariet.

Federazio saria
Aloña Mendi-Urnieta
Zapatua. 11:30. Zubikoa.

ERRUGBIA

Kadete mailako selekzioen arteko norgehiagoka
Euskal selekzioa-Belgika
Domeka. 11:00. Mojategi.

Gazte mailako selekzioen arteko norgehiagoka
Euskal selekzioa-Portugal
Domeka. 12:30. Mojategi.

PILOTA

Eskuz binako partiduak
Aretxabaleta. Zapatua.
16:00etan hasita.

Aretxabaleta1-Arrasateko
Segurako-Txapagain
Aretxabaleta2-Euskal Jolas
Lapke1-Txapagain.

Bergara. Zapatua. 16:30ean
hasita:

Behar Zana2-Arrasateko
Aretxabaleta1-Atauno
Behar Zana3-Bergara1
AurreraSaiaz-Lapke
Lagunak2-Bergara2
AurreraSaiaz-Bergara3.

XAKEA

Gipuzkoako preferentea
Arrasate A-Billabona.

Lehenengo maila
Gros D-Arrasate B.

Bigarren maila
Arrasate C-Tolosa.

Bergara-Zaleak-Goierri A



UDAKo Ruben, Berioko jokalaria baten aurrean, artxibo irudian.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aratusteetan UDAk lidergoa kendu nahi dio Aloña Mendiri

Aretxabaletarrek denboraleagatik atzeratu zen partidua jokatuko dute bihar Pasaian (16:30)

XABIER URTZELAI > BERGARA
Aretxabaletak (40) bihar Pasaian (34) irabazten badu, domekan, aratusteetan UDAko mutilena izango da mozorro txalotuena. Galdu ala irabazi berdin-berdin egingo dute domekan parranda, eta merezitakoa gainera, baina ez da izango gauza bera.

Astelehenean preferenteaz zerbait dakien Iban Astolak garbi esan zuen *Harmailatik* saioan

lidergoa ez dela UDAk orain momentuan duen helburu nagusia. Gehiago esango dugu, aretxabaletarrak erosoago daude lider-raren atzean, presio barik, baina haginkada emateko gertu. Eta, aretxabaletarren moduan dago Hernani (39) ere, isilik, baina aurreko postura salto egiteko zain. Eta kontuz eurekin, preferentean ondoen jokatzen duen taldea da-eta. Horiek ere etxetik kanpora jokatu dute asteburuan, Hondarribiaren (36) kontra, eta irabaziz gero orain arteko liderra aurreratuko dute.

Bestalde, Mondrak (23) eta Aloña atsedena izango dute oraingo asteburuan, denboralea egon zen asteburuan domekan jokatu zutelako.

ZIKLISMOA

Ezin 'Quebranta' proban izena eman

Astelehenean webgunea kolapsatu zen jende mordo sartu zelako bertara

X.U. > BERGARA

Joan den astelehenean ireki zuten Quebrantahuesos proban izena emateko epea. 10:00etan hasi ziren probako webgunean (www.quebrantahuesos.com) izenak hartzen, eta ordubetean kolapsatuta zegoen dena. Bi orduko epean 3.500 lagunek eman ahal izan zuten izena (minutuko 140 izen-emate), eta martitzean *Quebranta* antolatzen duen Edelweiss elkartearen presidentea Roberto Iglesiasek GOIENKARIARI adierazi zion izena emateko pauso guztiak bete ez zituztenak ez zuelako apuntatuta, eta hurrengo astelehenean, hilak 23, ahal-eginduko beharko direla berriro (10:00etan hasita).

Antolatzaileek, baina, eguaztenean zintzilikatu zuten sarean izena ematea lortu zutenen zerrenda, eta hor sorpresaren bat edo beste izan da; hau da, prozesua osorik egin ez zuten batzuk ere onartu dituzte.

10.000 LAGUN HASERRE

Astelehenekoa ikusita, marxa horretan Quebrantahuesos probak dituen 200 kilometroak egitea baino nekezagoa izan behar da proban izena ematea: "Sentitzen dut, baina guk ezin dugu gehiago egin. Aurreikuspen guztiak txiki geratu ziren. 8.500 lagun hartzen ditugu proban, baina badakigu gutxi-gorabehera 18.000 lagunek gura izaten dutela proba egin. Horrek esan gura du 10.000 lagun haserretu egingo direla gurekin".

> ERRUGBIA

Gazte mailako euskal selekzioak Mojategin jokatu du domekan

Arrasateko errugbi taldeek deskantsua izango dute asteburuan, baina euskal selekzio-ko gazteak izango dira domekan jokatzen.

11:00etan kadete mailako norgehiagoka izango da, euskal selekzioa eta Belgika aurrez aurre, eta 12:30ean gazte mailako jokatu dute, oraingoa Portugalen kontra.

Domekan norgehiagokak egingo dituzten arren zapatuan 10:00etan hasita entrenamendu saioa egingo dute.

BERGARA

San Lorenzo

AZKEN ETXEBIZITZAK

ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea



Sustatzailea



Argibide eta salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

Apartamentuak

152.000€-tik
aurrera

25.300.000 pta



> **ANTZERKIA**
'Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela', Bergaran > 38



> **ERAKUSKETA**
Espainiako gerraren gaineko erakusketa ikusgai gaurtik, Oñatin > 38

> **IÑAKI KORTAZAR**
Eskoriatzako 25 urteko gazteak Inkernu tabernako lana inprentakoagatik trukatu du. Aitzorrotz kultura elkarteko kide ere bada gaztea > 42



Bergarako Beart elkarteak erakusketa antolatu du herriko lau margolari omentzeko

Erakusketa gaurtik martxoaren 8ra arte egongo da zabalik, Aroztegi aretoan

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Bergarako Beart arte elkarteak merezitako omenaldia egingo die Jose Antonio Laskurain, Patxi Leturia eta Migel Okina margolariari eta Ricardo Otaño marrazkilariori. Bizitza osoa arteari lotuta eman dute, eta horregatik *Maisuak* izenarekin bataiatu dute erakusketa. Ikasleek -Beart elkarte- maisuei eginiko omenaldia izango dela esan daiteke, hortaz.

ARTISTA BELAUNALDI ONENA

Bergarak betidanik erakutsi du artearekiko -eta bereziki pinturarekiko- interesa eta zaletasuna. Hala, omenduko dituzten lau *maisua* herriak sekula eman duen artista belaunaldi garrantzitsuenaren ordezkariak dira. Ordezkariak, ez bakarrik. Izan ere, lau omenduez aparte egun hilda dauden beste artista batzuk aipatzea ezinbestekoa da; besteak beste, Simon Arrieta maisu handia eta haren ikasle ziren Fernando Azkargorta, Moises Eguren eta Abdon Juaristi margolari famatuak.

BERGARAKO ARTEAREN 'MAISUAK'

Beart elkarteko lehendakari Pili Azkaratek jakinarazi duenez, erakusketaren helburua da "Bergarako artean, eta bereziki pinturan, historia egin duten artista belaunaldi bateko kideei omenal-

Artista belaunaldi baten lekuko diren 'maisua'



Erakusketak omenduko dituen lau *maisua*, ezkerretik eskuinera: Okina, Laskurain, Leturia eta Otaño.



dia egitea". Egiteke zegoen omenaldia da, eta, Azkaratek dioenez: "Beranduegi ibili gara". Izan ere, belaunaldi emankor hartako zenbait margolari hilda daude. Hala

ere, Azkaratek uste du Okina, Laskurain, Leturia eta Otaño "ordezkari moduan" hartuta, omenaldiak artista belaunaldi osoari eskaintzeko balioko duela.



ASPALDIKO OBRAK IKUSGAI

Gaurtik martxoaren 8ra arte bisitatu ahaliko den erakusketan lau *maisuen* lanak ikusi ahaliko dira. Beraz, urte asko duten obrak



BENITO CANTERO / AGUSTIN GURRUTXAGA

izango dira ikusgai Aroztegin. Esate baterako: Laskurainen koadroak 1944tik 1990era margotakoak dira. Guztira, 49 obra jarriko dituzte: Laskurainen 11 olio-pintura, Leturiaren sei lan, Okinaren bederatzik koadro eta Otañoren 25 marrazki. Astegunetan arratsalde bisitatu ahaliko da erakusketa, martitzenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:30era. Aste bukaeretan: zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

INAUGURAZIOA, GAUR

Beart elkarteak ekitaldi berezia egingo du Aroztegin erakusketa zabaltzeko (gaur, 19:00etan). Lau omenduei plaka oroigarri bana emango diete.

Bergarako arteari ekarpen handia egin dioten lau 'maisua'

MIGEL OKINA

Simon Arrietaren eskolan hasi zen pintura ikasten eta gero, Madrilan,artzelona eta Parisen ere ibili zen. Beste hiru artista omenduak ez bezala, Okina da pintura ogibide izan duen bakarra. Goiko argazkian, atzeko koadroa Okinaren autorretratua da.

JOSE ANTONIO LASKURAIN

Simon Arrietarekin hasi bazen ere, bere kabuz aritu izan da ordutik hona. Azken urteetan pintura eskolak eman ditu erretiratuen elkarteetan.

PATXI LETURIA

Autodidakta. *Maisuak* erakusketan, 1974ko Euskal Pintura Lehiaketako koadro irabazlea ikusi ahaliko da. Argazkian, Moises Eguren margolari famatuak egin zion erretratua ikusten da.

RICARDO OTAÑO

Anaiaren ondoan hasi zen artearen munduan. Anaiak pintura lantzen bazuen ere, Ricardok marrazkia izan du lan esparru. Hala, lumaz egindako marrazkiak dira Otañoren obra beste hiruretatik bereizten dutenak.

UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!

ATE
IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA ARRASATE-MONDRAGÓN**
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA ORDIZIA**
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA IRUN**
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA ESKORATZA**
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

ANTZERKIA > 'LOLA IKUSTEN BADUZU, ESAN ABERATSA DELA'

Intrigaz beteta dator Ados taldearen lana

Ados antzerki taldearen lana domekan izango da, Bergarako Udal Pilotalekuan, 20:00etan, eta sarrerak salgai daude 8 eurotan kultura etxean

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela antzezlan eskainiko du Ados antzerki taldeak domekan Bergarako Udal Pilotalekuan. Gabi Losadaren zuzendaritzapean, Lierni Fresnedo, Ainhoa Aierbe eta Kandido Uranga aktore ospetsuak igoko dira Bergarako taula gainera.

Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela thriller bat da. Intrigaz betetako hainbat istorio osatzen dute lan nagusia.

IRRATI ESATARIA

Isabel irrati esataria da; lanean, istorio erreala kontatzen ditu. Halako batean, ezer esan barik alde egingo du. Inork ez daki non dagoen; ezta bizirik dagoen ere. Isabelen gauzen artean egunkari zati bat aurkitu dute: *Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela* dioena.

Orduan, Isabelen bila hasiko dira, zer gertatu den ikertu guran. Narrazioa ordena kronologiko barik garatuko da eta etorkizuna



Ainhoa Aierbe, Kandido Uranga eta Lierni Fresnedo.

ADOS

na eta iragana uztartuko dute, batetik bestera salto eginda.

SARRERAK KULTURA ETXEAN

Antezlanerako sarrerak kultura etxean daude aurrez salgai 8 eurotan. Emanaldi egunean leihatilari jarriko dituzte salgai, 19:00etan hasita.

Domekan Udal pilotalekuan ikusteko aukera egongo den antezlanak 90 minutu irauten du eta esan beharra dago argiak berebiziko garrantzia hartuko duela; batez ere, espazio ez erreala erakusteko erabiliko da argia. Bestalde, gorpuzdun eta irudipeneko espazioak daude.

ANTZERKIA > 'MALDITO PARNÉ'

Lapurtuko ote dute dirua?

Gaur izango da emanaldia Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean hasita

A.E. > OÑATI

Glu-Glu antzerki taldearen eskutik *Maldito parné* antzezlan ikusteko aukera egongo da gaur Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan daude salgai.

ONGIA ETA GAIZKIA

Antzerki lanak ongiaren eta gaizkiaren arteko muga non dagoen aztertzen du. Horretarako, lantegi bateko bost langilek dituzten hausnarketak plazaratzen ditu.

Egubakoitz batean, lan jarduna amaitzean daudela, lantegiko lau garbitzailek 2.000.000 euro



GLU-GLU

aurkitzen dituzte nagusiaren bulegoan. Dirua hartzea erabaki dute, baina halako batean beste langile bat agertuko da eta dena aldrebestuko du. Zer egingo dute aurkitutako diruarekin?

KOMEDIA

Pertsonaia dramatikoak dituen komedia da gaurko antzezlan. Patxi Perezek zuzentzen du eta Glu-Glu taldeak ekoizten du *Maldito parné* lana.

BERTSOLARITZA

Arabako txapelketa bihar Amurrion

A.E. > BERGARA

Bihar hasiko dute Amurrion Arabako Bertsolari Txapelketa; han izango da, besteak beste, Manex Agirre aramaiorra. Agirre ez da berria txapelketan; dagoeneko sei aldiz hartu du parte eta denetan iritsi da finalera. Oraindik, baina, ez du txapelik eroan etxera. Aramaiorrek adierazi du Euskal Herriko Txapelketa-rako sailkatzeko aukera izateak *plusa* ematen diola aurtengo edizioari.

Gogora ezazue Agirre ez dela izango txapelketako aramaior bakararra: Andere Arriolabengoa, Xabier Igoa eta Iker Agirre ere ibiliko dira lehian.

ERAKUSKETA

Izen eta aurpegi guztiak ikusgai

Gaurtik, Espainiako gerraren gaineko erakusketa Oñatiko kultura etxean

A.E. > OÑATI

Gaur hasi eta martxoaren 18ra arte egongo da erakusketa Oñatiko kultura etxean. Intxorta 1937 Kultura Elkar-teak antolatutako Espainiako gerraren gaineko erakusketak oñatiarrek jasandako errepresioa erakustea du helburu. *Izen guztiak, aurpegi guztiak* izenarekin, gerra garaian Oñatin jasotako argazki, txosten eta salaketak erakutsiko dituzte.

HAMAR PANEL

Bi metro luze diren hamar panel jarriko dituzte kultura etxean. Gainera, garai hartako bandera, kartel eta aldizkariak egongo dira.

Gipuzkoako biztanleria kontuan hartuta, Oñati izan zen errepresio handien jaso zuen herria.



Erakusketako kartela. INTXORTA KE



UNAI ZIARRETA
INDEPENDENTEA
LEHENDAKARI HAUTAGAIA



EMANBOTOA

ANTZERKIA > ARRASATE

'Sobre flores y cerdos, mas Nancho que largo', Nancho Novoren ikuskizuna

Umorearen bidetik, amodioaren gaineko ikuspegi ezberdina ematen saiatzen da aktore galiziarra, Pablo Castillo musikariaren laguntzaz

EDU MENDIBIL > BERGARA

Nancho Novo aktorea ez da interpretaziora mugatzen den horietakoa eta hor ditugu, adibide moduan, Castigados Sin Postre musika taldearekin (*Confieso que he bebido* eta *Con mucha suavidad* diskoak argitaratu dituzte) eta antzerki egile bezala egindako lanak: *Maloficio* (1992) eta *Cyborg, blues por un perro muerto* (1985). Edozelan ere, antzerkian eta batez ere zinemaren egindako lanagatik da ezaguna. Zinemaren batez ere 1990eko hamarkadan Julio Medemekin egindako lanek egin zuten ezagun gure artean: *La ardilla roja*, *Tierra* eta *Los amantes del Circulo Polar* filma-



Nancho Novoren antzezlaneko bi irudi.



GOIENKARIA

tu zituen donostiarraren agindutara sasoi hartan.

Domekan, agertokian Pablo Castillo aktore eta musikaria lagun duela, *Sobre flores y cerdos*,

mas Nancho que largo antzezlanaren ekarriko du Arrasateko Amaia antzokira. Izenburuarekin argi dago hura dela protagonista nagusia. Umorearen bidetik, amodio-

aren gaineko ikuspegi ezberdina ematen saiatzen da Nancho Novo eta hark *guarromántico* izenarekin bataiatu du umorea egiteko duen estilo berezi hori. Musika

piezak aitzakia hartuta, bikoteen gaineko hausnarketak plazaratzen ditu aktore galziarrak. Ikuskizun guztiz originala dela dio Novok, bakarriketa generoaren ohiko formatuetatik ihesi: "Bizitza hobe baten aldeko apustua egiten saiatzen naiz eta argi dago gauzak umorearekin hartzeak lagundu egiten duela", esaten du Novok.

ANTZERKIAN BURU-BELARRI

Aspaldian, zinemaren baino antzerkian lan handiagoa egiten du eta horren lekuko dira azken urteotan egindako antzezlanak: *Defendiendo al cavernícola*, *Pop corn* edo *Shombres.com* eta *Trainspotting*. Zuzendari lanak ere egiten ditu Arrasatera ekarriko duen *Sobre flores y cerdos...* horretan.

SARRERAK, 10 EUROTAN

Domekako emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak Servikutxan edo 943 00 12 00 telefono zenbakian eskura daitezke, 10 eurotan. Domekan bertan Amaia antzokiko leihatilan jarriko dituzte sarrerak salgai, ordu erdi lehenago.



Pedro Javier Hermostilla kantari katalana.

GOIENKARIA

MUSIKA > 3.60 ARETOA

Hermostilla, Petti eta Mery May gaur Arrasaten

AEBetik etorri berria, Pedro Javier Hermostillak 'Tres y...' zuzeneko lana aurkeztuko du

E.M. > BERGARA

Kartel erakargarria osatu dute gaurko Arrasateko 3.60 aretoan. AEBetan bira egiteko datorren Pedro Javier Hermostillak *Tres y...* zuzeneko diskoa aurkeztuko du. *Caracola submarina*, *Una revolución*, *El cielo entre las manos* eta *Me he perdido* kantak batu ditu katalanak. Aurretik beste bi disko ditu argitaratuta Hermostillak: *Amuleto de agua errante* (2003) eta *Por un ratito en tus oídos*

(2005). Edozelan ere, lan horiek baino sona handiagoa eman zion Bob Dylanen telonero izateak Minnesotako kantariaren azken biran Espainian zehar.

PETTI ETA MERY MAY

Azken Danbaka lehiaketan kritika onak jaso zituen Mery May gazte arrasatearrak eta Petti nafarrak osatuko dute gaurko emanaldia. 3.60 aretoan, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan salgai.

Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Campus San Sebastián
Donostiako Campusa

Deustuko Unibertsitatea Arrasaten

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua

Gradu bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Informatikako Ingenieritzako Gradua

Gradu bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua

Komunikazioko gradua

Turismoko Gradua

Gizarte Laneko Gradua

*Graduko ikasketa hauek egiaztatze prozesuan daude.

2009-2010 ikasturteko Sarrera
Eskaeren epea irekita

Informazio Saioa
(etortzekoa bazara, deitu)

Eguna: Otsailak 25, asteazkena
Tokia: Kulturate Kultur Etxea
Azoka kalea, 1
Arrasate/Mondragón
Ordua: 19:00etatik 20:00etara

© 943 326 308 - 943 326 600
e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es
www.infodonostia.deusto.es

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. 88 metro koadroko etxebizitza, jantzia, hiru logela, egongela, bi komun eta sukalde. Garaje irekia, trastelekua-ekin. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Aitziber. Deitu 697 78 07 29 telefonora.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komun. Oso eguzkitsua. 606 86 71 97.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Bi logela. Eraikin berria, Olarte kaleari begira. Komunitate-gastu oso txikiak. 619 59 28 47.

Oñati. 89 metro koadro erabilgarriko etxebizitza salgai Olakua 9an. Sarrera-korridorea, egongela, sukalde, bi komun, hiruro logela, trastelekua eta balkoia. Bi igogailu. 13 metro koadroko garajea. 626 41 09 03.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarra kalean. Deitu 639 96 01 21 zenbakira.

Benidorm. Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Levanteko hondartzako lehenengo lerroan. 630 41 84 65.

Oñati. 86 metro koadroko etxebizitza errentan Euskadi etorbidean. Hiru logela, sukalde, komun, egongela eta garaje plazarekin. Igogailu barik. 665 74 68 24.

104. ERRENTAN HARTU

Apartamentua hartuko nuke errentan Debagoieneko edozein herritan. 663 72 78 23.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Presazkoa da. 666 75 73 21.

Bergara. Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. 669 64 76 28.

Bergara. Etxebizitza bila nabil nire bikotekidearekin batera. Irlis. 610 91 33 40.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29.

Bergara edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60.

Bergaran, Antzuolan edo Oñatin familia batek errentan hartuko luke etxebizitza. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

Debagoiena. Etxe txikia hartuko nuke Arrasate, Eskoriatza, Bergara edo Aretxabaletan. 626 82 16 20 edo 646 56 62 78.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukalde. Etxe argitsu. 670 04 27 41.

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukalde eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

Arrasate. Pertsona arduratsua logela behar du errentan. Hila-bete honetan bertan sartzeko. 666 21 88 95.

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

Donostialdea. Hernani edo inguruan logela hartuko nuke errentan. Martxotik uztaiera bitartean. 652 71 52 50.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia errentan ematen da Espoloin. Deitu 645 00 78 19 telefonora.

4/ LANA

402. ESKAERA

Antzuola. Arropen konponketak egiten ditut. 616 45 00 20.

Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25.

Arrasate edo Bergara. Nagusiak gauze edo aste bukaeretan zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

- LOKALA SALDU/ALOKATU.

- GARAJEA SALDU/ALOKATU.

- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULO)

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxerik etxe ile apaintzaila lanak egiten ditut. Deitu 650 59 93 91 telefonora.

Arrasate. Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

Arrasate. Emakume eskalduna lanerako gertu. Deitu 659 82 75 18 telefonora.

Arrasate. Emakume gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80.

Arrasate. Neska eskalduna gertu etxeak garbitu edo joste lanak egiteko. 678 66 59 54 edo 943 79 12 00.

Arrasate. Neska gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28.

Arrasate. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 618 00 08 28.

Debagoiena. 44 urteko emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzateko prest nago. Deitu 606 64 16 09 telefono zenbakira.

Debagoiena. Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. Deitu 695 78 91 04 edo 695 78 41 14 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Edozein desbrozadora-lan mota egiteko gertu. Euskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. 628 40 58 27.

Debagoiena. Emakume eskalduna gertu edozein lan egiteko. 667 94 07 25.

Debagoiena. Emakume eskaintzen da edozein lan egiteko. Paperak eguneratuta dauzat. 686 99 59 41.

Debagoiena. Emakume gertu orduka lan egiteko. 5 ordu orduko. Deitu 669 53 02 92 edo 943 79 70 59 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin eta nagusiak egunez edo gauzez zainduko nituzke. Esperientzia. Erreferentziaduna. Paperak ditut. 680 87 38 66.

Debagoiena. Garbiketari edo lorezain lan egiteko gertu nago, bailara osoan. Peoi moduan. Alex. 647 19 36 95.

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

Debagoiena. Igeltsero ikasketak eginda dituen gizeozko gertu edozein lan egiteko. 680 91 16 83.

Debagoiena. Ile apaintzaila lanerako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 zenbakira.

Debagoiena. Mutila edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

Debagoiena. Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30.

Debagoiena. Mutila gertu base-rikko lanak egiteko, ardiak edo behiak zaintzen. 663 60 51 64.

Debagoiena. Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketari, baserrian... 634 84 11 72.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 634 45 28 77.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanerako. Egunean bost orduz. Ordu-tegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25.

Debagoiena. Neska eskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan jarduteko. 667 90 38 56.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketari lan egiteko. 699 63 12 02.

Debagoiena. Zerbitzari lane-rako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96.

Gipuzkoa. Garbiketa, gizarte laguntzaila edota igeltserotza lanak egingo nituzke. Legezko paperak dauzkat. Rolando Melgar. 672 25 92 18.

Oñati. Neska eskalduna gertu tabernak edo elkar-teak garbitzeko, edota sukalde batean lana egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

Oñati. Neska eskalduna gertu tabernak edo elkar-teak garbitzeko, edota sukalde batean lana egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

Sukaldaria. Bergarako mutil gaztea sukaldetako lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukalde batu. Galdetu Manuengatik. Deitu 610 80 07 39 telefonora.

Tabernari lan egingo nuke aste bukaeretan Oñati, Bergara, Arrasate edo Eibarren. 663 72 78 23.

Zerbitzaria. Astelehenerik egue-nera lan egingo nuke. Eneko. 690 17 45 60.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Elektroteknika eskola partikularrak jaso nahi ditut, arratsalde, 14:00etatik aurrera. Asunengatik galdetu. 696 27 25 34.

Bergara. Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 675 70 10 63.

Bergara. Maisu-maistra ikasketak egiten ari den pertsona bat behar dut, 6 urteko ume bati entzumenaren eta hizkuntzaren gaineko eskolak emateko. 943 76 99 65 edo 943 76 20 94.

DBHko lehen mailan dabilen neska bati eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dut Bergaran. 943 76 21 79 edo 658 70 73 17.

502. EMAN

Arrasate. DBHko eta LMHko eskola partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Esperientzia handia. 658 70 67 84.

Bergara. Ingeles irakasle ezaguna berriro ere eskolak ematen. Etxeko lanekin edo azterketak gainditzeko laguntza. 616 12 56 29.

Debagoiena. LMHko eskola partikularrak emango nituzke. 605 71 09 07.

Ingeles. Arrasate edo inguruan ingeleseko eskola partikularrak. Taldeko edo banako. Esperientziadun irakaslea. Maila guztiak. 635 12 87 82.

Oñati. Ingeniaritzako eskola partikularrak emateko prest: matematika, fisika, kimika... 646 42 13 63.

Oñati. Urte askoko esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. LH eta DBH. Ordu-tegi malgua, nahi dituzun orduak (aste osoan, astean ordu bat...) eta talde txikiak. 943 78 28 43.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Seat Alhambra monobolumena salgai. 1.9 TDI. 115 ZP. 2002koa. Gaur egungo azken modeloa. 99.500 km. Oso egoera onean eta estra askorekin. 9.000 euro + BEZa (negoziagarriak). Aukera aparta. 610 38 12 44.

Yamaha TZR motorra salgai. 49 cc. 12.000 km. Oso gutxi erabilia. 2004koa. 665 70 68 81.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Basurdeak salgai Orozkon. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

Coquer ingelesa salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauka. 300 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

Podenko eta mastin arrazako nahasketari diren urtebeteko txakurrak salzten ditut, ezin ditudalako zaindu. Prezioa adosteko. 678 88 05 64 edo 678 53 82 11.

702. EROSI

Basurde ar handiak erosiko nituzke. 678 72 75 72.

703. EMAN

Ardi txakurra opari egiten dut, ezin atenditzeagatik. Deitu 678 61 50 40 telefonora.

704. BESTELAKOAK

Loro bat galdu zaigu, yaco arrazakoa. Grisa da eta buztan gorria dauka. Arrasateko Santa Ageda auzoan urtariraren 14an galdu zitzaigun. Rai izena dauka eta hizlaria da. 659 87 47 60.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak. Zaharbertze behar dute. Oso merke. 615 74 13 47.

Argazki kamera salgai. Olympus 790 SW. 7.1M, 3xZOpt, Shock+Waterproof, FaceDetection... Berri-berria eta garantiarekin. 150 euro. 660 43 64 29.

Autorako aukila. Chicco Synthesix etxekoa. 0+ taldekoa. 13 kilo artekoa. 25 euro. 672 25 74 24.

Bidaia-kuma. Parke moduan ere erabil daiteke. Koltxoa eta gordetzeko poltsa barne. Play etxekoa. 50 euro. Mari. 672 25 74 24.

Bizikleta. Beltza. Oso polita. Mountain estilokoa. 120 euro. 679 74 00 61.

Bizikleta. Trek 5500. Karbonoskoa. Ultegra Dura Ace. Ordeko bi gurpil barne. 1000 euro. 617 08 05 01 edo 943 78 29 19.

Eskiak. Tribeskiak eskiak salgai. 1.85 m. Silvretta 405 fija-zioak. Foka larruak eta kutxillak. 200 euro. 658 75 84 58.

Eskiatzeko botak. Salomon Performa 6.99 eski alpetarreko botak salgai. Zenbakia: 38. 699 40 96 97.

Ezkontzako soinekoa salgai. Merke. 635 75 54 30.

Jaunartzeko soinekoa salgai. Merke. 635 75 54 30.

Josteko makinak. Jacketa Refrey markako bi josteko makina salgai. Bat automatikoa da eta puntada zuzen ematen ditu; bestea, erremateak egiteko makina da. Mahai eta guzti salzten ditu. 677 04 26 73.

Landareak. Hesiak egiteko landareak salgai: thuyas, leylandi, nekosta... Euro batetik aurrera. 686 39 57 59.

Lehorgailua. Arropa lehorgailua salgai. Fagor etxekoa. Nahiko berria. 200 euro. 943 77 00 26.

Marinel jantzia salgai. 11-12 neurrikoa. Berri-berria. 90 euro. Narruzko oinetakoak barne. 679 74 00 61.

Motorrerako arropa. Kaskoa: Arai etxekoa, S neurria. Eskularruak: Dainesse etxekoa, M neurria. Jaka: Dainesse, 46 neurria. Prakak: Gore-Textunak, 52 neurria. Bizkarra babestekoa eta 39 neurriko botak ere Dainesse etxekoa. Oso egoera onean. Deitu 616 77 28 06 telefono zenbakira.

Nintendo DS Lite zuria saltzen dut. M3 Rumble RAM Pack txipajolasen kopiak erabiltzeko eta bibrazioarekin. 2 GB MicroSD. Funda eta guzti. Aukeratutako hamar jolas eta Opera Internet Nabigatzailearekin saltzen da. 220 euro. Idatzi mezuzi radikalshop@gmail.com edo deitu 686 62 66 24 zenbakira.

PSPrako jokoak. Bi joko. Oso interesgarriak. 'Yoshi's, Super Marioren zaldi berdea' eta 'Insected'. Bakoitzak 15 euro eta biak erosita 22 euro. Deitu 679 74 00 61 zenbakira.

Trialeko bizikleta salgai. Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro. Deitu 943 79 54 21 telefonora.

Umeendako aukila. Kapazo eta kapotarekin. Bebecar etxekoa. 2001eko. 100 euro. Deitu 672 25 74 24 zenbakira.

Umeendako karroa. Silver-cross etxekoa. Urdina. Oso egoera onean. 300 euro. 615 74 13 47.

802. EROSI

Erremolkea erosiko nuke. Neurria: bi metrotik aurrera. Deitu 651 70 79 96 telefonora.

Eskia eta botak. Metro bateko eskiak eta 27-30 zenbakiko botak erosiko nituzke. 608 77 38 59.

806. GALDU

Canon argazki kamera. Aretxabaletan urtariraren 26an, astelehenean, Canon markako kamera digitala galdu nuen Zariaiko apartakalean. Norbait aurkitu badu dei dezala 605 73 14 33 telefono zenbakira eta galde dezala Mikelengatik.

Aretxabaleta. Urtariraren 30ean (egubakotza) PSP bat galdu nuen Durana Kalean, arratsaldean. Funda beltz baten zegoen. Norbait aurkitu badu eskertuko nioke bueltatzen badit. 699 23 73 72 edo 635 20 78 98.

Arrasate. Urtailean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Aurkitu duenak dei dezala 652 70 23 50 zenbakira.

Oñati. Plaza aldameneko apartakalean zorro bat galdu nuen otsailaren 6an, ilunkaran. Barruan, eskiatzeko kaskoa, betaurteko eta ipurdia babestekoa zeuden. Aurkitu duenak dei dezadala. 649 96 92 96.

USBa galdu nuen otsailaren 10ean, Oñatin. Grisa da eta LG etxekoa. Mesedez, norbait aurkitu badu deitu telefono honetara: 670 52 58 74.

807. AURKITU

Aretxabaleta. Iargi plazan Nintendo bat aurkitu zuten ume batzuek urtariraren 9an. 943 79 99 18.

Arrasate. Urte eta zilar koloreko erloju aurkitu genuen otsailaren 13an Laubideko azoka txikiaren inguruan. Atzean esaldia eta data dauzka idatzita. Galdu duenak BAZEN galde dezala.

Txanoa aurkitu dut Eskoriatza San Juan kalean asteburuan. 943 71 46 50.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Sevillatik Ovidora duan Rota de la Plata egin nahi dut apiril eta maiatz artean, bizikletaz, motxilarekin. 50-60 urte inguruko inork nirekin etorri nahi badu, deitu. Ignacio Blazquez. Deitu 943 79 65 99 edo 639 48 90 49 telefono zenbakira.

Debagoiena. Egunero Gernikarako joan-etorria egiteko autoa partekatuko lukeen norbaiten bila nabil. 685 77 64 06.

Oñati-Gasteiz. Egunero Oñatik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan lanerasartu eta 17:00etan irteten gara. Norbait interesatuta egonez gero deitu. 635-20 33 14.



**DEBA
GARAIA**


Baita zu ere.

Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.

Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIEsek emandako datu berrien arabera. Eskerrik asko, irakurle guztioi.

- > **GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.**
- > **Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.**

Goienkaria



Iñaki Kortazar > Inprentako langilea

"Ez dut ligatzen, ez tabernan edariak ateratzen ezta fotokopiak egiten ere"

Iñaki Kortazarrek tabernako zerbitzari lanak inprenta batean lan egitearren aldatu ditu: "Betidanik gustatu izan zait inprenta batek dakarrena". Orain asteburuak nahiko libre izanda, "goizetan, behintzat, lo egin dezaket", esan digu. Kultura ekitaldiak antolatzen jarraitzen du, eta "krisiari agur esan, eta erabilera askotariko aretoa egitea" da haren ametsa.

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Iñaki Kortazar 25 urteko eskoriatzarra oso ezaguna da herrian, hainbat musika ekitaldiren antolakuntza lanetan ibiltzen delako. Aitzorrotz kultura elkarte kide ere bada eta bertan ere kultura ekitaldiak antolatzen ditu. Inkernu tabernan zerbitzari lanetan ibili da bost urtean, baina orain edari eta edalontziak alde batera utzi ditu eta paper eta fotokopiagailuen munduan sartu da buru-belarri Iñaki Kortazar gaztea.

Urte asko egon zara Inkernuko barraren atzean tragoak zerbitzatzen; orain, berriz, fotokopiak ateratzen dituzu. Nolatan aldaketa hori?

Betidanik gustatu izan zait inprenta batek dakarrena; tabernan bost urte egin eta gero apustu berria egitearen aldekoa nintzen, eta pentsatu eta egin!

Tabernako lana eta inprenta bateko lana. Bietako zeinek ematen du lan handien?

Biek dakarte lana, baina desberdina da; inprentan ordu asko egin behar dituzu lana aurrera ateratzeko; tabernako lana, berriz, ezberdina da, lana momentukoa da eta uneoro zaude jendearekin hartu-emanen.

Nondik IGEHIK?

Ez zen oso zaila izan izena asmatzea; nire izena eta abizena elkartzetik dator 'I+K'. Eta izen kurioa dela uste dut.

Unibertsitate ondoan negozioa izanda, paperetan asko gastatzen duzu?

Denda duela gutxi ireki dut; orain dela bi hilabete, zehazki. Eta denda zabaldu nuenean ez nekien zer-nolako erantzuna izango zuen; baina emaitza ikusita oso gustura nago. Unibertsitateko jendearen erantzuna eta herritarren erantzuna positiboa izan da orain arte. Egia esan, unibertsitateko ikasleak beti azken orduan eta presaka eta korrika ibiltzen dira fotokopiak egiten, eta presio nahiko handia izaten da jende asko batera sartzen denean dendara fotokopiak eta bestelakoak erostera; baina gustura egiten dudana da.

Non ligatzen da gehiago, taberna baten edariak ateratzen ala fotokopiak egiten?

Galdera hori erantzuteko ez naiz ni aproposena, ezin dezaket esan; nik ez batean ez bestean ez dut ligatzen!



JASONE ZABALA

PERTSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Eskola-graduatu. **Zaletasunak:** Musika entzun, bateria jo eta lagunekin txikiteo ordua. **Musika talde bat:** Social Distortion. **Bidaiatzeko leku bat:** Argentina. **Zer gorrotatzen duzu?:** Batez ere bi gauza: faltsuke-

ria eta hipokrisia. **Zure ametsa?:** Horrenbeste amets dauzkat, ez dakit nondik hasi. **Irakurritako azken liburua?:** Patxibusa edo Kaskarintxo. **Zein talde ekarriko zenuke Eskoriatzara?:** Bruce Springsteen edo Mike Ness.

Negoio propioa izanda, garai bateko parrandak alde batera utzi behar izan dituzu? Ala bata besterekin bateragarria izan daiteke?

Egia da orain asteburuak nahiko libre izanda goizetan, behintzat, lo egin dezakedala; tabernan lan egiten nuenean hori ezinezkoa zen! Beraz, biharamuna eta burukominak tabernako barra atzean pasatu beharrean ohean pasatzen ditut orain! Ederra aldea...

Kultura ekitaldiak ere antolatzen dituzu. Lan berriarekin badaukazu denborarik horretarako?

Bai. Denbora baino gehiago gogoia izan behar dela esan daiteke. Taldetxo bat gaude Inkernu tabernako ekintzak antolatzen, eta gustura eta gogoz egiten dugu lan.

Martxoan, adibidez, The Wet Band etorriko da kontzertua ematera eta berandu baino lehen Skovers taldearen diskoaren aurkezpena ere izango da. Guztiok zaudete gonbidatuta!

Aitzorrotz kultura elkarte kide ere bazara. Zer egiten duzu bertan?

Kultura elkarte batek darman jarduera bideratu. Bazkide kopuru handia daukagu eta horri eskerrak burutzen ditugu herrian kultura jarduerak: kontzertuak, erakusketak, ardo dastatzea eta, nola ez, Inkernuko kudeaketa ere bai.

Zein da Eskoriatzan antolatzen diren kultura ekitaldien egoera? Jendeak parte hartzen du?

Urteak aurrera doazen neurrian, kultura jarduerak gorantz doazela nabaritu dut, baita jendearen parte hartzea ere.

Pena handia da areto aproposik ez izatea herrian; ekintza asko egiteko orduan ez dago leku aproposik, eta mugatuta gaude. Ea krisialdiari agur esan eta erabilera askotariko aretoa egiten den; egia esan, proiektu polita da egiten ari direna eta gure ilusioa proiektu hori egia bihurtzea izango litzateke.

Amaitzeko, zer eskatzen diozu etorkizunari?

Eskatzea librea da; gero, eskatutakoa lortzea da zaila, baina nik batez ere bi gauza eskatuko nizkioke etorkizunari: osasuna eta askatasuna. Ea laster lortzerik badagoen.

Aratusteen gaineko errepassoa

GOIENKARIA > ARRASATE

Asteburuan Aratusteen gaineko emango dutenaren gaineko gainbegiratu zabalago egingo du Amaia Txintxurreta kazetariak astelehenero *magazinea*-n. Bergarako, Arrasateko eta Aretxabaletako Aratusteen oinarri duten erreportaje zabalago landuko du aste bukaeran. Ikusitakoak kontatzera ere hurreratu du da platora Txintxurreta, Larraitz Zeberio saioko gidariarekin batera.

GOITB, 'Magazine'-a

> Astelehena, (otsailaren 23a), 19:45ean.



Itziar Lamarain, PP.



Agurne Barruso, Ezker Abertzalea.



Jesus Egiguren, PSE-EE.



Joseba Egibar, EAJ.

Ezker abertzaleko, PSE-EEko eta EAJko kideak 'magazinea'-n

Datorren astean ere, elkarrizketak alderdi politikoetako ordezkariekin

GOIENKARIA > BERGARA

Oraingo astean egin bezala, orain arte elkarrizketatu ez dituzten alderdi politikoetako ordezkariak izango dira datorren astean *Goiena magazinea*-n Goiatz Aranarekin eta Larraitz Zeberioarekin. Astelehenero, ezker abertzaleko Agurne Barruso izango da plato-

an. Eguaztenez, Alderdi Sozialistako Jesus Egigurenen txanda izango da eta egubakoitzean, berriz, EAJko ordezkariak hartuko du protagonismoa: hain zuzen ere, Joseba Egibar izango da *Goiena magazinea*-ren *Solasaldiak* tartean. Horiek ikusteko aukera 19:45ean duzue.

Hiru elkarrizketekin, hauteskudeei begirako solasaldiak amaitutzat emango dira.

GOITB, 'Solasaldiak'

> Astelehena, eguazten eta egubakoitzean, 19:45ean

Gatibu eta dantzarako sarrerak

UBANE MADERA > ARRASATE

Egubakoitzean (otsailaren 27an) Gatibu talde gernikarra izango da 3.60 aretoa musikaz jantzen. Bestalde, zapatuan, dantzarekin jantziko dute Amaia antzokiko agertokia, *Lur Sagar* dantzaldi erakusketarekin. Bada, bi ekitaldi horietara gonbidatu gura ditu Arrasate Irratiak entzuleak, sarrerak zozketatuta. Parte hartzeko: 943 25 05 05; irratia@goiena.com edo goiena.net/blogak/irratia.

Arrasate Irratia, 'Igo Autobusera'

> Egubakoitzea, (otsailaren 27a), 11:30etik 12:00etara.

Larraitz Ugarte abokatuarekin izango da Elortza

Kutxaren Urrezko Zerbitzuak babestutako saioa da, dakizuen moduan, *Zaharrak berri*. Datorren eguaztenez, *magazinea*-ko lantaldeak Hurkoa fundazioko ordezkari bati egindako elkarrizketa eskainiko dute *Zaharrak berri*-n, Oihana Elortzak zuzendutako saioan.

GOITB, 'Zaharrak berri'

> Eguaztena, 20:45.
> Eguena, 16:15.



GOIENKARIA

astea GOITBn

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzea

10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepassoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

Egubakoitzea, 20	Zapatua, 21	Domeka, 22	Astelehena, 23	Martitzena, 24	Eguaztena, 25	Eguena, 26
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ur eta lur.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Erlo klip.	13:45 Ikusten: Joaldunen eguna.	13:45 Ikusmira.	13:45 Euskal herria lau haizetara.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Golb tb.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Hiru zopa hotz.	14:15 Berriak.	14:15 Eltze beroa:Limoi tarta.
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	15:10 Ilunpean.	14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.	12:30 Ikusmira.	12:30 Ikuskizuna.	15:15 Itsasoari begira Patxi Iribar, arrantzalea.	15:10 Harmailatik.	15:50 Golb tb.	14:45 Berriak.
16:15 Ikusten.	13:00 Eltze beroa.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 klip.	15:50 Solaskide.	16:20 28 Klip.	15:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	14:30 Trikitraka trikiton.	13:45 Solaskide.	16:45 Berriak.	16:20 Erloklip.	16:45 Berriak.	15:45 Ikuskizuna.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:15 Zaharrak berri.
18:00 Ilunpean.	18:00 Erreportajea.	15:15 Gure saltsan.	17:45 Wasemak	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	16:45 Berriak.
18:45 Berriak.	18:30 Solaskide.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:15 Musikantoi	18:05 Harmailatik.	18:15 Ur eta lur.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Erreportajea.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Berbaire.	19:15 Erreportajea.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.
20:45 Gure saltsan.	20:30 Golb tb.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	20:15 wasemak.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Wasemak.	20:45 Zaharrak berri.	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.	21:30 Ilunpean.	21:15 Euskal herria lau haizetara.	20:45 Golb tb.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Musikantoi.
22:45 Wasemak	22:15 Solaskide.	21:45 Berbaire.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ilunpean: Igor Gonzalez de Galdeano	22:15 Erreportajea: Arantzazuko santutegia	21:15 Goiena Magazinea.
13:45 Goiena Magazinea.	22:45 Erreportajea.	22:45 Golb tb.	22:15 Harmailatik.	23:00 Mugaz kanpo: Eskandinabia.	22:45 Euskal herria lau haizetara.	22:15 Berbaire.
00:45 Emisio amaiera.	23:30 Wasemak.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:15 Erreportajea:
	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	23:45 Goiena Magazinea.
	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.			00:45 Emisio amaiera.

herritarrak galdezka

ARETXABALETAKO HERRIKO PLAZAKO LANAK, BUKATUTA?

Herritar batek posta elektronikoz bidali digu mezua. "Orain dela hila-bete, Udalak adierazi zuen plaza bukatuta zegoela. Baina hori ez da guk uste duguna eta galdera asko daude erantzuteke oraindik: nork garbitu behar ditu komertzioetako fatxadak? Zergatik ez dute plaza dena ondo margotu eta oraindik gauza batzuk margotu gabe utzi? Zergatik margotu dute Arkupe kultura etxea beste kolore batean zokaloa harrizkoa izanda? Nork itxi behar ditu utzitako zuloak?", galdetzen du herritar horrek.

Aretxabaleako alkatearekin egon gara galdera horiei guztiei Udalak zein erantzun ematen dien jakiteko. Alkateak hauxe dio: "Plazako lanen eraginez zikindu diren fatxadak lan horiek egin dituen kontratistak garbitu behar ditu".

Bestalde, plaza guztia margotu gabe dagoela dio herritarrak. Horren aurrean Garrok hauxe esan du: "Ez dakigu zehaztasunez zein tokiri buruz ari den herritarra, baina suposatuta dugu arkupeen barrualdeaz ari dela. Horien jabetza pribatua den neurrian, aterpe komertzialak ez dira margotu. Hala ere, Herriko Plazako fatxada guztia aztertzen gabiltza, mantentze-lanak egin ez ezik, fatxadak eraberritu eta diseinu berria egiteko eta proposatzeko asmoz".

Aretxabaletar horren beste galdera bat Arkupe kultura etxea margotu duten kolorearen gainekoa izan da; alkatearen iritziz, "Arkupe eraikinaren sarrerari kolore espezifiko eman zaio, nabarmendu nahi izan delako eraikin publiko baterako sarrera dela. Sarrera bera ere diseinu espezifikoaz egin da". Azkenik, plazan tapatu gabe utzi diren zuloen gainean Garrok hauxe adierazi du:



Aretxabaleako plaza berria.

MIRARI ALTUBE

"Aipatzen diren zulo edo hutsune horiek telekomunikazioetarako daude utzita. Telefonica eta Euskaltel enpresei lehenbailehen etortzeko esan zaie, arkupeetako fatxadan dauden kableak guztiz ezkutatu ahal izateko. Beraz, gutxi barru egon behar-ko lirateke horiek guztiak tapatuta", amaitu du alkateak.

Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxeaz: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ZERGATIK EZ DA ERREBISORIK EGITEN OSASUN ETXEAN?

Neska gazte baten galdera da goikoa. Ginekologoarenean txanda hartzeraz joan zen Oñatiko anbulatiora, eta han esan zioten bertan zitologiak bakarrik egiten direla eta osasun azterketak ez direla egiten. Lehen, bi urtetik behin egiten zen gazteendako osasun azterketa, ondoren 3 urtetik behinera pasa da. Orain, zitologia arazorik ezean, azterketa nork bere kontu egin behar du. Zergatik?

Santiago Ayechukin egon gara, Oñatiko osasun etxe arduradunarekin, eta hark adierazi digu lehen, osasun azterketak urtero egiten zirela; baina ikusi zutela nazioarte mailan azterketa batzuk egin ondoren ez zela beharrezkoa maiztasun horrekin egitea; hori horrela, orain, 3 urtetik behin egiten dira; "Hori bai, lehen urtean, bi egiten dira eta ikusten bada arazorik ez dagoela hiru urtean behin egiten da", gehitu du Ayechuk.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 21

Giro egonkorra izango dugu. Zerua zurixka egongo da, erdi eta goi mailako hodeiekin; tarteka eguzkia ere ikusiko dugu. Izotza egin dezake.




Domeka, 22

Temperaturak gora egingo du eta iparraldeko haizea izango dugu; hodeiak izango dira, baina eguzkia ere ikusiko dugu.

EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian osterteak izango dira nagusi; eguzkia ere ikusi ahal izango dugu. Astea astearekin bat lainoak ugarritu egingo dira eta temperaturak behera egingo du.




TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	-4°C	Max.	Min.	Euria
Martitzena, 17		°C	°C	l/m ²
Eguaztena, 11	11	5	57,1	
Eguena, 12	11	9	2,1	
Egubakoitza, 13	12	1	-	
Zapatua, 14	8	-2	-	
Domeka, 15	12	0	-	
Astelehena, 16	12	-2	-	
Martitzena, 17	12	-4	-	

ASTEKO EURIA
(l/m²) **59,2 L**

bono fotoa



XIX. mendean izen handia hartu zuen Elorza Jeneralak, batez ere atzerrian. Oñatiko zein auzotan jaio zen ingeniari militar hau?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko Luis Orobengoa.

Zorionak!

Erantzun zuzena:

Elur malur ez nauk hire beldur



LARCHAGO

Garmendia Ardoek emandako

Ardo botila packa*

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago krianza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 21	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Domeka, 22	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Astelehena, 23	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 24	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguaztena, 25	Irizar	Erguin, 11	943 77 12 39
Eguena, 26	Amezua	Santa Marina, 22	943 79 09 74
Egubakoitza, 27	Español	Araba Etorb., 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapatua, 21	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 22	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 23	Urrutikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Martitzena, 24	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 25	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 26	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 27	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 21	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 22	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 23	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 24	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 26	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 27	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA


Zapatua, 21	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 22	uan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 23	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Martitzena, 24	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 25	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguena, 26	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Egubakoitza, 27	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

ezkontzak



Isabel Alberdi eta **Jose Julian Urtzelai** otsailaren 7an ezkondu ziren Arantzazun, orain dela 50 urte. Domeka honetan ospatuko dute. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta urte askotarako etxekoan eta Elgetako familiaren partetik.



Nuria Dominguez arrasatearra eta **Jokin Orueta** aretxabaletarra otsailaren 21ean ezkonduko dira Donostian. Familiakoekin ospatuko dute, bazkari eder batekin. Zorionak, anai-arreben eta bereziki aitaren eta amaren partetik.



Oñatiko **Itxaso Elkoroiribe** eta **Bittor Axpe** otsailaren 28an, zapatuan ezkonduko dira Oñatiko bake epaitegian. Gero, Tenerifera joango dira bidaian Peiorekin. Zorionak, bikote, eta patxo bana lankideen partetik.

hildakoak

- **Feliciana Santesteban Telletxea.** Arrasaten, otsailaren 12an. 90 urte.
- **Josefina Lopez San Sebastian.** Oñatin, otsailaren 12an. 72 urte.
- **Rosa Maria Azkarate Azkarate.** Bergaran, otsailaren 14an. 88 urte.
- **Miguel Angel Valor Fernandez.** Bergaran, otsailaren 14an. 35 urte.
- **Pedro Urkia Igartua.** Oñatin, otsailaren 14an. 92 urte.
- **Angel Azkarate Elkoro.** Bergaran, otsailaren 16an. 86 urte.
- **Sinesia Hermosilla Calle.** Bergaran, otsailaren 16an. 103 urte.
- **Justo Elkoro Ansola.** Elgetan, otsailaren 17an. 82 urte.
- **Josefa Agirre Larzanguren.** Arrasaten, otsailaren 17an. 94 urte.
- **Jose Antonio Anduaga Arenaza.** Aretxabaletan, otsailaren 17an. 63 urte.
- **Martin Laskurain Aia.** Bergaran, otsailaren 18an. 53 urte.
- **Patxi Ercilla Pagaldai.** Arrasaten, otsailaren 18an. 90 urte.
- **Jose Antonio Oliva Vidriales.** Arrasaten, otsailaren 18an. 44 urte.
- **Jose Arejola-Leiba Olabarria.** Bergaran, otsailaren 18an. 86 urte.
- **Maria Jesus Arkauz Bikuña.** Bergaran, otsailaren 18an. 72 urte.

URTEURRENA

Gregorio Azkarraga-Urizar Sarraoa

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 22an, 11:00etan, Angiozarko elizan.

Hemendik joan zinen Otsail buruan Alde egin zundun baina Ahaztu ez belakuan.

Egunero zaude zu Keinuka zeruan. Nahiz ta denbora igaro Zaitugu goguan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean

2. URTEURRENA

Jesus Ibabe Orueta

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 22an.

Gure oroimenean, bihotzean eta irrifarrean egongo zara betiko



Etxekoak. Arrasaten, 2009ko otsailaren 20an.

ESKER ONA

Sinesia Hermosilla Calle

Rodrigo Rubioren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 16an, 103 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 20an.

ESKER ONA

Maria Alzelai Anduaga

Oñatin hil zen 2009ko otsailaren 9an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko otsailaren 20an.

ESKER ONA

Jose Antonio Anduaga Arenaza

2009ko otsailaren 17an hil zen, 63 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2009ko otsailaren 20an.


ESKER ONA

Marcelo Barrutia Guridi

Marcelina Arregiren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 4an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko otsailaren 20an.

ESKER ONA

Angel Azkarate Elkoro

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 16an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 20an.

ESKER ONA

Jose Ramon Zelaia Kortabarria

Oñatin hil zen 2009ko otsailaren 8an, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei sendikoen izenean eskerrak. Haren arimaren aldeko ondraz zapatuan, otsailaren 21ean, 19:30ean, Oñatiko Agustinoetan.



Oñatin, 2009ko otsailaren 20an.

OROIGARRIA

Martin Laskurain Aia

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 18an, 53 urte zituela.



Zure lagunak. Bergaran, 2009ko otsailaren 20an.

ESKELA

Angel Azkarate Elkoro

Eneko Azkarate Goienako lankidearen aita.

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 16an, 86 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Bergaran, 2009ko otsailaren 20an.



Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Otsailak 20-27

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguzteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARETXABALETA

> Liken taldea gaur eta Oskarbi taldea bihar Zaraia aretoan

Liken talde aretxabaletarraren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Zaraia aretoan, 22:00etan. Bihar, toki berean, Oskarbi (irudian) folk kontzertua eskainiko du, 19:30ean. Bi emanaldiek prezio bera izango dute: 8 euro.

Antzerkia



ARRASATE

> 'Sobre flores y cerdos, más Nancho que largo' domekan Amaian

Nancho Novo aktore ezagunaren emanaldia domekan Arrasaten, 19:30ean. Abestiak, poesiak eta istorioak tartekatzen dituen umorezko saioa da, ikusleen konplizitatea bilatzen duena. Sarrerak 10 eurotan salgai daude Servikutxan.

Antzerkia



BERGARA

> 'Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela', Ados taldearen eskutik

Garbi Losadak zuzenduta, Lierni Fresnedo, Kandido Uranga eta Ainhoa Aierbe aktoreekin. Isabel, irrati esatari ezaguna, etxetik desagertuko da inolako arrastorik utzi gabe... Udal Pilotalekuan domekan, 20:00etan. Sarrerak, 8 eurotan.

eta Ricardo Otañoren lanak egongo dira ikusgai.

Inaugurazioa gaur Aroztegi aretoan, 19:00etan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

BERGARA

> Iker Iglesiasen argazkiak

Iker Iglesias aretxabaletarrak Namibian ateratako 18 argazki jarri ditu ikusgai.

Nahikari tabernan, Masterrekan, hilaren bukaerara arte.

Hitzaldia

LEINTZ GATZAGA

> Loaren gaineko hitzaldia gaur

Fernando Viciosak egingo du hitzaldia gaur, egubakoitza. Antolatzaileak: Sorginak Emakume Elkarte eta Bizikasi. Gatzagako kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA

> Angel Rekalderen hitzaldia eguaztenean

Euskal estatua izenburuko hitzaldia egingo du Rekaldek. Eguaztenean, hilak 25, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ESKORIATZA

> 'Bizkarrezurra eta Nerbio Sistema' hitzaldia

Andrea Larrañaga kiropraktikaren eskutik. Antolatzaileak: Amuska Emakume Elkarte eta Bizikasi. Martxoaren 24an, 18:30etik 19:30era.

Proiektzioa

ARRASATE

> Ikus-entzunezkoa: 'Mari Mendi: Elbrus espedizioa'

Mari Mendiko Marian Arin, Ane Hernani, Mertxe Agirre eta Gema Zubizarreta izango dira solaskideak. Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta. Eguenean, otsailak 26, Kulturaten 19:00etan.

Ikastaroak

ARRASATE

> Pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa

Menpekotasuna duten pertsona helduak zaintzeko ikastaroa. Zaintzaileen jarraiek eta aholmenak landuko dituzte nagusiki. Antolatzaileak AED Ekin Emakumeak (Harrera proiektuaren barruan) eta Bizikasi. Otsailaren 23an eta 26an eta martxoaren 2an, 5ean, 9an eta 12an, 15:30etik 17:30era. Izenematea eta argibideak: 943 79 83 70 (Maite).

ARETXABALETA

> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak

Musika

OÑATI

> Belceblues taldea, Oñatiko gaztetxoekin

Bergarako taldearen blues kontzertu didaktikoa.

Gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan, 18:30ean.

BERGARA

> Disko jartzaileen festa zapatuan Jam aretoan

Kogollo Party Krew meets Inauteriak 09: Omar Leon, Iñaki Kreator, Ima Txillaut, Mikel Konak, Pako eta Balza.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, gauerditik aurrera. Sarrera: 12 euro.

OÑATI

> Decepcion Rock, Galdu Arte eta Krisis

Arrasateko, Oñatiko eta Aretxabaletako taldeak.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA

> 'Kuba', Inauterietako kontzertua gaur

Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin.

Gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

BERGARA

> Delorean hurrengo egubakoitzean, Jam aretoan

Delorean, Requesters eta K**O otsailaren 27an Jam aretoan; martxoaren 1ean Deathstars, Sonic Syndicate eta Waldheim.

Hilaren 27ko kontzerturako sarrerak 12,10 eurotan salgai; leihatilan, 13 eurotan.

Antzerkia

BERGARA

> Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Piratak ikuskizunarekin datoz Bergarara.

Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 16:30ean eta 18:30ean.

OÑATI

> 'Maldito parné', gaur

Glu-Glu taldearen antzezlan.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera: 10 euro.

OÑATI

> 'Bremengo musikariak', Teatro Paraiso taldearekin

Bereziki umeei zuzendutako antzezlan.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarrerak: 3 euro (haurrak) eta 4 euro (nagusiak).

ARRASATE

> Hipo eta Tomas pailazoak Aratuste-martitzenean

Umeei zuzendutako saioa dibertigarria.

Martitzenean, hilak 24, Amaia antzokian, 17:00etan.

OÑATI

> Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak

Taulara! ikuskizuna eskainiko dute.

Martitzenean, hilak 24, Zubikoa kiroldegian, 17:00etan.

Erakusketak

ARRASATE

> 'Oteitza, bizirako proiektua' erakusketa

Jorge Oteitza Fundazio Museoa eta Gipuzkoako Diputazioak antolatuta. Idatzizko eta ikus-entzunezko azalpenen eta argazkien bitartez, Orion jaiotako artista handiaren ibilbidea islatzen du, eta asmo dibulgatzaile argia du: artistaren

urratsen norabidea eta jatorria azaltzea.

Kulturateko klaustroan, martxoaren 1era arte.

BERGARA

> 'Birziklatuz sortu' erakusketa ibiltaria

Birbira talde nafarrak birziklatutako hondakinekin erakusketa jarri du kultura etxean, Ingurumen Hilabetearen barruan. Antolatzaileen asmoa da hondakin kontzeptuaren gaineko hausnarketa bideratuz sormena lantzea.

Kultura etxean, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara. Zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara. Otsailaren 28ra arte zabalik.

BERGARA

> 'Maisuak' erakusketa Aroztegi aretoan

Jose Antonio Laskurain, Francisco Leturia, Migel Okina

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Hermosilla, Petti eta Mery May

Pedro Javier Hermosillak *Tres y...* izenburuko zuzeneko diskoa aurkeztuko du gaur Arrasaten. *Amuleto de agua errante* eta *Por un ratito en tus oídos* diskoetako kantuak batu ditu aipatutako diskoan. Estatu Batuetan egon berri da musikari katalana, Sam Lardner-ekin batera hainbat emanaldi egingez. Hermosillarekin batera, Petti nafarra eta Mery May arrasatearra izango dira gaurko kontzertuan.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean. Sarrera: 10 euro.



Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatuta ditu Kultura Sailak. Pintura eskolak udazkenean hasi zituzten, baina oraindik lekua daukate, eta eskulanetan ere bai.

Izena emateko Arkupea deitu behar dute interesatuek: 943 08 10 01.

ARRASATE

> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsalde

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguaztenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABAETA

> Dantza libre topaketak hilean behin

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Alzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetearen behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Martxoaren 12an hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonon edo berenaiaara@yahoo.es helbidera idatzita.

ARRASATE

> Makillaje ikastaroa martxoaren 14an

Gemes estetika zentroaren eskutik, aurpegiko azala nola makillatu erakutsiko dute. Antolatzaileak: AED Ekin Emakumeak eta Bizikasi.

Martxoaren 14an, 10:30etik 14:30era. Ekin Emakumeak taldeak antolatuta. Argibideak: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36.

OÑATI

> 'Bularretik mintzora': Juan Kruz Igerabiderekin saioa

Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura, Juan Kruz Igerabiderekin.

Martxoaren 4an, 18:30ean, Oñatiko Haur Liburutegian. Guraso, hezitzaile eta interesa duen edozeinendako irekia.

ARETXABAETA

> Hitano ikastaroa Loramendi-aren eskutik

Otsailaren 25ean eta martxoaren 5ean eta 12an izango dira eskolak. Joxeba Urkia izango da irakaslea. Loramendi elkarteak antolatuta.

Izenematea: 943 77 09 70.

ARRASATE

> Biodantza ikastaroak

Rakel Ampudia eta Carlos Orellana dira irakasleak.

Argibideak eta izenematea: biodanza-vitoria@gmail.com edo 679 495 836.

Lehiaketak

ARRASATE

> Film labor lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak Labor-Laburrak film labor lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da gaia. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke. Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik.



Slumdog millionaire **

Zuzendaria: Danny Boyle.

Aktoreak: Del Patel, Anil Kapoor, Freida Pinto. AEB-Bretainia Handia, 2008. 120 minutu.

Oraingo aste bukaeran, domekatik astelehenera doan egunsentian, Hollywoodeko Akademiak banatuko ditu hain famatuak diren Oscar sariak. *Slumdog millionaire* da zuzendari eta film onenaren sariak eskuratzeko faborito nagusia. Filma Indian filmatuta dago eta hango giroa, kaleak, koloreak, mugitzen den jende pilo eta behe auzoak erakutsiko zaizkigu eta mundu osoan oso famatua den galdera-erantzun telebistako saio bihurtuko da istorioren erdigunea. Dena den, hau horrela izan arren, batez ere Danny Boylen filma ipuin bat da, eta pertsonaia nagusiek hirukotea osatzen badute ere (anaiak diren bi mutil eta neska bat), Jamal (anaietatik gazteena) da protagonista nagusia.

Badakigu *Trainspotting*-eko zuzendariak oso gustuko duela kamera asko mugitzea, leku desberdinetatik filmatzea, eta muntaiari eta musikari garrantzi handia ematen diela. Eta nahiko estetika eta itxura modernoak ematen dizkiela bere lanei. Horixe bera gertatzen da *Slumdog millionaire* honekin, eta nahiko nahasketa eroa sortzen da estetika modernoa erabiltzen denean betiko ipuin bat kontatzeko. Pertsonaia onak eta horien bideak eta bizitzak oztopatzen ahalegintzen diren pertsonaia txarrak daude, baina amodio istorioa ere; protagonistak proba desberdinak gainditu beharko ditu zoriontasuna lortzeko. Filmak erabiltzen duen estetikarengatik modernoa ematen du, baina ipuinari dagokionez aurreikusteko modukoa agertzen da: ipuinetan agertzen diren pauso eta protagonistak azaltzen dira, ez dago ezustekorik, ez da bidetik ateratzen, eta betiko pertsonaiei eta egorei ez die ñabardura berriarik ateratzen.

Hori dela eta, *Slumdog millionaire* proposamen dibertigarria, bitxia eta momentu askotan atsegina izan daiteke, baina ez du zirrararik sortzen.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Valkiria
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehen: 20:30.

El valiente Desperaux
Zapatua: 17:00.

La comedia de la vida
Eguena: 20:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La ola
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehen: 19:30.

El linxe perdido
Zapatua eta domeka: 17:00.

Padre nuestro
Eguena: 20:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

La boda de mi novia
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

Movida bajo el mar
Zapatua eta domeka: 17:00.

La edad de la ignorancia
Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

Alguien voló sobre el nido del cuco
Domeka: 18:00.

ARETXABAETA

ARKUPE

Funny games
Eguena: 19:30.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

El último rey de Escocia
Egubakoitza: 22:15.

EIBAR

UNZAGA

Revolutionary Road
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehen, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

El luchador
17:30, 20:00, 22:30.

Revolutionary Road
18:00, 20:15, 22:30.

El curioso caso de Benjamin Button
16:30, 19:30, 22:30 (zapatua); 17:30, 20:30 (domeka).

Un chihuahua en Beverly Hills
16:30, 18:30, 20:30 (zapatua eta domeka).

Valkiria
18:00, 20:15, 22:30.

La historia completa de mis fracasos sexuales
18:00, 22:30.

Cadillac records
18:00, 20:15, 22:30.

La clase
20:00.

Mi nombre es Harvey Milk
22:30.

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

The reader
17:30, 20:00, 22:30.

Slumdog millionaire
17:30, 20:00, 22:30.

El desafío: Frost contra Nixon
20:00, 22:30.

Vals con Bashir
18:00, 20:15, 22:30.

Hoy no se fia, mañana sí
18:00, 20:15, 22:30.

La duda
18:00, 20:15, 22:30.

El zorro ladrón
17:30 (euskaraz).

Bienvenidos al norte
17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitzetik domekara.

YELMO-GORBEIA

Slumdog millionaire
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

Push

16:00 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

The reader
15:30 (zapatua eta domeka), 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

Viernes 13
20:20, 22:20, 00:20.

El juego del ahorcado

15:40 (zapatua eta domeka).

Mal ejemplo
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45.

Valkiria
15:50 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Revolutionary Road
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Camino
19:30, 22:15.

Siete almas
17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

Guerra de novias
16:35 (zapatua eta domeka), 18:25.

El curioso caso de Benjamin Button
15:30 (zapatua eta domeka), 18:30, 21:30, 00:30.

Un chihuahua en Beverly Hills
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00.

Dieta mediterranea
20:15, 22:10, 00:05.

Bienvenidos al norte
22:00, 00:00.

Madagascar 2
16:30 (zapatua eta domeka).

El linxe perdido
15:50 (zapatua eta domeka), 17:50.

Transporter 3
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00.

El valiente Desperaux

15:40 (zapatua eta domeka), 17:40.

Bolt

16:20 (zapatua eta domeka), 18:20.

El intercambio
19:40, 22:15.

Australia
21:50.

La clase
21:45, 00:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatua.

ÁBACO BOULEVARD

Slumdog millionaire
15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Push

15:50, 18:05, 20:20, 22:40.

The reader

17:00, 19:30, 22:20.

Un chihuahua en Beverly Hills
16:05, 18:00, 20:00, 22:00.

Dieta mediterranea
16:10, 18:10.

El curioso caso de Benjamin Button
15:45, 18:50, 22:00.

Valkiria
15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

Guerra de novias
20:15, 22:15.

Mal ejemplo
16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

Transporter 3
16:00, 18:10, 20:25, 22:35.

Revolutionary Road
17:00, 19:30, 22:15.

Siete almas
17:15, 20:00, 22:30.

Viernes 13
16:20, 18:20, 20:20, 22:25.

Egubakoitzetik eguenera.

nire aukera



Aitor Biain

Ganbarako eta Bergarako Orfeoiko zuzendaria

Musikarekin ezin hutsik egin

Ez da erraza Aitor Biain oñatiarra harrapatzea, hura eta hona dabilelako. Lazkaoko Musika Eskolan irakasle dihardu; Oñatiko Ganbara abesbatzako eta Bergarako Orfeoiko zuzendaria da; eta, aldi berean, kantu ikasketak egiten dabil Gasteizen, Jesus Guridi eskolan. Musika zainetan daramala argi geratu ez bada, Oñatiko Bandan ere jotzen du. Hain zuzen ere, domeka eguerdian egingo dute emanaldia Santa Ana aretoan. Aspaldiko partez zapatua libre duenez, Donostiara joateko aprobetxatuko duela diosku.

Zer moduzkoa gertatzen ari da Ganbararekin ETBko *Oh happy day* kantu lehiaketa?

Gazteak oso motibatuta daude eta telebista gertutik ezagutzea aberasgarria da, kantuaz gain, dantza eta estilismoa landu beharra daukagulako. Egubakoitzeroko egiten dugu grabazioa, eta berandu bukatzen dugu: goizeko ordu biak-edo etxeratu orduko...

Eta zein da zuen helburua?

Lehiaketan ahalik eta urrunen iritsi. Ikusketan dugu... Gogor ari gara entseatzeko. Domeka arratsaldean entsegu drinkoa egingo dugu Santa Anan, lehiaketa eta datorren zapatuko Ondarroako emanaldia gertatzen.

Horrelako musika agendarekin, denbora librerik bai?

Aspaldiko partez, zapatua libre daukat eta Donostiara egun-pasa joango naiz, lasai ibili eta erosketa batzuk egiteko.

Mozorrotuko zara zapatuan?

Zapatua ez, baina martitzenean bai. Badaukat zerbait etxean, baina auskalo zer ateratzen den... Giro polita egoten da Oñatin.

Musikaz aparte beste zaletasunik?

Kirolzalea ez naiz... Zinema eta irakurtzea gustuko dut. Stieg Larsson-en *El hombre que no amaba a las mujeres* irakurtzen nabil; gustura, gainera.

Edu Mendibil



Valkiria

AEB-Alemania, 2009. Zuzendaria: Bryan Singer. Aktoreak: Tom Cruise, Carice van Houten, Eddie Izzard, Kenneth Branagh. 120 min.

II. Mundu Gerra, Alemania. 1944an, Claus von Stauffenberg armada naziko koronela Adolf Hitler hiltzeko plan bat aurrrera eramaten ahaleginduko da. Thriller historikoa da, Tom Cruise aktore ezaguna proiektuaren bultzatzaile eta filmeko protagonista nagusia dela.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

El intercambio ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.

Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsek bizitza... Benetak gertakarietan oinarrituta.

La duda ***

AEB, 2009. Zuzendaria: John Patrick Shanley. 1964. urtea, New Yorken Bronx auzokan San Nicolas elizan. Flynn apaizak moiek zuzendutako ikastetxearen arau zorrotzak aldatu nahi ditu. Flynnek ikasle beltz batez abusatutako duelakoan, Aloysius moja apaiza kaleratzen ahaleginduko da.

Camino ****

Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.

hautsak harrotu dituen filma. Benetako gertakizun baten oinarrituta, 11 urteko Camino izeneko nekatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maiemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratutako.

Revolutionary Road ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Sam Mendes.

50eko hamarkadan, Frank eta April Wheeler bikoteak amets eta ibaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta inguratzen dituen gizarte konformistatik aldendu nahi dute. Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilrek aktore izan nahi du Parisen. Gauzak korapilatzen joango zaizkie.

The reader

AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.

Michael Berg 15 urteko gaztea gaitzotuz egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna.

Gomorra ****

Italia, 2008. Zuzendaria: Matteo Garrone.

Camorra italiarraren bortizkeriak sei pertsonaren egunerokotasuna baldintzatuko du. Horien artean bi lapur traktak, jostun veterano bat eta enpresari bat daude. Europako zinema sarietan irabazle nagusia gertatu zen best sarierekin, besteak beste, film onenaren saria eskuratuz.

Txokolatezko unibertsitatea

MOLDEA Tailagile batek egin dituen plastikozko moldeak txokolatez beteta lortzen dira unibertsitatearen irudiak

BI ZAPORE Fatxada zuridun bonboiak Bayleis likorez beteak daude, besteak kafez; pralinezkoak ere egitea da asmoa

SALGAI Oñatin eros daitezke, oraingoz, Ogibarrin, Madalenako gasolindegian eta Txokolateixan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Ipuinetik ezagutzen dugu txokolatezko etxetxoak, fantasiakoa, baina bada benetako txokolatezko unibertsitaterik, eta ez edonongo unibertsitatea, Oñatiko unibertsitate zaharra baizik.

Gozokin gozotegian egin dituzte Oñatiko unibertsitatearen irudia duten bonboiak. Kataluniako Pazkoko monen parekoak dira, tamaina txikian. "Tailagile bati eskatu diogu irudia plastikozko moldeetan egin dezan eta molde horiek txokolatez betetzen ditugu. Ondoren, bonboiak egiten ditugu eta bete", azaldu digu Gozokinekin Jon Igartuak.

BAYLEIS ETA KAFEZ BETEAK

Bi bonboi mota egin dituzte: fatxada zuria dutenak Bayleis likorez beteak daude, eta besteak kafez. "Gure asmoa da etorkizunean pralinez betetako beste bonboi batzuk egitea. Batik bat umeendako eta gazteendako, likoreak atzera botatzen dituelako eta kafea garratza iruditzen zaielako", esan digu Jon Igartuak.

Urte guztian barrena salduko dituzte bonboiak herrian. Orain, Ogibarrin, Madalenako gasolindegian eta Txokolateixan dituzte salgai. "Izan daiteke produktu bat kontsumo propiorako, txokolatearekin gozatzeko edo oparitarako, oroigarri moduan ere. Aurkezteko modua ere *souvenir* moduan saltzeko egokia da", dio Igartuak. Bi formatu daude: lau bonboiko kaxa gardena, unibertsitateko postala duena; eta 12 bonboiko kartoizko kaxa, unibertsitateko irudiarekin. Txikia lau eurotan saltzen dute eta handia 10,5 eurotan.

Lehen egunean opari eman zituzten bonboiak eta jendea harrituta geratu dela esan digu Jon Igartuak. Oraingoz, salmenta nola doan ikusiko dute eta gerora beste irudi batzuk etor daitezkeela aurreratu digu. Bien bitartean, probatzea da onena. "Politak bezain gozoak direla esango nieke. Pentsatzen dute txokolate ontza bat dela, ez dute espero beteta egotarik, eta nik uste dut zapozuz gustatuko zaizkiela".



BI KAXA Jon Igartua, unibertsitatearen irudidun bonboiekin; bi kaxa daude, lau eta 12 bonboikoak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ahobero

"Benetako gizonak gustatzen zaizkit, usain ona dutenak, baina argizariarekin depilatzen ez direnak"

Maria Esteve > Aktorea

Esaerak dio itxurak bakarrik ez duela gizona egiten. Benetako gizonak ei ditu gustuko aktoreak, baina egiazkoa dirudien irudiaren atzean maiz gordetzen da gezurra. Horrek isilaraziko du beharbada gizona benetan, barrutik, nolako den oharrean.

iturri onetik

Bertsio jaia egingo dute Arrasateko gaztetxean otsailaren 28an

Arrasateko hainbat musikaririk antolatuta bertsio jaia izango da datorren zapatuan, otsailaren 28an, Arrasateko gaztetxean. 17:30ean hasita, 12 talde inguru igoko dira taula gainera iraganeko eta gaur egungo musika taldeen bertsioak jotzera eta abestera. Antolatzaileek espero dute jaialdi horrek orain dela urte batzuk egiten zuten 70eko hamarkadako jaiak besteko arrakasta izatea.

piperrautsa


Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Epaileak

Ezbaian ibili da grebarako eskubiderik ba ote duten ala ez. Greba izan daiteke harrigarria, baina bidezkoa iruditzen zait egonezinik dagoenak bere egonezina adierazi ahal izatea. Horraino, arazorik ez. Baliabideen premian ere, bat nator. Epaile gehiago, teknologia hobea, datu baseak... dena izango da gutxi justizia jaso zain dagoenarentzat.

Baina baliabide falta ez da Espainiako justiziaren arazo bakarra, nagusia ere ez. Garzon, Marlaska eta beste hainbat ez lirateke epaile onak izango ezta ordenagailuz josita ere. Epaile etikoa, norberaren gustukoa ez dena ebatzi arren errespetua merezi duena, itzala darion epailea oso espezie urria da inguruotan. Duintasun horren aldeko greba izan balitz, belarriekin ere joko nien txalo.

ai, ene!



Hanburgesa-ogitarteko itxurako soinekoa

Inauterietarako mozorrorik ez daukazuela? Bada, hona hemen ideia: hanburgesa-ogitarteko itxurako soineko aproposa.

www.nopuedocreer.com



Elkarrizketak hautagaiekin GOITBn

Goiena Magazinean, ordu hauetan: 19:45, 21:15 eta 23:45

DATOZEN ELKARRIZKETAK

> PP > Itziar Lamarain
Otsailak 20, egubakoitza

> EZKER ABERTZALEA
Otsailak 23, astelehena

> PSE-EE > Jesus Egiguren
Otsailak 25, eguaztena

> EAJ > Joseba Egibar
Otsailak 27, egubakoitza